

HASIER ETXEBERRIA

Mutuaren hitzak



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2005 Hasier Etxeberria

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2005eko urria

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Miguel eta Xabierri,
zuon lau zertzelada aski baitira
mundu oso baten erakusteko.*

Eztu nehork iragan den uretik hartzen eta ez etortzeko dagoenetik ere; aitzinekotik, iragai-tean, presentean denean behar da atrapatu.

AXULAR

BAGA

Arnasestuka etorria zen malda gorako bidean. Zangoek airean hegaka ekarria zuten, aspaldi ezagutu gabeko abiadan. Hala ere, zirudiena baizik ez zen egiazki Damian Arruti: une batetik bestera hesteak okaztatuko zituen erretzaile porrokatu bat, zahartxoa aukeran, halako atarramentu atletikoetan ibiltzeko.

- Familiako naiz -esan zion bidea ixten zion guardia zibilari, eta ozta-ozta gaineratu zituen ondorengo hitzak ere-, hildakoaren iloba naiz.

Guardia zibilak hesi-lana egiten zuen xingola horia pasatzen utzi zion orduan, erreka zuloraino bertaraino jaitsi ahal izan zedin. Horixe zuen egitekhoa gizon armatu hark, inori bidezidor hartatik jaisten ez uztea, mendiak beste ertz eta pasabiderik ez baleuka bezala. Goiz hartan zebilen hego-haize epela hatzen artean harrapatzearen antzeko zerbait zuen zeregina, azken finean. Hartarako baimena emateko, ordea, izena eta ordua kaiertxo batean idatzi zituen lehendabizi: Damian Arruti - 10:20 h. Letra oker haiek ikusita-

koan, aurrez erabaki gabeko keinu batez behatu zion Damianek eskuturrean zeraman ordulariari eta, bai, hamarrak eta hogezi ziren, preseski.

Bidezidorrean behera hartu zuen gero, ezker-eskuin zeuden ote zuri, garo eta asunen sastadei erreparatu gabe. Ez zegoen batere halako gauzetan ibiltzeko moduan. Bi aldiz egin zuen laprastaldapan behera eta, lurra jota, lohiz itsustu zitzaizkion gaztaina koloreko prakak atzeko aldean. Lahar bat ere tatarrazka zeraman arropetan kaparra bezala itsatsita, handik kentzeko ahaleginik egiteke.

Mariputzu esaten dioten lekura iritsi zenean, dozena erdi lagun ikusi zituen artega eta urduri, basoa baino oihana zirudien landaretza itxi eta ilunkararen erdiko argiune bakarrean. Euretako gehienak ibai ertzean zeuden, zutik, uretan ageritzen gorpuari begira eta ezertxo ere egiten asmatu ezinda.

Mariputzuko leku horretan, errekek geratu egiten du mendian behera berez dakarren oldarra, eta ia esan liteke ura bihurtzen dela olio, hain baita geldia eta geldoa hango uraren mantsoa. Zomorro zapatariek soilik ximurtzen eta bi-

ziberritzen dute uraren azala, etengabeko dantzatan.

Lekuan bildutako lagunetatik bi neoprenozko urpekari jantziz zeuden errekaen bazterreko harri borobil banatan eserita, oinetan jantzita ziztuzten eskarpinak errekan sartuta. Bistakoa zen epaile jauna Iruñetik oraindik iritsi gabea zela eta harexen zain zeudela han bildutakoak, zer egin eta nola jokatu erabakitzeko.

Damian epailea zenetz jakiteko behatu zioten denek sasi artetik garbiunera agertu zenean.

- Familiako naiz -errepikatu zuen begi guztiak berari so antzeman zituenean-, hildakoaren iloba naiz.

Hamarrak eta hogeita hiru.

- Laguntzen zaitugu nahigabeen -edo antzeko zerbait esan zion han zegoen emakume bakkarrak, Gurutze Gorriko txabusina berde bat jantzita zeukanak.

Buruarekin baietz adieraziz eta marmar lodi batez adostu zuten gainerakoek emakumeak adierazitako berbera, eta eskua eman zioten errenkadan, doluminaren seinaletan.

Gezurra zen familiakoa zela. Gezurra esan zenuen orduan ere, Damian. Bost axola halako gauza batek zuri. Senperena zaharra zen hango ur geldietan ahuspez itota ageri zen gizona eta Erromako Aita Saindua zinela ere esango zenuen Mariputzu bertaraino iristeko beste aukerarik izan ezean. Familiako zinela, horixe esan zenuen. Iloba zinela. Baztandarrek bazekiten arren Senperena zaharrak ez zeukala familiarik inon. Bakar-bakarrik bizi zela gizona, Auñamendiko hartza baino bakarrikago.

Ikusi egin nahi zenuen kosta ahala kosta. Ikusi egin nahi zenuen erreka putzuan itotako lagunaren eitea. Albistea jakin bezain azkar gosalteari utzi eta aztoraturik heldu zenion ibaian gorako bideari. Edo erreka behar nuke esan, Damian? Korrika lehenbizi eta pauso azkarrez gero iritsi zinen lekura, arnasestuka beti, erretako ke guztiaren damua gainetik kendu ezinik. Ikusi egin nahi zenuen Senperena zaharraren gorpua, zeure begitxo horiekin.

Hantxe zegoen ahuspez lagun izandakoa, urak ekarritako hilikia irudiz. Metro eskaseko ur gelditan itoa. Ibaia eta bere erreka guztiak inork

ez bezala ezagutzen zituen gizona, hantxe putzu barean itota. Ahuspez, eta beso bat bere lekutik aterata, bizkarraren gainean era harrigarrian bihurrituta.

Ez zegoen Hercule Poirot izan beharrik gizon hura berez hildakoa ez zela jakiteko. Hori garbi ikusi zitekeen han bilduta zeudenen aurpegieran, argazkiak ateratzen ziharduen guardia zibilaren ahaleginean, batez ere. Beso harexen jarrera bortxatua zuen helburu haren argazki-kamerak, behin eta berriz klik eta klak, hilketaren sekretua Olympus hark bakarrik bildu ahalko bailuen.

Ez zuen inork ezer esaten, eta soilik erreka-
ren berezko marmarra eta inguruko birigarroen txioa baino ez zen entzuten bazterretan. Eta erlastar eta liztorren burrunba. Kaka zaharra. Baten batek hila zizun laguna, Damian. Baten batek garbitua. Akabatua, edo Baztan aldeko herrietan esateko ohitura duten eran, kasatua. Kaka zaharra eta kaka zaharra. Ikusi nahi bazenuen, ikusi zenuen horratik. Hortxe zeneukan begitxoan aurrean. Eta orain zer, nola daukazu orain barrua, Damian?

Esan ezazu egia. Esan ezazu zer pentsatu ezinik geratu zarela laguna horrela ikusi duzunean. Zentzumenak oro apaldu balitzaizkizu bezala zaudela, itsu, mutu, gor. Pentsamenduak eten egin direla eta zeurekoikeriak bizi zaituela. Senpe zaharrarekin gehiago ezin egoteak penatzen zaituela gehiago, *errealitatean* hari gertatutakoak berak baino. Esan ezazu lotsatu egiten zaituela barneko sentipen ezagun horrek, halako gertaera ankerraren aurrean zeure buruaz baino ez pentsatze bihozgabe horrek. Zer da, ba, zure zorigaitza Senperenari *benetan* gertatu zaionaren aldean? Huskeria baino ez, Damian. Ederki dakizu hori. Baina *egiazki* gertatutako izugarrikeriaren gaintetik, zeure huskeria horrexen axaleko mina da gailentzen zaizuna. Koitadua zeu, trapuan pupua baizik ez duen gaizo hori.

Esazu egia, Damian. Esazu zure izaerak lotsatzen zaituela, Senperena hilik ikusteak bainoago, lagunartean jarraitzeko aukera galdu izanak ematen dizula min. Esazu Senperenaren heriotzak baino gehiago mintzen zaituela ustekabeen kendu dizuten beste kontutxo horrek. Esazu, behingoz, zeure neurri bakarraren arabera neur-

tzen dituzula mundu honetako gauza guztiak. Senperenari gertatua barne.

Geroago, Iruñetik etorritako epaile mehea haraino jaitsi eta hango guztiak agurrak eta diosalak egiten hasi zitzaizkionean, berriro esan behar izan zenuen gezurra. Hirugarrenez goiz berean. Familiako bat, esan zioten epaileari zu aurkeztean, eta zuk baietz buruarekin, familia-koa zinela. Iloba preseski. Hirugarrenez izan arren gezurra, oilarraren kukurrukurik ez zenuen entzun bazterretan. Damian Arruti zenuela izena. Laguntzen zintuela nahigabea, berak. Kaka zaharra nahigabea, pentsatu zenuen zuk. Nork demoniok egin zezakeen horrelako gauza bat? Besterik ez zeneukan buruan. Nork eduki ote zezakeen ezer Senperena zaharra ur haietan era anker hartan itotzeko? Itoarazteko?

Epailea gomazko arrantza-bota luzeak jantzi-ta hurbildu zen gorpuarengana, metro eskaseko sakoneran. Ia erori ere egin zen harri labain batek oinpean huts egin zionean. Eta Senperena zaharraren beso hura bere lekutik kanpora zegoela egiaztatu ostean, ezkerreko aldetik, alkandoratik, tiratu zion apur bat gorantz hilotzari. Ez

zuen asko behar izan gorpuak erabat jiratu eta ur gainean ahozgoratzeko: orekarik batere gabeko pinu enbortzar bat bailitzan, ezkutuko aldea jarri zuen agerian.

Eta orduan bai, orduan marmarra baino, harrabotsa erne zen han bilduta zeudenen artean, denek ikusi ahal izan baitzuten, garbi-garbi, aurpegia janda zeukala hildakoak. Begi bat eta su-durraren zati bat bai behintzat. Eta goiko ezpaina ere bai. Matrailetan eta kokotsean, helduak nabari zitzaizkion Senperenaren aurpegi zimurrari.

- Karramarroen hozkadak, seguru asko -esan zuen epaileak, eta lasaitua aurkitu zuten lekuko guztiek hitz haietan.

Zuk bazenekien heldu haiek ez zirela karramarroarenak, Damian. Kaka zaharra, *benetan* zenekien ez zirela inondik inora karramarroek egindakoak. Hamaikak laurden gutxi.

Etxerako itzuleran, hobeto esan, Arizkunera bidean itzuli zinenean, *Garai Bareak* betiko amaitzen ari zitzaizkizula pentsatu zenuen, eta gogoeta single horrek berriro lotsarazi zintuen: beti bezala, zeure burua beste kontu guztien gai-

netik zenerabilen, Damian. Niri ezin didazu deus ezkutatu, ederki dakizu hori: Senpe zaharraren aurpegi ausikia ikusi berria zinen eta, hala ere, zeure burua baino ez zen zeure *egiazko* kezka nagusi.

Azken hilabeteetan Leon Karrika zure lagun artistaren Arizkungo etxean iragandako egun gozoek finitzearen muturra erakusten zizuten Senperenaren heriotzarekin. Eta tristeziak baino, alferrak harrapatuta zinduzkan bere menpean halako gauzaz konturatzearekin bat. *Abiadura Handiko* bizimodura itzuli beharraren zorigaitzak harrapatuko zintuela pentsatze hutsak nekea eragiten zizun. Akimendua. Beso bat emango zenuke zeuk ere, Arizkungo atsedenean ezagututako lehenagoko *Egun Bareak* sekula buka ez zitezten. Lepoa ere emango zenukeen Leon Karrika lagunak errearen koadroa margotu zuen eguneko *Abiadura Eztira* itzultzeagatik. Zernahi ordainduko zenuke ezagututako atsegina aldi hura sekula zure baitatik desager ez zedin, bukagabeki iraun zezan.

Egun seinalatu hartan Leon Karrikak erreka zuloaren irudia margotu nahi zuen oihalaren gai-

nean, eta zuk, ostera, ez zenuen deus nahi, ez zenuen deus desira. Ezereza helburu, ezta, Damian?

Karrikak erreka zuloa margotu nahi zuen egun hartan behiak soro gainean etzan ziren, nola etzaten diren udako turistak hondarraren gainean. Oroitzen zara, ezta?

Bai, oroitzen zara. Hamaikak eta laurden.

Egun hartan, leihotik goizean larrean bazkan ikusitako behiak etzan egin ziren halako batean, horregatik hausnarra batere eten gabe. Zeuden lekuan bertan etzan ziren, soroaren erdi-erdian, belar gainean, inguruko haritzen edota erreka bazterreko sahatsen babesik bilatu gabe.

Gizakiok ogi edo arroz pilo baten gainean etzatearen modukoa duk hori, pentsatu zenuen behien portaera ikusitakoan. Istant bat geroago jan behar dugun entsalada baten gainean etzatearen antzeko zerbait behar du izan, nolana ere. Eta ez zenekien oso xuxen on ala txar iruditu behar ote zitzaizun jakiaren gainean etzatearen irudi hori. Egia esan, ez zeunden Alfa eta

Omegaren artean erabaki behar izateraino eroria.

Hilabete batzuk lehenago erreparatu ere ez zeniokeen egingo halako gertaera inozo bati: behiak etzanda edo arrabita jotzen, berdin zitzai-zukeen zuri. Baina Arizkungo atsedenera ihesian etorri zinenetik, izadiaren halako gauza ezdeuse-tan pausatzen zenituen begirada eta adimena. *Natura maxime miranda in minimis*, Linneo zaharraren bidetik.

Mandeuliek norantz hartzen zuten itzulerako hegada, arras interesgarria egiten zitzaizun, esaterako. Horrelako eta antzeko gertakari baliogabeei begiratzen zenien. Gabiraiaren hegadari behatzen zenion, xagu eta sator bila zerutik. Edo errekarri, urak lohi edo garbi ote zetozen jakiteko. Halako gauzetan galtzen zenuen denbora. Edo areago, halako gauzetan aurkitu uste zenuen egiazko denboraren tasuna. Azken finean, pentsatzen zenuen, zer duk ba denbora, lo baten eta bestearen arteko etena baino. Sendabidea aurkitu uste zenuen, naturaren gauza eta gertaera horietan guztietan adimena zintzilik jartzen zenuenean. Xinaurri txikienaren konturik ezdeuse-

na izanagatik ere, zeure adimena osorik irensten zuena.

Aldi hartan zure bizimoduak ukandako *Abiadura Handiegitik* garbitzeko era moduko bat zen Arizkungo Otsoenean aurkitutako *bake* hura guztia. Damian Arruti nekatuta eta ahuldurik atera berri zen ebakuntza-gelatik, hil edo biziko dematik. Baina, zalantzarik gabe, akituagoa zeukan ki-rofanoko unea baino lehenagoko bizimoduan ezagututako *Abiada Handiko Bizimoduak*. Ala ez, Damian? Esaguzu egia.

Mendebaldeko bizitzaren ohikoak baino, gertakizun egiazkoagoak bazirela erabakita zenukan. Inork ez zizun iritzi hori burutik kenduko, ez. Horregatik ez zenuen desiratzen izadi-mundu hartako beste izaki txiki eta arrunt bat izatea baizik. Denboraldi baterako bederen. *Nola jokatu* eta *norabidea* erabaki artean bederen. Alferrik bizi izandakoaren zentzugabekeriatik garbitu artean.

Bitxilore, osin, mitxeleta edo kakalardo. Gari, enara edo karramarro. Berdin zitzaizun zer izan edo ez izan. Xedea, zeure burua zomorro eta landare haien guztien artekotzea zenuen. Euren ta-

maina eta neurri berean. Lege berekin. Izadiaren osotasun erabatekoan desagertzera. Zeure deuseza eta izan nahieza erabateko ezerezean urtzera.

Pentsatzen zenuena hitz gutxitan laburtzeko, ihes eginez bakarrik aurki zenezakeela helmuga, nora joana eta babeslekua. Horixe uste zenuen. Eta, txarrenera jota, ganorazko irtenbiderik sekula aurkitzen ez bazenuen ere, izadiaren altzoa ez dela eskasenetakoa mundu honetan egoteko maneren artean, hautatu beharreko aukeren artean, alegia. Ez esan niri ezetzik. Ez esan orduan ez zenuenik orain diodan bezalaxe pentsatzen.

Horixe sinetsi izan duzu Leon Karrikaren etxean bizi izan zaren denboran, zeu ere belardiko beste belar bat bihurtuko zarela edota uretako ur. Fedeak, gainera, tinko iraun dizu Senperena zaharra ahuspez itota ikusi duzun unera arte. Istant horretan, krak, zerbait pitzatzen hasi da zeure barnean, nola putzuetako izotza oinetakoen azpian. Krak eta krak.

Mariputzuko egunera arte, zangoak luzatze aldera, erleen hegadari segika, erlauntza bilatzeari ekingo zenion beharbada. Enbor ustel baten barnean, etxe zahar baten hegi azpian, Otsoe-nea ondoko komentuari hilerri inguruan... Eta bilatutakoa aurkitzen bazenuen, eskua sartuko zenion erlauntzari ez titan barrura, eta ahora eramango ondoren, siropa gozoa txilarrez edo mila lorez egindakoa ote zen erabakitzeko.

Halakoetan, zure lagun Leon Karrika pintoreak ezin izaten zuen sinetsi begiekin ikusten zuena: erleek ez zuten sekula Damian Arruti ziztatzeko. Hurbildu ere ez zitzaizkizun egiten. Bera bai. Bera ziztatzeko zuten ederki zeuk harrotutako erleek, erlauntzetik dozena bat metrora artega eta sansonarria bezain geldirik egon arren.

Egun batean hiruk heldu zioten Karrikari eta sukarrak harrapatuta itzuli behar izan zuten etxera. Oh putainka. Redioska. Madarikazioka. Hiru erleren lekuan zazpi edo zortzi ziztatu izan balute, Iruñeko Ospitaleko zainketa berezietan zegokeen zure laguna, hil edo biziko deman. Zerorrek kendu zenizkion hiruzehentak irri artean. Ondoren, zupaka eginez, pozoia ere arindu

zenion odoletik. Eta hozkailutik ateratako izotz pusketak lotu zenizkion ziztaden gainean.

- Zergatik hiri ez? -galdegin zizun Leon Karrikak-. Zergatik ez ditek hiri erleek heltzen eta niri bai?

Irribarrea eta irriaren arteko zerbait izan zen zure erantzuna.

- Entomologoa haizelako izango duk -jarraitu zuen orduan Karrikak-. Hirekin izutu egiten dituk erleak. Hara hor biziki ontsa ezagutzen gaituen putakume bat, pentsatuko ditek erleek. Alferrik duk horrekin ziztaka jardutea.

Orduan paparreko poltsikotik hosto luzexka bat atera zenuen, zingira bazterretan usu ikusten den horietako bat, Leon Karrikak mila bider zapaldu ohi zuenetako bat, belar arrunt eta ez-deus bat: Erlebelarra. Sudurretara eroanez, usaina hartu zion estreinakoz Karrikak, eta amoniako lurrin gotor batek bota zuen atzeraka.

- Oh putain! -esan zuen-. Alua!, zergatik ez didak orain arte belar honen albisterik eman?

Irribarrea ezpainetatik kendu gabe eta lagunari deus erantzun gabe, gelatik irten eta goeneko basora abiatu zinen. Lau birigarro-habiaren

lekua atzemanda zeneukan eta ikusi egin nahi zenuen, zeure begiekin, lehenengo hegadetara abiatuak ziren birigarrokumeak inoiz baliatzen ote ziren berriro atzean utzitako sorlekuaz. Jakin egin nahi zenuen hori. Jakin egin nahi zenuen hegaztiak inoiz itzultzen ote diren sortu dituen etxera. Halako gauza ezdeus bat ikusteko beranduegi ere izan zitekeen, ordea, uztailaren hastapenekoak ziren eta egun haiek. Ez zenuen birigarrorik itzultzen ikusi. Goizeko lehen argiarekin abiatuko ziren han inguruko sasien artetik, eguzki galdaren bero astunik gabe hegaldatzeko.

Zu, ostera, bai, zu itzuli egin zinen Otsoeneko habiara, alboan Argos zakurra zeneramala, nola artzaina mendian behera.

Hamaikak eta hogeia. Leon Karrika zure logelara sartu zen, pinturen kutxatila eta zapi koloretatu batzuk eskuetan zituela.

- Banoak. Atzoko lekura noak -esan zizun-. Ez diat erreka zulo hori nik nahi bezala pintatzen asmatzen. Atzoko argia bezalakoa zagok gaur ere. Argitasun handia. Halakoa behar diat zulo

hartan, erreka ura kolorez nola pizten den ikusteko. Horixe nahi diat margotu eta oraindik ez diat lortu. Bahator ala ez?

Alferrik zihoala erantzun zenion, laster zela zaparrada ganean. Behiak etzanda zeudela so-roaren erdian eta eguraldi aldaketaren seinalea zela abereen bat-bateko atsedeen mota hori.

- Oh putain!, erotuta hago. Baleta dantzatzea ditek behiek, hala nahi badute.

- Eraman ezak guardasol handi bat badaezpada -gaineratu zenion, baina Leonek jaramonik ez.

Leon zure gelatik irten orduko, leihotik ortziari so geratu zintzaizkion berriz eta, asko jota, ordu erdi baino lehen ganean egongo zela ekaitza, horixe erabaki zenuen. Mendebaleko hodei berunezkoek argi erakusten zuten mezua, seinalea nahi zuenarentzat.

Gero mahaitxoan eseri eta azalean *Mutuaren hitzak* zioen kaierean idazteari ekin zenion, azken aldian ia egunero egiten zenuen antzera.

Horrelako idazte lanik zergatik hartu duzun, oraino ez dakizu argi adierazten. Hobeto esanda, ez diozu zeure buruari *garbi* aitortu nahi idazte-

ko piztu zaizun grina berri horren arrazoirik. Lehen, *Abiadura Handiko Egunetan* eta beti, irakurle soila baino ez zinen. Orain idazle ustekoa ere bai. Kirofanoko ebakuntzatik esnatu zinene-tik, lehen izan zinen irakurle amorratuari idaz-leak irabazia dio lekua. Idazle ustekoak. Esazu egia, Damian, orain arte izan zaren irakurle baino, idazle zenuke nahiago aurrerantzean. Ez esan niri ezetzik, ez engaina zeure burua, nola eroak berea. Hamaikak eta hogeita bi.

«Harrigarria da artistaren dohaina. Leonek errekarri egin nahi dion koadroa bikaina iruditzen zait egiazki. Orain arte ikusi diodanik onena. Ez du zerikusirik duela urte batzuk margotzen zituen beste paisaiekin. Errazagoak, nabarmena-goak ziren pintzelada haiek. Hazi egin da Leon pintore moduan. Jada ez du aski begien aurrean ageri dena garbi margotzearekin. Hori duela lau egun ere bazeukan lortuta, oihalean harrapatuta zeukan erreka zuloa bere ñabardura guztiekin. Hala iruditu zitzaidan behinik behin.

Koadroan primeran ikusten zen erreka nola pitzatzen zuen baso hezeko berdetasun iluna. Argi zerrenda bat zen sasi arteko laiotzean. Zilarrezko ura ageri zen errekaen zati batzuetan, berunezkoagoa besteetan, baina Leonek ezetz eta ezetz, hori ez dela nahikoa, kontua ez dela agerikoa margotzea, bera ez dagoela horretarako. Argazki kamera erabiliko zukeela bestela. Eta bera ez dela, inondik inora, argazkilaria. Ezta izan nahi ere. Ez duela errealitatearen azala ehi-zatu nahi. Margolaria dela bera. Artista. Ikusten ez dena ehizatu nahi omen du pinturan.

Nik ez dakit zer izan daitekeen horrelako gauza bat. Inon ez dagoena, ez dakit non egon daitekeen gordeta. Askotxo da niretzat. Ukitu edo ikus ez daitekeena, ez dezaket inola ere irudika. Ezinezkoa zait.

Leon margotzera irteten den bakoitzean, gustura joaten naiz berarekin, eta begira egoten natzaio ezer esan gabe. Ezer esan ezinik. Orduak eta orduak. Ez naiz sekula aspertzen haren eskuak oihalean sortzen duen irudi berriari segika. Hipnosi modukoa da niretzat. Berak ere ez du deus esaten. Soilik biraoren bat gauzak nahi be-

zala irteten ez zaizkionean, edo bekokiko izerdi tantoren bat begiak erretzera sartzen zaion bakoitzean.

Duela lau egun, erreka inoiz ez bezala margotuta zeukanean, koadroa amaitu zuela uste izan nuenean, ezabatu egin zuen guztia. «Oh, putain! Ez da hau, ez da hau!», esan zuen, egingdako lan guztia zapi batez kakanahasten zuen artean.

Ez nion ezer esan, baina, nire ustez, berak sekula lortutako lanik ederrena ezkutatu zuen horrela jokatu zuenean, eta liburu eder bat edo kanpandorre gotiko bat erretzen deneko zirrara bera nabaritu nuen neure barnean. Zurztasunaren antzeko sentipena nagusitu zitzaidan oihal gaineko errekairen irudi eder hura ezabatzearekin batera.

Orduan ulertu nuen beharrezkoak dituela horrelako tirabirak artistak. Errautsetatik elikatzea dela bere zeregina. Egindako akatsak ezagutzekoan aurkitzen duela bide berria. Eta, batez ere, ausardia eta egia behar dituela lagun, lotsa eta zalantza bazterrean uzteko.

Zer ote da, inon ez dagoena izanik, harrapatu nahian dabilen hori?, galdetu nion neure buruari oihaleko erreka eder hura desagertzen ikusi nuenean. Eta, batez ere, zergatik deitzen dio errekaren koadroari «*Ez dago hemen*»? Nik «*Erreka*» deituko niokeen eta kito. Edo «*Ura*» edo «*Basoko zuloan*» edo antzeko beste zerbait, gehienez ere.

Harrigarriak zaizkit zeharo artistaren berezko bideak. Idazleak gehiago ulertzen ditudala uste dut. Hurbilagokoak zaizkit. Azken batean, hitza dute erreminta. Hitzaren bidez egiten dute bidea. Neuk ere badezaket hori. Baina artista plastikoak! Beti harantzagokoaren bila, konta ezin daitekeena kontatu nahian. Gehiegizkoa zaio nire ulermenari.

Horrexek harritzen nau gehien artistengan: zein liluratuta bizi diren inon ez dagoenarekin. Usmatzen dutenarekin. Agian horixe da aldea Leonen eta nire artean. Bera bezalako artistaren eta ni bezalako gizonaren artean. Nik dagoenari behatzen diodala hurbiletik, eta hark inon ez dagoenari urrutitik.

Ez dakit segur, baina halako zerbait behar du izan bion arteko lubaki hau betetzen duen aldearen materialak».

EZ zaitez hain sakon-itxurak egiten hasi zure kaier horretan, Damian. Esan ezazu behingoz, ez dakizula fisik artearen iturburuez. Ez dakizula ezer artearen zeregin eta betekizunez. Erantzun bestela: zertarako balio du arteak?

Karrikak esana dizu ez dela edertasuna berak bilatzen duena. Hori lortua zuen aspaldi. Zer da, beraz, artea? Zein du bere egitekoa? Esazu zerbait zure kaier horretan, ausartzen baldin bazara bederen. Ala, gehitxo da zuretzat?

Ordu bata eta hamar. Orduantxe hasi zuen euria goian-behean. Zeuk uste izandakoa baino apur bat geroago. Zaldiak eta behorrak arbola-peatan gorderik, behiak belar gainean etzanik, soilik ardiek jarraitzen zuten bazkan, ezer gertatuko ez balitz bezala. Ardiak, beldurrak bakarrik mugiarazten dituen abere zakilak, pentsatu zenuen. Berehala egiaztatu ahal izan zenuen hori: tximista hurbileko batek trumoi ikaragarria eka-

rri zuenean, goiko muino baten atzean saltaka ezkutatu zen artaldea, noraezoko ihesean eroturik. Auzoko zakurrak espantuzko zaunkan, zaldiak ere urdurituta zeuden arbolapean ekaitzaren oldar eta burrundararekin. Behiak, aitzitik, ez. Haientzat bazirudien erreka ufaldu behar zuen zaparrada egundokoak ez zeukala inolako garrantzirik.

Urruneko oihu bat entzun zenuen nonbaite-tik, euri hotsetan itoa. Leihotik behatu eta Bizkarrrekobordan ageri zen Leon aterpeturik. Soroaren goeneko bordan. Koadroa besarkaturik bezala zeukan beso artean. Gorputza baino handiagoa zen laukiak, ihes egin nahi zion geometria zirudien urrutitik. Keinuka ari zen Karrika eta, oker ulertu ez bazenion, guardasola hartu eta bere bila joateko agintzen zizun. Zaparradaren erdian.

Halaxe egin zenuen, atarian zintzilik zeuden bi gabardina, aterki handi bat eta Argos zakurra hartu eta soroan gora abiatu zinen, lagunari laguntzera. Belardi gaineko pauso bakoitzean ikusi zenuen lurrak ez zuela bat-bateko urik xurgatu nahi. Ezin zuela zupatu gainera zetorkion ur

gehiegizkoa. Uztaileko beroak lehorregi zeukala lurra edaten hasteko. Trinkoegi. Gogorregi. Harriegi. Hala segitzekotan, aurki zela uholdea bazterretan. Horixe pentsatu zenuen bordara bidean. Bustialdi ederra jasotzen ari zinela ere bai. Eta nahi bazenuen eta ez, halaxe amaituko zenuela, zeharo bustita. Kaka zaharra, Damian, mela-mela eginda.

Bordara iritsi ahala, Leon pozez oihuka ari zitzazula ikusten zenuen, baina ezin zenizkion esaten zituenak entzun. Hainbestekoa zaparrada eta trumoi hotsa. Zeu ere bordako aterpean sartu zinenean soilik ulertu zenion irribarre zabal batekin esaten zizuna:

- Bazaukaat. Oh putain!, finitu diat koadroa, Damian. Finitu diat.

Gero bi gabardinak erabili zituen Leonek koadroa behar bezala bildu eta babesteko. Guardasolaren azpian zindoazten bi gizonezko soroan behera, Argos zure zakur handia alboan eta erre-karen koadroa gabardina artean bildurik. Forma ezohiko bat osatzen zenuten urrutira, gamelu harrigarri baten antzirudiaz. Izaki anitza izan

arren, bakarraren legez mugitzen zena zelai berdean behera. Edo antzeko zerbait.

Soroan etzanda zeuden behiak jaiki egin ziren, osatzen zenuten munstro hura eurenganantz zetorrela ikusitakoan. Ezin izan zioten antzik eman hurbiltzen ari zitzaien forma harrigarri hari. Eta, badaezpada, eurak ere handik urrunduta hobeto zeudela erabaki eta alde egin zuten zaldiak eta behorrak zeuden lekurantz, soroa mugatzen zuen arbolapera. Ekaitzak lortu ezindakoa eragin zenuten zeuok, edo, hobeto esan, bi gizonak, txakurrak eta koadroak osatzen zenuten piztia itxurakoak. Ordu biak hogeit gutxi.

Egunak supituki ilundu izanaren kariaz, sotoko argiak piztu behar izan zenituzten Otsoenean, koadroa behar bezala ikusteko. Lehortu gabe zegoen oraindik margoa. Gabardinetan utzitako orban pinturazkoetan nabari zitekeen hori.

Inguruan zeuden bestelako margolan guztiak kenduta, zurezko asto baten gainean ezarri zuen Leon Karrikak errekarri eginiko koadroa. Ala, Damian, arteari buruzko gogoeta sakonetan zabil-

tzan honetan, *errekari eginiko* ordez, *errekarekin eginiko* idatzi beharko ote nuke?

Leonek hutsik ikusi nahi zuen koadroa, biluts, ikusmena ostu zezakeen bestelako ezertxorik gabe inguruan. Gero han bertan eseri zen lagun margolaria, lurrean, eta fitsik esan gabe egon zen denbora luzean, egin berri zuen lanari begira.

Zeuk ere isilik behatu zenion artelanari. Erreka zen han ikusten zena, lehengo eguneko erreka zulo berbera. Baina kolorezko pintzelkada haien artean bazegoen zuk adierazten ez zenekien beste zerbait ere. Ederra zen zinez margoa. Karrikak egindako onena, zalantzarik batere gabe. Eta zuk, supituan, koadro hura zeuretzat nahi zenuela erabaki zenuen. Sekula artelan bat erosi gabea izan arren, koadro huraxe lortzeko irrika bortitza sumatu zenuen. Artelan haren *jabe* izateko gogo gotorra. Zergatik esaten ez bazenekien ere.

Agian bildumak egiteko zure zaletasun zaharra ernetzen ariko zitzaizun berriro. Sendatze bidean ibiliko zen zure antzinako alde hori. Lehen izandako gizonarengana itzultzen hasita egongo

zinen, Otsoenean atsedendu eta gero. Agi denez, bildumagilearena ez baita hartu eta utzi egin daitekeen ezaugarria. Ederki dakizu hori. Bildumagilea, bildumagile da beti, bildumak hartzen duen forma hartzen duelarik ere. Ura beti ur den moduan, izan izotz, izan likido edo izan lurrun. Ura beti ur.

Leon Karrikak adierazi zizunez, bat-bateko zaparradaren ilunak eguraldi argitsua estali zue-neko argi zehatzaz eginda zegoen koadroa. Batetik besterako aldaketaren instant juxtu hartan, erreka inguruko belarrak, hostoak, adarrak eta sasiak, nortasun itzelaz zitzaizkion agertuak. Ingerada guztiak zehatz.

- Argiaren ahalmena eta magia duk hori -esan zizun Karrikak oraindik ere barnean ekarri-tako kitzikadura gainetik kendu ezinik.

Bistakoa zen: lehengo egunean margotzen eta ezabatzen ikusi zenion osotasun abstraktua-ren lekuan, banakako guztiak zizkion argiak jarri aukeran oraingoan. Errekastoaren ura ere ez zen lehenagoko egunetan margotu zuena bezalakoa. Bazuen beste zerbait pintura soil izateari utzi eta oihalezko laukitik salto egitera behartzen zuena.

Baina, nola esan, zeharo errealista ere ez zen lan hura. Gehiago zeukan iradokizunetik, beste ezer-tatik baino.

- Lehen bezala deitzen al da orain ere? -galdegin zenion gauzak apur bat gehiago ulertu nahian.

- Bai. *Ez dago hemen* deitzen da orain ere.

Isilik geratu zinen une luze batez, borborka zetorkizun galdera mihian gorpuztu zitzaizun arte.

- Eta zer da, ba, koadroan ez dagoena? -galdetu zenion, jakinik ez zegoela inon horretarako arraposturik.

- Heuk asmatu beharko duk -esan zizun, lurretik jaiki eta bere gelara abiatu aitzin.

Bakarrik geratu zinen orduan, koadroaren aurrean. Harixe beha jarraitu zenuen minutu bazuetan. Bakardadean. Bertan ez zegoen zerbait aurkitu nahi zenuen oihalaren azalera. Eta poztu egin zinen *Abiadura Eztiak* halako gauzei erreparatzeko ematen zizun aukera apartarekin. Ezinezkoa zitzaizukeen hori *Abiadura Handiko Egunen* garaietan.

Bai, margotu gabekoa ikusi nahi zenuen zeuk ere koadro hartan. Artistaren begirada eta senti-pena zeureganatu, kosta ahala kosta. Baina ez zenion antzik ematen. Inondik ere. «Heuk asma-tu beharko duk» esaldia bazitekeela itxurakeria hutsa izatea, erabaki zenuen orduan. Artistaren ohiko ihesbideetako bat.

Halako batean, ordean, koadroan harrapatuta zegoen paisaia ilunak, lehentxeago izandako beste paisaia argitsuagoaren berri eman zizun. Istant bat lehenago desagertutako paisaiaren albiste eman zizun Leonek harrapatutako argi hark. Une hartan zenarena baino, izandakoaren zantzua zerion artelanari.

Ez zenekien segur hori ote zenetz artelanak ezkututzen zuen balioa, bi argi, bi leku eta bi denbora aldi berean harrapatzearen kontu hori, baina zerbaiten susmoa egiten zenuen. Zuk ere ulertu nahi zenuen arteak baduela begiradaz haragoko pisua. Bazela gauzak ikusteko beste manera bat esaten zizun senak. Bazela ordura arte zuk zeure baitan sekula erabili gabeko neurri ezkutuko bat. Gauzak ikusteko *era egiazkoago* eta *sakonago bat*.

Ez zenuen jarraitu nahi izan. Beldurtu egin zinen. Alfertuegi zeunden zeure begiei berriz ikusten irakasten aritzeko.

Sumatzen zenuen hori guztia zozokeria ere izan zitekeela pentsatu zenuen ondoren, burukorapilo antzu bat baino ez. Ez zeniola horretaz hitzik esango Leoni, badaezpada. Agian artistak ez zuen erabili horrelako xede alferrikakorik bere buruan. Koadro hartan egon behar zuenik ez bazegoen, zuk ezin ikusiko zenuela inola eta inoiz. Zernahi izanik ere. Mila bider begiratuta ere. Artea misterio bat izan dela beti zuretzat. Eta halaxe jarraitzea duela hobe.

Sototik gelarako bidea hartu aitzinetik, ordea, beste begirada azkar bat egin zenion koadroari. Eta bai, bistakoa zen pintura hark indar berezia zeukala. Erakusten zuenak baino gehiago agintzen zuela oihal hartan ezkutukoa zen beste zerbaitek.

Eta desirapen bortitza gailendu zitzaizun ostera, sukar itzel baten antzera: kosta ahala kosta, margo hura zeuretzako nahi zenuen.

Ordu biak eta laurden.

BIGA

Eta orain zer? Non ezkutatu zaizu atsedena? Zer egingo duzu orain?

Kaka zaharra esan eta tximeletei begiratzen segitu, agian. Enaren hegadetan galduta begiak. Nahi bai, horixe nahiko zenuke zuk, ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraitu ahal izatea. *Abiadura Eztiaren Denbora* ahal bezainbeste luzaraztea. Gertatu egin da, ordea. Eten egin da zorionaren abiada. Senperena da errekan itota agertu dena. Ito egin dizute laguna. Eta gauzak ez dira jada lehenagokoen ezpal berekoak. Ezin dute izan. Inola ere.

Lau hilabete egin dituzu horrela, *Natura maxime miranda in minimis*, lau hilabete zentzuak oro ezerezaren menpe jarrita. Erleekin jolasean. Zu bezalako gizon handia esaldi bakarraren marasma-sarean harrapaturik: izadiaren handitasuna gauza txikiei begira aurkitzen da.

Baina, ziur al zaude? Segur al dakizu Senperenaren pitzatutik soilik itzuli zaizula *Abiadura Handia*? Esan ezazu egia, Damian. Esan ezazu

ohartzen hasia zinela lehenagotik ere. Egun batzuetatik aitzinera, zerbait *egiazki aldatzen* hasia zela zeure baitan. Gauzak ez zirela gehiago aurreko lau hilabeteetan bezalakoak izaten. Horixe. Kaka zaharra! Bai, esan ezazu lasai.

Esan ezazu, eguneroko bizimoduan aurkitzen zenituen gertaera txiki eta handiek, iragana es-tali eta ahantzarazi ordez, berri egiten zizutela bizi beharraren pisua. Biziberritu. Edozein gertaera xumek iraganeko beste jazoera baten aldarria egiten zizula, Leonek errekarri margotutako koadroak bildumazaletasuna piztu dizun antzera.

Ahaztuak zenituen hilabete batzuk lehenago gertatutako guztiak. Edo, hobeto esan, sekula gertatu izan ez balira bezala bizi zenituen Arizkun-en ezagututako egunerokoaren ez-titan. Azken lau hilabeteetan.

Ahazturaren gotorlekua, ordea, pitzatzen hasia zaizu egunotan, uda beteko eguzkipean. Ospitalean bizi izandakoak, esaterako. Denak ahaztuak zenituen. Edo *ahaztuak bazenitu bezala* bizi zenituen, ederki jakinagatik memoriak puta zahar bat izaten dakiela sarritan, beti ez

bada. «Zu ere nirekin egon zinen maiteminduta. Lotsatu arren, ez ukatu orain halakorik», esaten dizu memoriak. «Hara, nire haragi zimur hauek maite izan zenituen orduko hartan. Ederki ordaindu zenidan, gainera». Puta zaharra, memoria, Damian.

Ahaztuta zenezkan denak. Hala uste zenuen bederen. Zeure kolkorako lau hilabeteko lausoak ezer ez duela egiazki eta betiko estaltzen jakin bazenekien arren. Handik edo hemendik, egin-dako bizitzak erakutsi egiten dituela hortzak, oihartzunak bere besoetan ekarritako nahigabe ikaragarri baten antzera. Ebakuntza-gela osteko egunean munstroak bereak erakutsi zizkizun bezala. Bai. Lau hilabete t'erdi lehenago baizik ez. Donostiako Poliklinikako gela batean.

Anestesiatic esnatzen hasi zinenean, mamua ez zegoen han. Joana zen jada, edo, hobeto esanda, kendua zizuten hain zeurea izandako lekutik: eztarriaren erditik. Baina orduan ez zenezkien hori segur-segur hala zenetz. Ezin zenez-

keen jakin horrelako gauzarik oraindik. Hilda daudenek ez baitute ezer jakiten ahal, Damian.

Irudipena zeneukan, eztarritik kendu berri zizuten minbiziaren alea zakarrontzira bota zuela Aldaba doktoreak. Arrabio, korrokoi, amesgaizto edo dena delako mamu beldurgarri hura hantxe zegoela gordeta, zakarrontzian. Aldaba doktoreak, kotoi arteko odoletan bildurik, haraxe bota zuela zeure haragien artetik erauzi ondoren. Oliba hezur bat bailitzan. Klak.

Eta han, zakarrontziko gordeleku merke hartan, zangoak eta belarriak hazten zitzaizkiola etengabe izaki erauziari. Zeure erroetatik ateratako zati gaizto hari. Bost belarri, hamazazpi zango, ez, hemeretzi. Eta lau begi.

Istant bat lehenagora arte zeure baitakoa izandako munstro mikroskopikoa handitzen eta handitzen zihoala ospitaleko zakarrontziko odol eta haragizko hondakinez elikatu ahala. Horixe begitantzen zitzaizun. Eta lehendabizi karramarro baten tamaina hartu bazuen ere, katu handi baten neurrikoa ari zela egiten poliki-poliki. Inork zerbait azkar egiten ez bazuen, hazten eta hazten segituko zuela zakarrontzian kukututa, zakur

baten tamaina lehenbizi eta krokodilo batena gero, hartu arte. Guztiz urduritzen zinen konturatzean zeu bakarrik zinela Ospitale osoan zakarrontzian gertatzen ari zen metamorfosi itzelaz ohartzeko zena.

Aldi berean bazenekien nekeza eta gaitza izaten dela anestesiatik esnatzea. Oso nekeza. Loaldi erabatekotik munduratzea. Aurrez zenekien hori. Ohartzeko zinen burua betetzen zizuten amesgaiztoak ez zirela *egiazki* zeure baitakoak. Bazitekeela zakarrontziko kartzinoma ezkatadunaren itxura-aldatze etengabeko hura, ebakuntzarako sartua zizuten kimika guztiaren ondorio izatea. Bazenekien hori ere. Eta zer? Gauzak ez ziren horregatik batere aldatzen, kontua ez baita *zer den egia* eta *zer gezurra*. Badakizu horrenbeste.

Argi eta garbi esaten zizun buruak ez kezkatzeko ameskeria haiengatik, etorri bezala pasatuko zirela munstro kontu haiek guztiak. Une batetik bestera garbituko zitzaizula zainetako odola, eta hasiko zinela gauzak *benetako neurrian* ikusten. Baina pentsamendu bikoitz eta paraleloak egiten zizkizun adimenak aldi berean.

Biak ala biak indar berdinez. Biak *egia oso* balira bezala. Munstroarenak eta esnatzearenak.

Zakarrontziko gertaera anesthesiaren eraginez zela ohartzen zinen, baina, hala ere, esnatzean uholdeka zetorkizun zentzumena bezain egiazkoa egiten zitzaizun gezurrezko izugarrikeria hura. Eta anesthesiatik esnatu nahian ohean zeuntzala jabetzen zinen bezalaxe, konturatzen zinen zakarrontziko munstroaren pentsamenduak ere hurbiletik ezagut zenitzakeela. Batere ahaleginik egin gabe. Zuzen-zuzen eta zuon bion arteko interferentziarik gabe, haren seinalea argi iristen zitzaizun burmuinera. Zeureak balira bezala sentitzen zenituela zakarrontzian hazi eta hazi zebilen mamorroaren pentsamenduak oro. Besamotzak besoa bezala, ez alferrik ukan zenituela zomorro hura lapa baten antzera josirik zeure ahots-kordetako batean. Auskalo noiztik. Auskalo zenbat hilabete edo urtetan. Azken finean, zeure gorputzeko zati bat kendua baitzizuten Aldaba doktoreak eta bere taldeak. Txikia eta gaiztoa, baina zeure-zeurea. Ezker edo eskuin begia bezain zeurea.

Eta pentsamendu haietan, zakarrontziko zomorroak obsesio bakarra erakusten zizun. Beste ezer egiteko asmorik eta erabakirik ez baleuka bezala, esaten zizun sorlekura itzuli nahi zuela. Zomorroak etxera nahi zuen. Bai. «Etxera itzuli nahi dut, neure aberrira», esaten zizun deiadar-ka zomorroak. «Zeure eztarriaren erdi-erdira».

Espantua urdailetik eztarrira igo zitzaizunean, zerbait esateko ahaleginak eman zizun benetako egoeraren neurria. Han, zeure eztarriko zuloan, aitzurak eta palak erabiliak zituzten kartzinoma ale zikina kentzeko. Hondeamakina eta kamioi itzelak. Zulo bat hemen, zanga bat han, hodi berri bat ezkerretik eta zementu apur bat eskumarago. Minaren itzela. Hitz egiten saiatzeak eman zizun eztenkada, minbizia bera baino okerragoa zela begitandu zitzaizun une hartan, eta berdin-berdin zitzaizukeela, deliberatu zenuen, anesthesiak eragindako loalditik sekula itzartu izan ez bazina ere. Egia esan behar bada, damu zinen esnatzeaz, Damian. Azken finean, ebakuntza gelako mahaian geratu izan bazina, ez zenukeela orain halako minik gehiago sentituko eta, areago, ez zenukeela hurrengo

batean ere berriz hiltzen ibili beharko. Ezen, zure antzera, behin hil eta gero, ez baitago gauza okerragorik ordura arteko heriotza alferrikakoa izan dela egiaztatzea baino.

Gogoeta horietan zenbiltzala, esku baten fereka antzeman zenuen bekokian. Ez zenuen begirik zabaldu behar izan azal mehe haren hotza ezagutzeko. Ama zen, zer moduzka seme, ohearen albo batetik.

«Txiza», erantzun nahi izan zenion, txiza egiteko larritasuna zeneukala, baina eztarri urratuak eragotzi egin zizun baita min lantururik txikiena egitea ere. Mutu zeunden. Erabat mutu. Harrien antzera.

Aita ere gelan zen, eta hark lagundu zizun besotik helduta komuneraino. Tatarrazka eraman zenuen, gurpiltxo mugikor batzuen gainean, zintzilik zegoen serumaren poltsa gardena. Hodi luze eta orratz luzeegi biren bitartez zeure zainetaraino zuzen sartzen zena.

Eztarriko minari beste min bat gehitu zion txizaren irteerak. Erre egiten zuen, uretra gasolina edo alkohola egiten ari bailitzan komunean behera. Anestesia izango zen seguru. Eta ur zikin

harekin batera, zakarrontziko mamu beldurgarriaren ameskeria ere zuloan behera zihoala jabetu zinen. Bazuen garaia.

- Argos ondo zainduta zagok -esan zizun aitak-. Egon hadi lasai. Katalinak esan digunez, euren etxeko katetik libratu bezain azkar hire etxera alde egiten omen dik, Zorionara. Hantxe aurkitzen omen ditek noiznahi atariko bazter batean etzanda, hire zain bezala. Zakur hori baldarra eta alferrikakoa izango duk, Damian, baina ez zagok ukatzerik: ugazaba maite dik benetan.

Gurasoek bihar beste zerbait ekartzea nahi ote zenuen galdegin zizutenean, keinuka adierazi zenien ez zenuela berriro Poliklinikara etor zitezten nahi. Lehen ere agindu zenuela gaixoaldian bakarrik nahiago zenuela. Ospitaletik irtendakotan, hamabost egunen buruan edo, egongo zinetela elkarrekin. Ez ibiltzeko etortzen, mesedez. Ondo zainduta egongo zinela.

- Nahi duana esan ezak, baina bihar ere hementxe ikusiko gaituk -erantzun zizuten, haien musu bana jaso baino lehen.

Ez zinen uste adina amorratu haien erantzunarekin. Zure eskaria bete nahi ez izateak baino

gehiago harritu zintuen aita zeuregana makurtu eta musu ematen ikusteak. Oso oker ez bazinen, Jaunartze egunean izango zen azkeneko aldiz halako gauza bat. Hamazazpigarren mendearen hastapenean. Edo.

«Poliklinikako ohean etzanda, nire eztaeritik hamabi zaldi galopa betean pasatu direla ematen du. Arnaste hutsak erre egiten dizkit eztaeriko bazterrak. Ahotik sartzean izotzak bezala erretzen du aireak eta, irteterakoan, suak bezala.

Tira, ez dut kexu agertu nahi lehenengo lerro hauetan. Ez hago hilda Damian, esan beharko nuke pozarren, beste ezer baino lehen. Ez duk gutxi. Bizirik hago. Baina ulertzekoa ere baduk hire samina, mutu hago eta. Zeharo mutu.

Ebakuntza ondo joan dela esan dit Aldaba doktoreak. «Oso-osorik atera dugu kartzinoma alea», esan dit, «ez du bestelako arrastorik laga bere inguruan. Metastasirik ez da ageri bazterretan». Gaitzerdi. «la ahots-korda bat moztu behar izan dizugu», bota dit, «baina azkenean zatitxo

bat baino ez dizugu kendu». Gaitzerdi hori ere. Ez duela uste gerora ahotsean aldakuntzarik nabarituko zaidanik. Errehabilitazioa egin beharko dudala logopeda baten laguntzarekin. Ikusi egin behar, hala ere, egunen buruan nola itzuliko zaidan ahotsa, ahotsetatik zein itzuliko zaidan, alegia. Nirea, lehen neukan huraxe bera, edo beste norbaiten ahotsa irtengo zaidan ahotik, irtengo zaidan deseztarri honetatik. Hori ere gerta bailiteke, neure ahotsaz hitz egin beharrean, beste norbaitenaz hitz egin behar izatea aurrerantzean. Urratuagoa, zakarragoa, motelagoa. Marlon Brandok *Aitajauna* filmean bezala.

Esnatzea izan da gogorrena. Ez nuen uste anesthesiak halako amets biziak eragin zitzakeenik. Munstro bat ikusi dut zaborretan, neuri kendutako zatitik hasita gorpuzten. Badakit ezinezkoa dela, baina benetan gertatu balitz bezala bizi izan dut. Izugarria izan da. Ez ahazteko modukoa.

Anestesiatik erabat libratu gabe oraindik, horixe jarri diot izena koaderno honi azalean: *Mutuaren hitzak*. Gurasoek gelatik alde egin duten bezain azkar «Eman iezadazue kaier zuri bat»,

eskatu diet erizainei keinu bitartez, «eta idazteko beste zerbait ere bai». Berehala ekarri didate eskatutakoa. Bakea eman dezadan. Ez ditzadan gehiago ernega. Kaier koadrikulaz bete bat eta errotuladore fin beltz bat ekarri dizkidate. Eta *Mutuaren hitzak* jarri diot azalean. Neronek ere ez baitakit segur zer egin nahi dudan lerro hauen bitartez. Ziurrenera, aurre egin nahiko diot erietxeko egoera makur honetan agintzen duen denbora geldoari.

Ohean datzan haragi urratua baizik ez naiz oraintxe bertan, ebakuntza gelatik itzuli berri-tan. Gorpua eta gorputzaren erdibideko izaki bat. Nahi izanda ere, hitz egiteko ezindua erabat. Ez hago hilda, Damian, mutu hago, esan beharko nuke. Besterik ez. Eta kontsolamendua ekarri beharko lidake oraindik ere biriketari arnasa darabildala ikusteak, odola zainetan taupaka dabilkidala nabaritzeak. Baina, egia esan, zer pentsatu ez dakit. Alde batera poztu egiten naiz, baina beste aldera neke izugarri batek harrapatzen nau edozergatik. Baita gogoeta hauetan ibiltzeak berak ere.

Ebakuntza-gelan betiko lo geratu izan baintz, ez neukake akidura ere sentitu beharrik. Ez neukake bizitzen jarraitzeko ahalegin txiki-naren lanik ere. Ez neukake ezta hilda egotearen beraren albisterik ere. Ez neukake loaren atse- dena baizik.

Ondamua eragiten dit ezerez horren zorio- nak, eta ez dut ongi ulertzen bizirik jarraitze- ari lotuta egote derrigorrezko hau. Zer gertatzen da, bada, haria behingoz eteten bada?

Lizarrak tximista bezala, erakarri egiten nau pentsamendu gaitz horrek.

Gauzak erabaki artean, lehen esandakoa izango da kaier honen izena: *Mutuaren hitzak*».

Lotan eman zuen Damianek bigarren eguna ia osorik. Goizean gurasoek gelan bakarrik laga zu- tenetik, komunera joateko eta koaderno koadri- kuladunean zerbait idazteko ahalegina baizik ez zuen egin. Hori zen onena. Horrelaxe uste zuen berak, horrelaxe uste zenuen orduan zinen ho- rrek, Damian. Ospitaleko denborari lapurtu egin behar izaten zaiola agintaritza, eta horretarako

ez dagoela ezer hoberik loa eta erdi-loa baino. Presoak ihes egiten saiatu beharra duen eran, gaixoak bizkar eman behar diola denboraren geldotasunari. Ala gezurra diot, Damian?

Ohean zetzanak ez zuen telebistarik konektatu nahi. Ez zuen amak ekarritako transistore pilaunik piztu nahi. Ez zuen leihotik begiratu nahi. Antzeman zion ederki handik ikus zitekeen ikuspegiari: bere gelakoarena bezalako beste ehun edo mila leiho, denak barla edo patio berera begira, edo hiriaren periferia hartako pinudi sastar batera, gehienez ere. Eta haietako gela bakoitzaren barruan, bere saminaren antzekoak. Edo handiagoak. Ez begiratuta, hobe.

Mantapean zuen babes. Ez zuen ezer besterik nahi. Eskatzekotan, soilik nahiko zukeen, eskuko azalean sartuta zeuzkan orratz luzeak -luzeegiak- eta tantoka bertatik sartzen zitzaion likidoa ken ziezazkiotela zeuden lekutik. Horixe nahiko zukeen, ezer nahi izateko gaitasuna edukitzekotan.

Alabaina Damianek bazekien ederki zer zen *egiazki* eta *benetan* nahi zuena. Ezta, Damian? Bazenekien gauza bat eta bakarra zenezakeela

desira. Gainerako guztiak adabaki eta denbora galtze soil zirela. Gauza *bat eta bakar horrek* soilik konpon zitzakeela bestelako gurari guztiak edota, hobeto esanda, gurariak oro alferrikako bilakatzen zituela hura lortzeak. *Deus ez izatearen lilura*, ezta, Damian?

Erizainek ezinezkoa zela esan zioten, ordea. Egun batzuetan orratzen bide hortixe jasoko zuela behar zuen sendagai eta elikagaia. Deshidratatu egingo litzatekeela bestela. Urgabetu. Horrela izaten dela hori eta ez izateko kexu. Pozik egoteko moduan zegoela. Minbiziak ez duela eta aztarnarik utzi. Garbi-garbi atera diotela eztarriko zuloatik eta, gainera, ahots-korda moztu gabe. Hori ez dela askotan ikusten kartzinoma ezkataduna kentzeko egiten diren ebakuntzetan. Ia beti ahots-kordaren bat galdu egiten dela bidean. Sendatzeko. Indartzeko lehenbailehen. Eta egun batzuen buruan zainduz gero, ez duela Gaiarrek bezala abesteko aitzakiarik izango.

Ez zizun graziarik egin erizainen txurtxur berritsuak, Damian. Zenbat aldiz eta Poliklinikako zenbat gelatan esandakoak ote ziren hitz haien

berdinak? Iluntzearekin batera, errezelak ixteko eta pertsianak jaisteko eskatu zenien keinuka eta, ahal bazuten, sartu-irtenean ez ibiltzeko gehiago. Lo egin nahi zenuela eta.

Harritu egin zinen. Harritu egiten zinen hitzik batere erabili gabe, keinuka, zenbat gauza adieraz zitezkeen pentsatzen jarritakoan. Agian merezi du mutu jarraitzeak, pentsatu zenuen gero, eta irri arin batek -anestesiatic esnatuz geroztik egin zenuen lehenengoak- edertu egin zizkizun aurpegiko zurbila eta bekozkoa. Halako egoera hitsean edertu bezalako hitzik erabiltzea zilegi bada, behintzat.

Gezurra zirudien arren, lo egin zenuen gauean ere. Lo geratu zinen. Egun osoa erdi-lotan igaro ostean, logura nagusitu zitzaizun berriro. Harrapatu egin zintuen azpian, zentzumen oro menpe hartzen dituen harlauza baten antzera. Zerbait jarriko zizuten plastikozko poltsa gardenean. Zup eta zup. Droga. Tantoka-mantoka. Erizain berritsuek. Auskalo zer. Nolotil eta auskalo beste zer ere bai. Koktel bat. Bakea eman zenezan. Hobe horrela. Oso hurbil zegoen egoera

hori zuk amesten zenuen *gauza bat eta bakarretik*, Damian. Ezta?

Bai, lo geratu zinen eta esan liteke bezperan zakarrontzian zegoen zomorroaren lekua, zigarro puru habano baten irudiak bete zizula. Ederki konturatu zinen horretaz erdi-loan. Hurritz kolore ederreko *La Paz* handietako batek. Badakizu txokor hobek badirela munduan, baina horixe zenuen gusturen erretzen, eta horrexen irudiaz lokartu zinen, *La Paz Wilde La Habana* baten irudiaz, konpontzeko zeneuzkan gainerako korapilo guztiei bistaratzeko batere aukerarik eman gabe.

«Gaur goizean Bozateko gizon zahar bat ekarri dute nire gelan hutsik zegoen beste ohera. Anton Apezetxea du izena. Ez daki erdaraz. Zahar-zaharra da, ez naiz ausartzen zein adin daukan zehatz esatera, baina laurogeitik gora bai, behintzat. Birika eta bronkioetako zerbaitekin ekarri dute, itotzeko zorian. Hodiz josita dago behetik gora koitadua, berak ere ia hitzik egin ezin duela, baina poza erakutsi dit begietan eus-

kalduna naizela esan diotenean. Lasaitu bezala egin da, ezen ikusten baitzitzaion gizonari bel-durtuta bezala geratzen zela familiakoek baka-rrik utzi dutenean.

Neuri ere esan didate senideek alde egin baino lehen, birritan Iruñera medikuarengana izan ezik, ez dela sekula irten gizona Bozatetik. Beti etxean, inor ikusi gabe egonzalea dela. Oso apartean bizi direla eurak, mendian, eta laguntza handia izan naitekeela ni, ondoko ohean, aitonak ez duela eta hitzik egiten gaztelaniaz. Eri-zainek zerbait jakin nahi badute, ea egingo die-dan mesede, aitonak esan beharreko guztiak itzultzekoa. Eta grazia egin dit kargu berriak: mutua itzultzaile.

Hala bada, bi gizonezko egokitu gara gelan bakarrik eta mutu, elkarri ezer esan ezinik eta gauza guztiak batak bestearen begietan ikusten ditugula.

Arbola makur eta zahar baten oso antzekoa da Anton Apezetxea. Ohean itota hilko dela aurrez jakin arren, begietan behiak eta soro berdeak baizik ageri ez dituen gizon zaharra. Gaz-taina ilunaren kolorekoak ditu begiak, garbi-gar-

biak, handi-handiak. Aurpegiko azala eta kera ere halakoxeak ditu, mendikoarenak: zain urdin txikiz beteta ditu matrailak, burua soil, belarri-gingilak luze, eta sudur kakodun bat du bi begien arteko gidari.

Behiak ikusi ditut haren begietan. Eta esnea. Eta soroak. Eta txepetxak sasi artean nola babesten diren. Honaino, nire oheraino, iristen den bere gorputzaren iratze usain mikatza zabaldu da halako batean».

Ederki geratu zitzaizkizun txepetxak eta iratze usainak zure kaiereko lerroen artean. Poxpoliñak oso. Nori ikasi diozu horrela idazten, Damian? Ez esan zeure barnetik erne diren hitzak direnik horiek, ez dizut eta sinetsiko. Ez esan niri iturri hori zure baitan *benetan* bizi denik. Zu ez zara poeta, ederki dakizu hori.

Txepetxek eta iratzeek, Whitmanen poema batetik ihes egindako hitzak dirudite, edo Artzeren besteren batetik, baina neuk bezala dakizu zerorrek, ahantziak dituzula irakurketa haiek, ezabatuak erabat. Nondik orduan? Ez ote da

izango irakurritako oro geratzen dela, kaparra bailitzan, memorian itsatsirik? Ahazturak beti duela hondarren bat ahazten irakurlearen baitan?

Esazu zergatik hunkitu zaituen hainbeste Anton Apezetxearen etorrerak. Idatz ezazu lasai zure koadernotxo horretan, zenbat dituzun desiratzen iraganeko denboren oihartzunak. Jar ezazu mutua hizketan, ez daukazu eta beste zeregirik.

Esazu zeure izaera bazterreko horrek ez duela lekurik gaurgero. Munduaren erak ez zaizkizula laket. Eta ezinezkoa dela dakizun arren, Apezetxeari egokitu zaion bizitza zenukeela nahiago zeuretzat, daukazu hau baino. Aitor ezazu zenbateraino zaituen liluratzen izadiaren eta gizakiaren arteko beste garai bateko harreman estuak. Munduaren neurriak oinez ibiltzeak markatzen zituen aroak dituzula amets. Esan ezazu zeuretzat nahi zenituzkeela hizkuntza bakarraz bizi zitezkeen garai zaharrak. Mundua *Ludi* zenekoa nahi zenukeela zuretzat.

Ala ez, Damian? Koldarkeriak ez ote zaitu eramaten halako garai agirretar baten desiran ezkutatzeraz?

Begira iezaiozu zeure barne jangartzu horri. Profita itzazu erizainek ekarritako orri koadriku-laz beteak *egiazko egiara* iristeko. Azaletik harantzago, Damian, hel iezaiozu muinari behingogatik. Zer daukazu galtzeko, zeure bakardadea eta noraeza izan ezean?

Gaizki diot, hala ere, koldarkeria diodanean. Baliteke beste zerbait izatea aztoratzen zaituen hori, ezta? Baliteke akimendu hutsa izatea, *Abiadura Handiko Egunetako* neke soilak baizik ez egitea lo zure hezurretako habian. Baliteke, egokitu zaizun garaia bizitzeko, sekulako gogo-ezaren antzeko zerbait izatea gurarien zuztarretan bizi zaizun hori. Ala guztiz oker nabil, Damian?

«Gaixorik dagoenak, preso dagoenak bezalaxe, ihes egiteko balio duen leiho bat behar du derrigorrez, ohean etzanda zoratuko ez bada. Koaderno txiki hau eta bertako lerroak dira niretzako moduko leiho. Edo leihorde. Gela honetan

ez dago armiarmarik dilindan, eguneko zein ordu den jakiteko. Alabaina, preso eta gaixoa biak berdintzen ditu gauza berak, denbora zein geldo pasatzen den sentitzeak. Denbora, lehendabizi hondar eta gero harri, nola bihurtzen den begien aurrean ikusteak. Horixe dute berdin-berdina gaixoaren eta presoaren pesadunberak. Erosioaren atzekoz aurrerako bidea da, nolabait, denboraren iragaitea. Pilaketa eta gauzatzearen pisua ekartzen daki, ezer ez zegoen tokira. Gauza astun bilakatzen du ezereza. Denborak.

Ustekabean zorte ona izan dut, ordea. Entrenigarri handia ekarri didate Antonen begi argiek. Alboko aitonaren begi horietan Bozateko leku eguterak ikusten baititut.

Oraintxe bertan, esaterako, eguzkitan lehortzen jarritako belarra biltzen dihardute dozena erdi bat lagunek begi horietan. Auzolanean ari dira. Ez dakit nortzuk diren laborari horiek guztiak, baina gehienak senitartekoak eta auzoak direla esango nuke. Goizean bisitan etorri zaizkionei ez diet gehiegi erreparatu gelan zeudenean, baina baliteke hemen egondakoetako bat izatea oraintxe, sega lurrean lagata, izerdia zapi

urdin batez xukatzen ari den emakume lodi hori.
Ez dakit.

Metak egiten dihardute leku malkartsuan, eta lau mika zuri-beltz inguratzen zaizkie eskuarea erabiltzen duten bakoitzean, ea zizare edo bareren bat harrotzen duten ikustera. Bi arratoi-zakur zaunkarik jasotzen dituzte hegan. Dzi eta dza.

Eskertzekoa da horrelako gizon garbiaren adiskidantza doakoa. Keinu bitartez galdetu diot lehentxeago ea gelako telebista piztea nahi ote duen, eta, eskuekin airean agur egiten ari balitz bezala, neuk nahi dudana egiteko adierazi dit ohetik Antonek, berak ez duela halakoen beharrik eta. Berdin diola. Buru barruan daukala berak aski telebista, behi gehiegi, jende gehiegi, txakur zaunkari gehiegi, lau mika eta, gainera, goiko lepoan lanean ari diren horiek guztiek belar lehorra bildu eta metatzeko martxa azkartzen ez badute, aurki baino lehen alferrik galduko dituela belar idor guztiak mendebaletik gainera datorkien zaparradak. Ez direla ohartu haizea aldatzen ari dela eta Hegoaren lekua Mendebalak hartuko duela une batetik bestera. Erreka al-

deko lizarretan, ederki baino hobeto ikus litekeen la eguraldi aldaketaren seinalea.

Hori guztia esan dit, esku keinu pare batekin eta begiekin Apezetxea aitonak. Gero itxi egin ditu begiak, nekatuta, eta ezin izan dut beste ezer ikusi».

Damianek bigarrena bezala iragan zuen ospitaleko hirugarren eguna ere: erdi-lotan. Indartzen ari zela sumatu eta ura litroka ekartzeko eskatu zien erizainei goizean goizetik. Anestesia-
ren hondar guztiak lehenbailehen bota nahi zituen gorputzetik, iruditzen baitzitzaion gogo eta adimena, biak, kamuts zituela. Horregatik egiten zituela gogoeta ilun eta ezkorrak, eta ez bizimodua berez zelako horren goibela.

Komunera joan-etorrian ibili zen eta, aitak lagundu nahi izan bazion ere, ezetz, konponduko zela bera bakarrik eta uzteko bakean. Serumaren poltsa eusteko oin metalezkoa tatarrazka zeramala, ematen zuen autobuseko barrari helduta zihoala danbalaka.

Amak, bezperan ekarritako gutunak eta aldizkariak ukitu gabe ikusitakoan, ea zein irakurgai ekartzea nahi zuen galdegin zion. Ezetz egin zion Damianek eskuarekin, ez zuela ezer nahi. Lo egitea baino ez zuela helburu eta joateko lasai etxera, behingoz. Bakarrik zuela nahiago gurasoak gela barnean denbora galtzen ikusita baino. Ea nola esan behar diren gauzak, behingoagatik jaramon egin diezaioten.

Gurasoek alde egin bezain azkar, atearen zirikitu batetik sartu zitzaizkizun bezperan askatu nahi izan ez zenituen korapilo guztiak, Damian. *Abiadura Handiko Egunetako* kontuak ziren, ustekabean muturra bistatzen zutenak. Puta, memoria, Damian. Benetako puta zaharra.

Ebakuntza baino lehenagoko egunetan, ederra saltsa eragin zenuena Polloeko gorputegian zatituta erakutsi zizuten emakumearen gorpua zela eta. Ederra morokila, Damian.

Nork esan behar zizun hango emakume hura ez zela Jaione, zeure emazte izandakoa? Nork esan behar zizun, munduan bi pertsona egon zitezkeela hain antzekoak? Hori ez da normala.

Edonor nahastuko zen zeu nahastu zinen bezalaxe. Lasai horregatik, Damian.

Ezer konpontzen hasteko beranduegi ere bazen. Jose Ramon Izpizua, zure lagunik onena izandakoa, eta Aranbarri, Bankutxako presidentea, biak ala biak egongo ziren preso eurek egin gabeko hilketa baten kariaz. Zeu ospitaleko gelan bezain preso. Jaione hil izanaren akusaziopean. Eta auskalo nor gehiago ere bai. Auskalo nor besterik zipriztinduko zuen, erbia bailitzan, zeuk harrotutako aferak. Zeuk aireratutako kaka zaharrak. Gipuzkoako gizon entzutetsuenetatik hamasei bai, gutxienez, atxiloturik. Probintziako abokatu, diputatu eta katu handienetakoak.

Eta dena zeure erruz. Damian jakintsuaren erruz. Nork agindu zizun Fakultatea utzi eta Erztaintzarekin lanean hasteko? Nork agindu zizun muturrak inon sartzen ibiltzeko? Zertan zara zu besteak baino gehiago?

«Nire emazte ohia da horko hori: Jaione Urdanpilleta», horixe esan zenion Urrutikoetxea komisarioari gorpu zatitua ikusi zenuenean. Eta hark sinetsi. Beste guztiek bezala. Nola ez zuten, bada, sinetsiko halako gauza bat, zu bezalako

gizon jakintsuaren ahotik etorrira? Eurentzat aholku-lanetan dabilen zientzia-gizona izanda?

Jakintsua, kaka zaharra jakintsua. Horixe, pentsatu zenuen, Damian. Eta utzi egin zenion burua jiratzeari, izan ere, Midas erregearen bestelako zerbait zinen, ezer izatekotan. Ukitutako guztia urre bihurtu ordez, kaka bihurtzen duten horietakoa. Kaka zahar-zaharra.

«Aldaba doktorea etorri da berriro ni ikustera. Eskertzekoa da arreta. Keinu bitartez erantzun diot, min handia dudala ahoan eta eztarri osoan. «Normala da», erantzun dit. «Kontuan hartu behar duzu, aparailu metalezko batez ahoa guztiz irekita eduki genizula ebakuntza garaian, eta hor ibili garela eztarrian behera eta gora lanean. Ez larritu, bizpahiru egunetan pasatuko zaizu gogorrena». Eta bitartean, Nolotil dosi handiagoak jarriko dizkidatela, gozo-gozo egon nadin.

Aldaba eta erizainak joan diren unean, Elurrezko Dama guztiz zuri bat ikusi dut Antonen begietatik desagertzen, egin duen erdi-lotik esnatu denean. Ikusi eta ez ikusi izan da. Agerpen

Ilabur bat baino ez. Esan beharrik ez daukat nor zen emakume eder itxurako hori.

Apezetxearen begietako argitasuna aldatu egin da une horretatik aurrera, eta jada ez da gaur bertakoa haren ninietan agintzen duen argia. Laiotzari egin dio lekua belardiko eguterrak. Ilunago ikusten da dena eta, bai, Antonen sudur kakoak eta belarri-gingilek erakutsi didate, begietako eszena berrian, sasoiko ageri den gizon lerden hori ere Anton bera dela, berrogeita hamar urte inguru atzera eginda.

Beste gizonezko batzuekin batera doa pagadi batean gora. Mendiko arropaz jantzita daude denak eta eskopeta daroate, batzuek eskuetan prest, eta beste zenbaitek bizkarrean zintzilik. Guztietan gazteenak egiten du buru. Gizona baino, mutila da oraindik. Garatxo beltz izugarri bat dauka sudurraren ezker aldean. Aurpegiaren erdian. Sagarraren neurriko masusta ikaragarri eta beltz handia dirudiena. «Segi! Segi!», agintzen die ozen taldeko gizonei, «hemen nonbait behar du eta!».

Oraldearen atzetik doaz, txakurren atzetik. Ehizan dabiltzala esan liteke, basurderen baten

ondoren edo. Alabaina, beste zerbait ere izan liteke, ezen gizonen aurpegietan ehizaren poza baino haragoko gose anker bat ageri baita. Batez ere, aipatu berri dudan gazteenarengan, aurpegia masusta handiak iluntzen dion mutilarengan. Gero, begi kliska bat egin du Apezetxeak, gizonetako batek lekaio moduko bat egin duen une berean, eta ez dut gehiago ikusterik izan. Etendako intziri horrek bukatu du ikuskizuna, eszena bortizki moztu eta azkarregi etorritako the end baten antzera.

Garoaren usaina sutautsarenak ordezkatu duela, hori bai, hori erraz nabaritu dut, eta Apezetxearen oraingo begiak eta bere begietan agertzen den beste Apezetxea gazteagoaren begiak berdinak ez direla ere bai. Hori argi eta garbi ikusi dut».

HIGA

Zer duzu nahiago, zeuk ala neuk kontatzea? Gogo gabeturik zaude zure koadernotxo horretarako? Neu hasiko naiz, beraz.

Badira pertsonak, urrutira ikusita ere, seinale nabaria dutenak. Horrelakoei berehala hartzen zaie traza. Urrutikoetxea komisarioa da horien arteko bat, Damian. Ederki dakizu zeuk ere hori. Neuk bezainbeste. Kilometro erdira Ertzaintzako komisarioaren antza edukitzen du gizon honek: beti ikusiko duzu traje sastar dotore-nahi batez jantzirik, edota, euri egunetan, kapusaidun gabardina austriar batekin. Aurpegian, gorpuzkeran eta pausoa egiteko eran, aldarria darama. Polizia izatearen aldarri guztiz garbia. Umeeek ere jakiten dute berehala polizia dela beheko bidean gora datorren gizona, eta alde egiten dute haren paretik. Ikusi gabetan izan arren, jende guztiak daki gerri aldean nabarmentzen zaion koskorra pistola dela, eta noizbait batere gabe joaten bada, berdin-berdin izaten da: mundu guztiak ikusten dio pistolaren konkorra gerrian, gorputza

eta arropa hain baitauzka poliziaren berezko neurrietara eginak.

Poliklinikako harrera gelan eta pasilloetan zehar ere bai, mundu guztiak agurtu du, «Arratsalde on komisarioa», esanez. Ohituta dago jada. Urrutikoetxea ez da honezkero harritzen horrelako gauzekin. Egia esan behar bada, poz ñimiño bat ere nabaritzen du, doilortasun moduko bat, jendeak polizia gisa hain argiki ezagutzen duenean. Bokazioaren bideari jarraitu izanak harrotzen du halakoetan.

Memoria daukanetik, polizia izan nahi baitzuen berak. Ume-umetatik. Arazo handiak ekarri zizkion horrek, nola etxean, hala eskolan eta lagunen artean ere. Bere garaian ezinezkoa zen Usurbilgo seme jator bat polizia izatea. Baina Ertzaintzaren aukera ekarri zion historiak parera, zorionez. Ederki jakin zuen ikusten tren hura harrapatu beharrekoa zela. Kosta ahala kosta. Esan eta egin, hirugarren atera zuen Ertzaintzaren bigarren promozioan, berrehun eta hirurogeita zazpi pertsonaren artean. Ez dago gaizki. Harrezkero zoriona baizik ez du kausitu bere bidean, non katramilaren bat egongo, hantxe bera

agertuko. Batez ere Gipuzkoako partean. Eta nolako emaitzekin, gainera.

Eduki zituen aukerak Bizkaia aldean eta Bitorian ere, baina berak Gipuzkoa du maiteen. Lurralde horixe ezagutzen du goitik behera, badaki jendea nolakoa den, badaki ihesbideak non izaten diren. Ibili izan da urrutiko beste lankide batzuei laguntzen ere, baina aukeran ez du zalantzarik: Gipuzkoan, eta batez ere Donostialdean, ez da ezer gertatuko berak ezagutu gabekorik.

Hala ere, badu arantza bat leku mingarrian iltzatuta. Arantza berri-berri bat. Oxford Klubeko kasua ez dago oraindik erabat itxirik eta ez daki egoki nondik eta nola tira behar duen haritik. Ez daki zer egin. Nola jokatu. Jakinaren gainean zegoen ezin zitezkeela zela-hala giltzapetu Gipuzkoako jauntxo handienak, baina oilarrak kukurruku gutxi berari. Zuzen ibili denak ez dauka zertan kezkatu, izan jauntxo edo izan zerbitzari. Bost axola horrek berari. Urrutikoetxearen beldurrik ez du behar zuzen dabilenak. Okerra egin duenak, oster, hobe du haren pausotik apartaturik.

Horregatik etorri da gaur Poliklinikara. Bulegoko lanak biharko utzi eta eguna amaitu baino lehen, Damian Arruti entomologoarengana etorri da. Gezurra dirudi gizon horrek zenbat dakien euliei buruz. Eta zomorroeiei buruz jeneralean. Ez da sinestekoa gorpu ustelak noizkoak diren asmatzeko daukan trebezia. Harrigarria da. Miresgarria, esango luke. Bai, sakon-sakonean, Arruti miretsi egiten du Urrutikoetxea komisarioak.

Harrotu egiten da, gainera. Harrotu egiten da Arruti unibertsitateak atera izanaz. Berea izan zen horretarako asmoa, Ertzaintzaren aholkulari gisa kontratatzekoa. Berari otu zitzaion hori. Ez beste inori. Berea du meritua. Urteak badira handik hona, baina gaurko kontua balitz bezala gogoratzen du ordukoa. Arruti Zoologia irakasle zen garai haietan Unibertsitatean, UPVn, noski. Urrutikoetxeak konpondu ezinezko kontu bat zeukan esku artean orduan. Derrigorrez jakin behar zuen noizkoa zen Pasaiako portuan txatarra artean agertutako gorpu bat. Horrelako gauzak ezagutzea derrigorrezkoa izaten du Poliziak. Alibiak edo koartadak egiaztatzeko orduan, batez ere. Ordea, ezin zuten asmatu inola. Antzik

ere ez. Ezin zuten asmatu Irungo tabernari hura zein egunetatik zegoen txatarra artean usteltzera botata. Bi, hiru edo lau hilabete ote zeramatzan burdinaz inguraturik, ez zegoen jakiterik. Forentseek ez zekiten xuxen burdinen uherrak geldotu edo bizkortu egiten zuten gorpuaren usteltzea.

Bide guztiek eraman zuten Damian Arrutirengana estreinakoz. Orduan egin zuten elkarren ezagutza, eta esaterik ez dago handik hona harreman horrek eman izan duen fruitua. Ikustekoa da Arrutik zenbat dakien, ikustekoa nola aztertzen dituen gorpuetako geruzak, barnekiak, muin, birika eta hezurak, eta, batez ere, bertan bizi diren biztanleak. Euli, eltxo, akaro eta gaine-rakoak. Forentseak urrun uzten ditu, den-denak atzean. Lekutan.

Gorpuaren barruan zein eltxo, zein euli edo zomorro bizi den begiratzen du lehenbizi Damian Arrutik, eta horren arabera ateratzen ditu gero kontuak. Zoragarria da horrelako gizon bat hurbil edukitzeko aukera. Eta hain apala, gainera. Soldata ordaindu eta kito, Arrutik ez du nahi izaten besterik. Hari ez aipatu ospe eta ohore kon-

turik. Hari ez diozu aterako egunkarietan argazkirik.

Bai, Urrutikoetxeak badaki bere gauzatxoak ere badituela Arrutik. Ez baita oso normala euliz inguratuta bizitzea nor bere etxean. Are gutxiago, Arruti bezala, Hondarribiko Golfaren erdian, Gipuzkoa osoko paraje zoragarrienetako batean. Garestienetako bai behintzat. Eta halako etxe ederrean gainera. Zoriona deitzen dela uste du Urrutikoetxeak. Bai, Zoriona deitzen da Arrutik Hondarribiko Golfean daukan etxea. Izena ere egokia jarri zion. Ikaragarria da gizona. Gutxi bezain argia. Urrutikoetxeak ezagutzen duen jakintsuenetakoa, jakintsuena ez bada behintzat.

Baina zer nahi duzu, bada, zientzialariak, artistak bezala, beti izan behar du Hego-haize moduko bat buruan sartuta. Koska bat. Bestela ez da zientzialari eta ez da ezer. Eulien bilduma egitea gogoko badu, egin dezala. Euli nazkagarriz inguratuta bizi nahi badu, hori bere hautua da. Hori bere kontura doa. Etxean gordeta daukana, Europako bildumarik onenetakoa dela esaten da, gainera. Urrutikoetxea ez da horrelako gauza batean sartuko. Ez horixe. Beragatik balitz, arkaku-

soak edo elefanteak bilduko balitu, berdin-berdin zitzaiokeen. Bere eskakizunak betetzen dituen artean, hor konpon.

Eta zer nahi duzu, bada? Arruti bezalako gizonak oso zentzugabeak izaten dira bizimoduaren gainerako kontu arrunt guztietan. Burua beti txindurriz beteta edukitzen duten horietakoak. Horregatik hartuko zuen emazte hura, Jaione Ur-danpilleta, gerora puta eta geroagora gorpu zaitu bihurturik, Polloeko hozkailu batean dagoena, oraindik ere. Izotzaren tenperaturari gordeta. Ez esku eta ez bururik, zortzi zatitako puzzle zail baten antzera. Zer nahi duzu, bada? Horrelakoa izaten da bizitza askotan: putza.

Zomorro kontuez hainbeste dakienak ez dauka astirik bizitzako gauza arruntei arretaz begiratzeko. Lagunak ere halakoxeak ditu horrek, bere emazte ohiarekin larrutan egiten zutenak. Jose Ramon Izpizua arkitektoa. Damian Arrutiren lagunik onena. Bada hori aukera xelebrea. Lagunik onena, norberaren emazte izandakoaren izorrrante. Horretan ere ez da sartuko Urrutikoetxea komisarioa. Ez horixe. Hori euren arteko arazoa da, Arruti eta Izpizuaren artekoa.

Kontua beste bat da. Bai, beste bat. Libre utzi behar izan ditu Izpizua eta atxilotuta zeuzkan beste gizonkote guztiak. Oxford Kasuko guztiak, prefosta. Fiskalak halaxe aholkatu dio, denak libre uzteko, eta Sailburuak ere ez dio gehiegi lagundu txoriak kaiolan harrapatuta edukitzeko orduan.

- Kontuz gero, Urruti, kontuz non sartzen zaren eta, batez ere, nola irteten zaren sartutako lekutik, Oxford Klubeko horiek guztiak ez dira eta hain juxtu ijito kastakoak. Presioak dauzkat.

Presioak dauzkala? Zakurraren putza. Zertarako dago, bada, Sailburua? Putaseme galantak, horixe dira horiek guztiak. Dirua belarrietatik polpolka eta, hala ere, sarea muntatu behar Donostiako emakumerik finenekin jolasean ibiltzeko. Puta normalekin konformatu ezin. Gutxitxo iruditzen halakoak.

Horrelako txoriei kaiolako atea zabaltzen ibili beharra ere bada atarramentua Urruti bezalako polizia batentzat. Bere bizitza osoko aukera onena zapuzten uzteko modua, muturren aurrean. Gailurra litzateke Oxford Klubeko afera Urrutikoetxearen karreran. Politikarekin zerikus-

rik ez duen kasu zibila. Halako gizon handiak atxilotuta. Halako putakumeak. Hori zozoenak ere badaki. Hau ez da, ordea, zozo kontua, hau birigarro kontua da eta birigarroen artean, Oxford Klubeko koadrilakoak birigarroenak.

Horregatik etorri da, bai, Poliklinika honetara. Gorpu zatituaren inguruko argi apur bat gehiago nondik atera dezakeen Arrutiri galdetzera. Alabaina, zur eta lur geratu da gelako atetik barrura, hilzorian dagoen agure baten ondoko ohean aurkitu duenean entomologoa.

Jota aurkitu du Arruti. Hamar urte zaharrago aurkitu du. Ez ezagutzeko moduan aurkitu du. Zurbil eta aurpegi osoa handituta. Baztanga izugarri batek jota balego bezala. Baina, batez ere, mutu aurkitu du, harriak bezain mutu, entomologoa.

«Urrutikoetxea komisarioa etorri zitzaidan atzo arratsaldean bisitan. Bazuen tenore! Ez dago esaterik hura gelako ate honetatik sartzen ikusitakoan zer sentitu nuen. Hura hizketan eta

ni isil-isilik, halaxe egon ginen, etorritako ate beretik alde egin zuen arte.

«Izpizua eta Aranbarri aske utzi behar izan ditut», horixe esan zidan. «Ahal nuen denbora guztian eduki ditut polizia-etxean atxiloturik. Fiskalak argi esan dit, orde, hildako emakumearen burua eta eskuak agertzen ez diren artean, ez dagoela emakume hura Jaione Urdanpilleta dela ziurtatzerik. ADN frogak ere ez ligukeela behar beste lagunduko. Lokatzezko oinarri irristakor horrekin, edozein epailek botako duela auzia atzera. Ez dagoela ezer egiterik».

Baietz, esan zidan Urrutikoetxeak, egindako adierazpen eta testigantzetatik, frogatzeko modukoa zela Oxford Klubean gizon haiek Jaionerekin egon izana, baina Polloeko emakume zatitua nor zen ziurtatu artean, alfer-alferrik genbiltzala gizon haiek auzipetzeko ahaleginetan.

Nahigabeen zorion, zenbat zor diodan hitz egin ezin honi! Eztarriko min itzel honi! Ez dago esaterik zein mesedegarri gertatu zitzaidan mututasuna. Ez bainion deus erantzun Urrutikoetxeari. Ez nion esan Jaione bizirik dagoela eta etxera etorri zitzaidanik bisitan. Orain Parisen

bizi denik ere ez. Ez dela berea Polloeko gorpua. Gorpu zatikatua beste norbaitena dela. Ez nion esan fisik. Zertarako esango nion ezer?

Han joan zen Urrutikoetxea, Lupe Latasaren aldetik goraintziak ekartzen zizkidala esanez, eta sendatzeko azkar, eztarriko nire gaitzetik. Berriz ere nire beharra izango zela eta.

Aitor dut barne dardara eragin zidala Luperen izena entzuteak. Haren izenarekin batera, aurpegia lehenik eta gorputza gero, egin baitziren present. Behelaino itsuaren artetik gorosti arbola agertzen den antzera. Baina berehala pasatu zitzaidan hori ere. Neure baitakoa ez den ezeri lekurik ez uzten ari bainaiz trebatzen, ohe honetan etzanda. Guztiz sendatu artean, aski dut denbora geldoegi honi aurre egitearekin. Luzea da lehia, astuna aupada.

Denboralean ez du zirkinik egin eta Antonengana hurbilduko naiz, Dama Zuriarekin joan den edo oraindik hemen ote dagoen ikustera. Nire ondoko ohean».

Hau ere neuk kontatzea hobe, ezta Damian? Lupe Latasak ez du aparkalekuan autoa lagatze-ko lekurik aurkitu eta eskuineko bi gurpilez lora-tegiko belarra zapaltzen duela utzi du. Badaki gaizki eginda dagoela hori. Berak bezala egiten dutenez dagoela beteta mundua eta horregatik dela ezinezkoa Poliklinika inguruko lorategi eta belarguneak txukun gordetzea. Han eta hemen, parterreetan ikusten dira gidari alferren arrastokak. Lokatza lehorraren koloreak irabazi egiten dio irregulartasunez belarraren berdeari, geometria oro eginez ezinezko. Badaki hori guzti hori. Begiak baditu hainbeste ikusteko. Eta gehiagorako ere bai. Baina ez dago txantxetarako. Lore-zaintzaz gogoeta egiteko ez da etorri Poliklinika-raino.

Damian Arruti bisitatzera etorri da, asko pentsatu eta gero. Atzo Urrutikoetxea komisarioa etorri zen eria ikustera, eta gaur, bera. Beldurrez dator, hala ere, komisarioarenak entzun eta gero bai baitaki ez dela Damian izango ospitaleko gelan aurkituko duena. Beste gizon bat aurkitu omen du Urrutikoetxeak, zaharragoa, ahulagoa, mutua.

Astebete bada, Damian erietxera etorri bezperan, amaitua zuela harremana gizon honekin. Ospitaleko ebakuntzara laguntzen uzteko eskatu zion Lupek azken irtenbide bezala, ihesi zihoa-kion gizona eusteko balioko ziolakoan. Eta ezetz erantzun zion Damianek. Beste hitz batzuk erabilita esateko, albotik alde egiteko agindu zion Luperi. Edo, beno, zuzenki hala esan ez bazion ere, horrelaxe jakinarazi zion. Edo hala ulertu zion Lupek behinik behin. Ez dago segurua, baina. Ezabatuta bezala dauka gertatutakoaren zehaztapena edo, behintzat, lanbro artean galdurik bezala oroitzen du eszena. Ez du xuxen gogoratzen une hura. Hitz zehatzak ez ditu gorde memorian. Ezin izan ditu gorde. Nola esan zion ez zuela berarekin jarraitu nahi? Agian ez zion zehazki hori esan nahi izan Damianek, baina berak halaxe ulertu zion: alde egiteko bere ondotik. Orain ez daki segur.

Eta hala esan bazion ere, agian ez zion halako gauza bat benetan halaxe pentsatzen zuelako esango. Gizon batzuek zailtasunak dituzte euren egiazko sentimenduak hitzen bitartez adierazteko orduan. Damianek agian ez zuen

nahi egiazki Lupe bere bizitzatik betiko irten zedin. Agian minbizia zeukalako esango zion hori. Berari, Luperi, etorkizunean min handiagorik ez eragiteko. Beharbada horrexegatik uxatuko zuen gizonak bere albotik emakumea. Jende askok ez du txakurrik nahi izaten alboan, hamar urteren buruan hil eta tristura ekartzen dakitelako. Baina berari ez dio horrek ardura. Hobe, jakina, Damian ez balitz ehun urtean hilko, baina bizitza halakoxea izaten da batzuetan eta datorren bezala hartzen jakin behar da. Onean eta txarrean. Minbiziarekin eta minbizirik gabe, Damianen alboan nahi luke. Prest legoke, beraz, Damianengana itzultzeko. Berarekin Zorionan bizitzen jartzeko, Hondarribiko Golfean. Damiani geratzen zaion bizitzaren zatia harekin egiteko. Baina ez daki. Amets handiegia egitea ez ote den ez daki. Seguru asko bai, baina saiatu gabe ez dago jakiterik.

Minbiziarenagatik eta bien arteko adinaren aldeagatik ere bai. Damianek arrazoi horiengatik esango zizkion esan zizkionak, gizona ez baitzen sekula eroso ibili urteen kontu horrekin. Hala ere exajeratu egiten du Damianek, hamabi urteko

aldea ez da hainbestekoa. Luperi ez zaio hainbeste iruditzen, bederen. Eta zer axola dio horrek, tartean maitasuna, edo behintzat, erakarmena baldin badago? Gizonezkoa benetan erakargarri zaion bitartean, Luperi bost axola dio adinak. Hori gutxienekoa da. Egia esan, bera baino gizon helduagoak gustatu izan zaizkio betidanik, neskato zenetik. Ez du heldu gabeko gizonen zozokeria eramaten sekula ikasi. Damianek jakin beharko luke hori. Jakin beharko luke, adinak atzera eragin izan balio, ez zatekeela egongo bizi izan dutena bezalako erakarmenik. Eta Damianek badaki Lupe erakartzen duela. Erakargarria dela Luperentzat, hitz potoloago bat ez esateagatik. Maitasuna hitza potoloa baita, zinez. Errazegi erabili behar ez den horietakoa. Horretan bat dator Damianekin, «Maite zaitut» sekula esan ez dion gizonarekin. Nahiago du, gainera, halako gauza bat gordean darabilen gizona -esan ezinik geratzen dena-, kontrakoan dabilen kaskarina baino. Berba bat eta bestearen artean maite zaitutka ibiltzen diren txilipristo horietakoak baino askoz ere nahiago ditu,

esaldi hori libratu ezinezko harria bailitzan bizi duten gizonezkoak.

Ikusteko eta begiratzeko orduan, gizon gazteak izaten dira hobeak. Horrelako gauza ageriko bat ez du berak ukatuko. Haien gorputz lerdan eta azal oraino urratu gabea bezalakorik ez dago. Bular eta ipurtalde estu-estuak. Baina norberaren alboan edukitzeko, ez dago alderik. Ez esan kontrakorik berari. Luperi.

Ohean ongi funtzionatu izan dute gainera Damianek eta berak. Orain ongi ulertzen du «kimi-ka ona egon da» esaldia. Zentzu zehatzenean ulertzen du. Lehenengo egunetik. Egia esan, bera, Lupe, ez da oso aditua larruaren gauza horietan, baina Damianekin bezala ez du inorekin egin. Askeagoa ikusi du bere burua Damianekin. Egon zitezkeela ere ez zekien lekuetaraino iritsi zen harekin. Bat, bi eta hiru aldiz. Zitekeenik ere ez zekien. Hori horrela da, eta gauzak diren bezala esan behar dira. Ala ez? Zertarako disimulan ibili.

Lupe Latasak erietxeko atariaren leiarretan islatuta ikusi du bere burua. Apur bat tiratu dio jertseari, lehenbizi sorbaldetatik eta gero azpiko

aldetik. Poltsa marroi koxkor bat eskutik galtzarbera pasatu du. Asko kosta zaio nola jantzita etorri behar zuen erabakitzea. Azkenean erabaki du, egokiena sinpleki jantzita etortzea dela. Zalantza dagoenean, horixe izaten da beti onena, sinple-sinple janztea. Horregatik hautatu ditu jeans ilunak eta marfilaren koloreko kotoizko jertse zuri bat, lepoa itzulita duten horietakoa. Sinpleki janzten denean, pertsonak garbiagoa ematen du. Batez ere ilea motots batean biltzen badu. Hori ere horrela da. Bere buruari eman dion baimen bakarra, zurruma apur bat duten zapatak janztea izan da. Poltsaren gaztaina kolore berekoak, noski, zapatak.

Harrera gunean, Damian Arrutiren gela zein den galdegin du eta hirurehun eta hogeita bigarrena dela esan diote. Grazia egin dio. Grazia egin dio hotelak eta erietxeak era berean antolatuta egoteak. Hirugarren solairuko hogeita bigarren gela esan nahi du horrek. Igogailua bilatu du gero begiradarekin. Ez dabil jende asko ordu hauetan eta hutsik etorri zaio bila igogailua. Hirugarrenari sakatu dio. Igogailuko ispiluari beha, zupatu egin ditu ezpainak distira apur bat emate

aldera, eta oharkabeen urduri dagoela ikusi du ispiluko islak itzuli dizkion begietan. Bai, oso urduri dago.

Akaso ertzaina naizelako ere bai, pentsatu du ondoren. Ulertzekoa da halako gauza bat herri honetan. Agian ez du ertzain baten bikote izan nahi. Hori ere baliteke. Baina apur bat geroxeago, pentsamendu are ezkorrago batek harrapatu du: agian aspertu egiten dut. Eta gainera, nor da Vèronique? Nor da emakume hori? Damianen etxeko bidea ederki ezagutzen du hark. Lagun zahar bat zela esan zidan Damianek. Horixe bakarrik. Baina ez zitzaidan begitandu hain zaharra ere.

Zer erantzungo zidan, bada? Zer esango zidan munduko maitalerik handienak izandakoak baziren ere? Agerikoa zen Damian eta emakume hura aspaldiko lagunak edo zerbait gehiago ere izandakoak zirela. Hori ikusteko beste baziren Luperen begiak. Eta gehiagorako ere bai. Emakumeei kontu batzuk ezin baitzaizkie ezkututzen ahal. Gizon batek emakumezko bat lagun duenean, goiz edo berant, txinparta da beti.

Igogailutik irtenda, korridorean 22. gela bilatu, atera iritsi eta arnasa hartu du. Sakon. Belarria jarri du atean. Ez da ezer entzuten. Hatz-koskorak prestatu ditu atean jotzeko. Jo ala ez jo egon da istant batez, zalantzan, eta azkenean ez da ausartu. Ez du atea jotzeko adorerik aurkitu. Bere bizitzatik kanporatzeko esaten badio gizonak, emakumeak ez du zertan umiltzen ibili beharrik. Mina, damua eta lotsa soilik jaso ditzake ordainetan hala dabilen emezkoak. Baina saiatu gabe ere ez dago ezer. Ausardia behar da hala-koetan. Orain ala sekula ere ez. Hatz-koskorak prestatu ditu berriro atea jotzeko eta atetik bi zentimetrora hurbildu ditu. Baina ez, ez du aurkitu adorerik. Korridorean atzera egin du ibilitako bidean eta, igogailuaren zain egon gabe, eskaileretan behera hartu du tarrapatari. Zapaten zurrumak dira mailadiko harrizko lauzaren kontra.

Lupe Latasak pentsatu du, inork ez diela erreparatuko bere begi gorrituei. Azken finean, malakoak eta begi gorrituak ohikoak izaten direla ospitaleetan.

Lupe Latasak autoa Poliklinikako lorategitik atera duenean, erizain bat sartu da gelan, eta inola ere espero ez zenuena iragarri dizu: «Véronique andereñoak deitu dizu, Arruti jauna; arratsaldean etorriko zaizula bisitan».

«Janaria xehe-xehe eginda ekartzen didate. Ezin dut ezer solidorik irentsi oraindik. Jan beharra daukadala esaten didate erizainek, baina zer egingo diot nik, nire ahoa haragi urratua baizik ez bada? Nahiago nuke ganoraz jan eta zainetatik erretiratuko balidate elikatzen nauen ur gardenegi hau. Esku gaineko azalean sartuta ditud bi orratz eta hortik bideratzen dute seruma odolera zuzen. Minberatuta dauzkat azala eta zainak. Iruditzen zait orratzak kentzen dizkidatenean, aldartea ere aldatuko zaidala. Onera, jakina. Hala ere, egun batzuetan halaxe jarraitu beharko dudala esan didate, ganoraz jaten hasten naizen bitartean behinik behin.

Oraintxe bertan Apezetxea zaharrak begiak ireki ditu berriro, eta ez, ez da basurde bat pagadian ezkututzen dena. Gizonezko gazte eta bel-

tzaran bat da, ijitoa da. Basurdea bezain beldur-
turik dabil, baina ihesean doan lapur bat baizik
ez da egiazki. Danba eta danba, egin dizkio bi
tiro Apezetxeak, eta ijitoaren bularreko odola na-
hasian atera da alkandoraren azpian ezkutatuta
zeraman oiloarenarekin. Tiroa gorputzaren er-
dian jaso arren, aurrera egin ditu hamabosten
bat pauso oiloak. Ijitoa, ostera, bertan geratu da.
Hilotz.

Taldeko beste guztiak saltaka batean hurbil-
du dira gizona eta oiloa hilda geratu diren mal-
karrera. Isilik begiratu diote Apezetxea tirogilea-
ri. Soilik aurpegi masustaduneko gazteak esan
dio: «Ondo egin duk, lapurrak ongi merezia dik
gertatu zaiona», eta bizkarrean eman dio taupa
eskuarekin. »Leziona behingoagatik ikasi beha-
rra zitean aluzikin horiek, Anton. Gora heu kan-
peon!».

Apezetxea gazteak alde egin du orduan
pauso azkarrez, korrika ia, mendian behera, ba-
karrik. Itzuli egin da etxera. Baserrira itzuli da,
eta han, leku ezkutuenaren iluntasunean gorde-
rik, malkoak isuri zaizkio estreinako aldiz.

Hemen ere, nire ondoko ohe honetan ere, malkoak isuri ditu Apezetxeak, azkeneko aldiz. Ondoren Dama Zuria bila etorri zaiola ikusi dut argi-argi: «Goazen Anton».

Gero, arnasa ozen baten atzetik, begiak itxi ditu.

Tirrina jo dut, luze, erizainak lehenbailehen etor daitezen.

Sutauts usainaren lekuan, orbelarena hedatu da berriro gela osoan».

Damianek ia entzun ere ez ditu egin Aldaba doktoreak esan dizkionak:

- Primeran doa. Itxura oso ona du honek. Hau guztia pasatakoan, nire kontsultara etorriko beharko duzu berriz. Errebisioak egin beharko ditugu hileru, endoskopioa, badakizu. Pare bat urtean kartzinomak ez badu seinalerik ematen, akabo, ez daukazu zertan kezkatu. Hori bai, tabakoa ahaztu betiko, eta alkohola ere ahalik eta gutxien hartu aurrerantzean. Orain bertan ez duzu minbizirik, errotik kendu dizugu zeneukana, baina inguruko zelulak zerbaitek urratzen ba-

ditu, izan ke edo izan alkohol, minbiziaren alde-
ra jotzeko arriskua dute. Displasia deitzen zaio
horri. Halakorik gertatzen bada, berriro kirofano-
ra, eta ez dakit bigarrenez ahots-korda moztu
gabe uzterik izango ote dudan. Trankil, Arruti,
zaintzen bazara, ez duzu izango arazorik.

Damianek begiekin konforme dagoela eran-
tzun dio, baina beste leku batean dauka egiazki
burua. Zer egingo du Poliklinikatik irtendakoan?
Nora joango da, non egingo bizimodua? Gipuzko-
ako gizon handi gehienak haserretuta dauzka.
Bere kontra oldartuko zaizkio aukera duten ba-
koitzean.

Lagun onena izandakoa ere ez du ikusi nahi
begien aurrean. Ez luke ez kalean eta ez beste
inon topatu nahi. Ez luke harekin jokatzeko asma-
tuko. Ez du sekula Jose Ramon Izpizurekin el-
kartzerik nahi. Badira barka ezinezkoak diren
gauzak. Nola barkatzen da hainbeste traizio?
Nola ahazten hainbeste gezur?

Jose Ramon eta Jaione. Jaione eta Jose
Ramon. Eta aita eta ama. Eta Lupe eta Vèroni-
que. Eta falta zena ere bai: Urrutikoetxea. Nola
biziko da horrela? Bakea behar duen gizonak

nola asmatuko du bizitzen hainbeste katramilarekin?

Agian etxea saltzea izango duzu onena. Bai, Zoriona saldu eta alde egitea nora-nora. Diru zukukada ederra emango dizute, eroslerik agertzen bada behintzat, Damian. Ez da erraza izango. Aberaskoteren bat izan beharko. Zeuk kartzelan sartu zenituen horien antzekoren bat. Nork erosiko dizu bestela halako etxetzarra? Hondarribiko Golfaren zokorik ederrenean, gainera.

Alde bai, alde, Damian. Zoriona saldu eta alde. Nora ordea? Nora demonio egingo dut alde?, pentsatu duzu.

«**Alboko** ohea hutsik gelditu denetik, indarrik gabe bezala geratu naiz. Ez daukat kaier honetan gehiago idazten segitzeko asmorik. Akabo *Mutuaren hitzak*.

Dama Zuria pasa zen gela honetatik, niri erreparatu ere egin gabe. Ikusi eta ez ikusi izan zen. Deus ez besterik.

Beraz, bukatu dira zer kontatzeko guztiak. Iruditzen zait, Anton joatearekin batera, lerro hauek idazteko beharra ere desagertu egin dela nire baitatik. Zertarako jarraitu? Zertarako ibili ezer esaten? Norentzat? Norentzat idazten ditud lerro zoro hauek? Ni ez naiz idazlea. Entomologoa naiz. Edo nintzen. Xuxen ez dakit oraintxe bertan zer naizen. Gizon ala gizonki. Odol ala odolki.

Gauzek ez dute erremediorik. Ez du norberak agintzen. Gauzak erabakita etortzen dira. Eta erabakita zegoen Anton Apezetxeak alde egin behar zuela hemendik. Hark, behintzat, astia izan du damuak gaineratik kitatzeko. Ez du gaineran kargarik eraman.

Horrelakoxea da bizitza, kaka zahar handi bat. Ez besterik. Eta hori, putz okerragoa izaten asmatzen ez duenean».

LAGA

Apurtu egiten zaio ahotsa. Pitzatu. Hizketan ongi hasten da, lehengo bere ahots berarekin, baina bi minuturen ostean, airea ihes egiten hasten zaio bazterretatik. Fu eta fu. Hala ere hori ez da txarrena. Beste gauza batek kezkatzen du gehiago Damian: oharkabeen listu zipriztinek ihes egiten diote hitzekin batera, deus egin ezin duela hori ekiditeko. Izatekotan, isilik geratu, ez dago besterik.

Ebakuntzatik hilabetera ez dago jada mutu, baina askotan uste du hobe zukeela halaxe geratu izan balitz. Beldurra ematen dio inori hurbi-letik hitz egiten ibiltzeak. Lotsatu egiten du. Nazkagarria iruditzen zaio eta, listu tantoa bala bezala doala ikusten duenean, airean eskuaz harrapatzen saiatzen da alferrik, eguzki errainuek agerian jarritako hautsa harrapatu nahian baile-bilen. Akatsa nabariago uztea baizik ez du lortzen horrela egiten duenetan.

Telefonia erabiltzen duen bakoitzean ere, zapi batez garbitzen du ondoren. Iruditzen zaio,

bere eztarrian bizi izandako munstroak, txito mikroskopikoak utz ditzakeela edonon.

Atzo egon zen Aldaba doktoareekin lehenengo errebisioa egiten. Harrituta geratu zen berriro Damian, sendagilearen eskuek sudurretik plastikozko ziraun luze eta beltz hura sartu ziotenean eztarrian behera. Harrituta eta umilduta. Ezin zuen ulertu sendagileak erakusten zuen ohikeria eta normaltasuna. Ohiko izateak, onargarri egiten du berez ikaragarria baino ez dena.

Aldaba doktoarearentzat, kamera txiki hura sudur zuloan behera ahots-kordetaraino sartzea, goizean kafe kikara bat hartzea bezain arrunta izango zen, seguru, baina Damiani iruditzen zitzaion medikuari berari ez ziotelako sekula halakorik egin gertatzen zela halako gauza bat. Bestenaz, hura ere konturatuko zela eginkizuna ez zela txantxetakoa. Endoskopiaarena ez zela gertaera arrunta. Ez behintzat gaixoarentzat.

- Esan eeeee -agindu zion Aldabak tutua aho-korden artean kokatu zionean-. Esan eeeee eta hartu arnasa lasai sudurretik.

Nola hartuko zuen ezer lasai guztiz ikaratuta bazegoen? Nola hartuko zuen arnasa lasai plas-

tikozko hodi ikaragarri hark ixten bazizkion arnasbideak eta, batez ere, haren beldurrez ba-
zeuden bere eztarriko bazter guztiak?

- Esan ooooo -agindu zion gero-, eta ez mu-
gitu burua, egon geldi.

Horixe egongo naizela geldi, pentsatu zuen
Damianek, milimetro bat ezkerrera edo eskuine-
ra burua mugitzen zuen bakoitzean, eztenkada
egiten baitzion ziraunak bereak zirenik ere ez ze-
kien eztarriko bazterretan. Horixe egongo zela
geldi. Harrizko estatua bat bezain geldirik.

Harritzen zuen beste gauza bat, Aldabaren
patxada zen: elkarrizketa arruntarekin jarraitzen
zuen endoskopioa egin bitartean.

- Hobeto zaude, ezta? -eta antzeko gauzak
galdetzen zizkion, berak ezer erantzuteko auke-
rarik baleuka bezala, tresnatzarra eztarrian be-
hera zebilenean.

- Ezer berririk nabaritu duzu ahotsean? -gal-
detzen zion igual sendagileak, eta Damianek, zi-
rauna eztarriaren erdian, begiekin egiten zion
keinua, ez, ez dut ezer berririk nabaritu, adiera-
zi nahian bezala.

Halako batean atera zion hodi beltza zegoen lekutik eta Damiani malko batek egin zion ihes ezker begitik. Tresnaren muturra ez zela sekula handik irtengo iruditu zitzaion, segundoetako kontua izan arren. Luzea zen suge beltza gero.

- Derrigorrezkoa al dut logopedarekin egin beharreko errehabilitazioa? -galdegin zion Aldabari.

- Lehenago edo geroago, egin egin beharko duzu -erantzun zion medikuak, ziraun plastikozkoa erizain baten eskuetan uzten zuen bitartean-. Garbitu hau, gero ere beharko dugu eta.

Damian orduantxe jabetu zen, bere barnean ibilitako polibiniloazko ziraun hura bera beste norbaiten eztarrian behera ibiliko zela minutu batzuk geroago, beste lurralde batzuen konkistan. Eta okerragoa zena, berari baino lehen, beste norbaiti sartua izango ziotela tresna huraxe, muki eta haragi lirdingatsuen artean behera. Beste norbaiten haragian barruan ibilitako piztia ibilia zela bereetan. Agian kontsultara bera baino lehen sartutako gizon laringetomizatuaren eztarrian behera erabili zuela tresnatzarra Aldabak.

Okada ekarri zion pentsamenduak ahora. Goragalea eztarriaren ertzera. Itoaldi mikatz bat. Baina Aldaba konturatu ere ez zen egin Damiani gertatzen zitzaionaz, hurrengo hilabeteko hitzordurako eskaera betetzen ari baitzen mahai gaineko paper batean.

- Ekainak hogeita zazpi, astearte.

Erizaina ere ez, hura ere ez zen konturatu Damianen higuinaz, plastiko urdinezko ontzi batean alkoholez edo auskalo zerez garbitzen baitziharduen tutu mingarria. Hurrengoarentzat.

Damianek txandako papera hartu eta eskerak eman zizkion Aldabari.

Erietxe atariko argiak eta kanpoko aire berriak oraino bizirik zegoela sentiarazi zioten ostera ere. Horregatik agian eramango zuen eskua barruko poltsikora, eta handik, metalezko kaxa batetik, txokor bat atera eta piztu egin zuen ansiaz: *La Paz, Wilde Habana*. Benetan hala ez izan arren, Damianentzat munduan dagokeen zigarro-pururik hoberena.

«Gaur erabaki garrantzizkoak hartu ditut. Hartu behar izan ditut. Ez dakit asmatuko ote dudan, baina egoerari aurre egin behar diodala pentsatu dut. Ezin dudala modu honetan aurrera segitu. Telefonorik ere ez dut jasotzen jada, Jose Ramon Izpizua izango ote den beldurrez. Ez dut harekin hitz egin nahi. Ez dut hura nire aurrean gehiago ikusi nahi. Eta beldur horrexek agintzen du gaur nire bizitzan. Ebakuntzatik irten nintzenetik, lautan deitu du etxera eta harrizkoa gelditu naiz haren ahotsa entzun dudan bakoitzean. «Badakit hor zaudela, Damian», esaten zidan telefonoaren beste aldetik, «erantzun mesedez». Baina zer erantzungo diot? Zer erantzun behar zaio zeure emaztearekin jolastu den Judasi?

Bai, onerako edo txarrerako, erabakiak hartu ditut gaur: ez noa ahotsaren errehabilitazioa orain egitera. Bi hilabete behar nituzke horrelako gauza bat egiteko, egunean bizpahiru ordu, eta ez nago prest horregatik hemen loturik jarraitzeko. Aurrerago egingo dut, ahal baldin badut.

Etxea ere ez dut salduko. Oraingo ez behintzat. Diru apur bat badaukat gordeta eta horre-

kin biziko naiz hilabete batzuetan. Katalina eta Moises auzokoek gordeko dute etxea bitartean. Gurasoei ere esan diet, nahi badute etortzeko hona bizitzera denboraldi batean. Ezetz esan didate, nahiago dutela euren etxeko neurria Zorionakoa baino. Zahartuegiak daudela nirea bezalako etxetzarrean bizitzeko. Biak bakarrik, gainera. Hobeto. Etorri nahi ez badute, askoz ere hobeto. Saltsa gutxiago niretzat.

Joan zen astean Leon Karrikari deitu nion, ea ba ote zuten lekurik niretzat Arizkungo beren etxean. Sekula ez nion orain artean eskaintza onartu, baina behin eta berriz eskainia zidan hango etxea, nahi nuenean bertara joateko. Egun batzuk pasatzera. Asteburuetan soilik erabiltzen zutela eurek. Eta oporretan. Berritu egin dutela ere esan zidan eta nahi dudanean lasai joateko. Bera ere han egongo zela. Lepo-hezurrean min hartu eta lanetik bajan zegoela. Emaztea eta alabak Ziburun utzi eta denboraldi batean Arizkungo etxean egoteko asmoa zeukala berak ere. Elkarrekin egongo ginela biok eta hobe zela hori berarentzat, inor gabe baino.

Gauza asko ezin dituela bakarrik egin, lepoan jarri dioten iduneko plastikozkoaren erruz. Eta gero apur bat izutu ninduen gauza bat gaineratu zidan, minarentzat morfina kapsulak eta tantoak hartzen ari zela esan baitzidan. Ez dakit zergatik, baina kezka eragin zidaten hitz horiek. Agian Karririk ezaguna duen pattar zaletasunagatik izango da. Morfina eta pattarra elkartzen direnean, sumendia piztu litekeela uste dut eta.

Kontua da parean datorkidala Arizkunen denboraldi bat pasatzeko aukera. Etxea saltzearena ez dut zertan oraintxe bertan erabaki beharko. Pentsatuko dut hobeto. Eta polikiago.

Urrutikoetxea komisarioari ere esana diot pare bat hilabetean bakean uzteko. Ez nagoela oraindik lanerako moduan. Ederki ulertu du. Gizon hori ez da uste nuen bezain zozoa. Batzuetan harrituta uzten nau. «Pajaro, pajaro», esan zidan, «orain ere bazoaz ihesi».

«Eta euliak?», galdegin zidan, «Zer egingo duzu orain eulien bildumarekin?». Etxean eulirik ez daukadala erantzun nionean, Arantzadi Elkar-teari emanda zeudela den-denak, uler ez zezakeen zerbaitek ihes egiten ziola pentsatu zuen.

Ez nauela uste bezain ondo ezagutzen. Ez ninduen euli bildumarik gabe irudikatzen, antza. Ni poztu egin nintzen horrekin, misterio apur bat beti baita on Poliziarekin.

Bakarrik ikusten nuen nire burua Arizkunen, baina zer egingo diogu, bada? Karrikarekin ere moldatuko naiz. Pintatzen geratuko da hura egun osoan. Ondo dabil horretan. Hobe luke bai, France Télécom-eko lan txatxu hori utzi eta pintatzera osoro jarriko balitz. Alabaina, berak esaten duen bezala, «funtzionario izatea du gehienak amets; lortu eta gero, nola erran nik ezetz».

Ikusi diodan azken erakusketan, askeago dabil pintzela. Hala iruditzen zait behintzat. Lehen ez nuen gehiegi maite haren lana. Paisaiaren egokierarekin aski zuela iruditzen zitzaidan. Pintatzen zituen baserriak zintzo pintatzearekin konformatu egiten zela. Orain beste modu bat erabiltzen du, Cézannerenaren edo nik ez dakit norenaren antzeragokoa. Askeago dabil kolore orbanak eginez. Marrazkia baino, argia harrapatu nahian dabilela iruditu zitzaidan. Bere azken lanek ez dute zer ikusirik Jaione eta bioi ezkontza

egunean oparitu zigun bodegoiarekin. Asko aurreratu du handik hona.

Beti esaten nion zintzoegiak begitantzen zitzaidak bere artelanak. Zuzenegiak. Algaraz erantzuten zidak berak orduan, dantza askean behar bezala egin ahal izateko, lotuan behar dela ikasi lehendabizi. Gizon ona da Karrika, purrustero xamarra, aukeran.

Batera eta bestera ibiltzeko egokiera izango dut nik han, Elizondora, Bozatera... ez da paraje makala Arizkunek inguruan daukana.

Hala ere, gauzak argi jarri nahi izan nizkion Karrikari: irakurtzeko asmotan noala eta denboraldi bat bake santuan egotera. Indartu beharra daukadala egindako ebakuntzatik. Txakur handi bat badaramadala ere esan nion, txakur alfer eta alferrikako bat. «Oh, putain, hirukote ederra egingo diagu», erantzun zidan. «Nola dik izena?». «Argos», erantzun nion. «Fidela izango duk orduan, Ulisesena bezala»».

Poliklinikatik irten eta hogeit hamar egunera gertatu zen Damian hainbeste kezkatzen zuen elkarreta-

ratzea. Lupe izan zen etxera bisitan etorri zitzaiona eta, egia, uste baino hobeto joan ziren gauzak. Askotan horixe gertatzen da, konponezina diruditen korapiloak bide errazenetatik askatzen direla. Ala ez, Damian?

Egun eguzkitsua egiten zuen eta golf zelaiak lepo ageri ziren, asteburua izaki. Xinaurri kolorezkoak zelaietako berdean atzera eta aurrera, multzoka. Horixe baino ez ziren Damianentzat golf jokalaria. Xinaurri kolorezkoak, kapeluekin jantzita. Balizko hiltzaileak. Taka eta taka, indar guztiz berunezko pilotak obus bihurtzen. Asesino potentzialak.

Taka eta taka. Bolakaden hotsa. Damian lorategian zegoen chaise longue batean etzanda, eguzkipean indartzen. Bolakada haiek soilik kezkatzen zuten, balak bezala noiz etorriko teilatu gainera, alboan zeukan Argosen gainera edo bere buruaren gainera. Zuzen-zuzen. Bolakada madarikatuak.

Ohitura zaharra zuen bere lur sailera etorri ohi ziren pilota haiek guztiak astean behin balde batean bildu eta, Santiago zubi zaharretik pasatzen zenean, Bidasoara jaurtitzekoa. Behin etorri

zitzaizkion golf zelaiko arduradunak, pilota haiek osteria erosiko zizkiotela esanez. Prezio onean jartzen bazituen, berreskuratu nahiko lituzketela bere etxeko lorategira eroritako pilotak.

Antzarak ferratzera bidali zituen Damianek. Arratsalde onik ere ez zien esan. Agurrik ere ez, jiratu eta alde egin zutenean. Ezertxo ere ez. Estatua bat bezain isilik geratu zen denbora guztian, dardararik ere egin gabe. Begiak erabili zituen pilotatxoei, golfari eta golflariei buruz pentsatzen zuen guztia adierazteko. Eta orduan ez zegoen mutu. Hori gertatu zenean, bazeukan hitz egiterik. Gorrotoaren handia, hitzetan baino hobeto sartzan dela ezitzetan, horixe zeukan erabakita Damianek golfarekin zer ikusia zeukan guztiarentzat. Hitzik ere ez bere etxeko bakea apurtzen zuten gaizkileentzat. Nahiago zuen isilik geratu, benetan uste zuena esatea baino: saritzazue zuen pilotatxo horiek guztiak bat-banaka atzeko zulotik. Bai, nahiago izan zuen isilik.

- Ez zaitut beldurtu nahi, Damian -esan zizun Lupek iritsi berritan.

Agerikoa zen emakumea hura, brigada zientifikoko Lupe Latasa ertzaina, kontu zientifikoez

baino gehiago zebilela nabigazio gaiez hizketan. Zehazkiago, hondora joandako txalupak nola azalera daitezkeen jakin nahi zuen. Edo antzeko zerbait.

- Ito ere ez, Damian -jarraitu zuen esaten zure mututasunaren aurrean-, ito ere ez zaitut egin nahi. Zergatik baztertu nauzun jakin nahi dut soilik. Besterik ez. Ulertu behar didazu hori.

Ia hilabete zen berarekin azken aldiz egon zinenetik, haren gorputz gaztea eta besarkada ia birjina sentitu zenituenetik. Ia hilabete zeneraman emakume azalik ukitu gabe. Ezta Véroniqueretik ere. Ez gara harrizkoak, Damian.

Minik ez zenion egin nahi, hori egia da, baina zeure buruari ere ez zenion aukerarik ukatu nahi, ezta? Zure adinean haragi emearen zerua ez da egunero aukeran egoten. Esazu argi: lagun jator baten antzera hitz egingo zenion, argi eta garbi, baina beste desira ezkutuagoko batek gidatu zituen zure hitzen *esanahiak*. Ala ez, Damian? *Zugan ez balego bezala* itxurak eginez, ez al zitzaizun gailendu, orduan ere, zeurekoikeria? Nik bezala dakizu zintzotasuna eta zintzokeria-

ren arteko aldea ez dela huskeria. Ez da hala, Damian?

Ospitalean ere jartzen zitzaizun zut. Batez ere goizero esnatutakoan. Areago, zutitzen zitzaizulako esnatzen zinela pentsatzen zenuen askotan, eta lotsa ematen zizun edonork ikus zitzakeen maindire haietan uztea zeure eskuez isurarazitako esnearen arrastoa. Garbitzera botatuko lojantzia erabiltzen zenuen horretarako, ama konturatuko ez zitzaizulakoan. Hamabost urte zenituenean bezalaxe. Berdin-berdin.

Luperen ahoa irudikatzen zenuen zeure haragi zuta mihiztatzen. Zorionan egin zenuten egun hartakoaren oroimenaz zinen kitzikatzen. Aitortu ere egin zizun sekula egin gabekoa zela halakorik. Nehoiz ez zela hartaraino ausartua. Inorekin. Eta pozten zela zure haragia hazten eta hazten bere ahoan sentitzean. Indarra, gizonarena dirudien arren, emezkoarena dela egiazki. Honek dakiela hilik dagoena ernetzen.

Gogoeta horietan husten zinen ospitaleko bakardadean. Lupe biluzten ikusten zenuen, Lupe zure gainean dantzari, zeure azpian preso, lau hankan jarritako zakur, zu haren ahoan, zeu

haren gutziak zurrupatzan... Horiexek ekartzen zizuten mesedea. Ia goizero.

Beraz, orain, zergatik uko egin aukerari? Nola esan ezetz eskura jarritako abaguneari? Ez al da berezko ehiztaria, gizonezkoa? Baliteke zu bestelakoa izatea, akabo. Bakarra, apartekoa, nahi duzun guztia, baina nola esan ezetz haizeak dakartzan urre pinportei. Ezta, Damian? Zozoa behar luke gizonezkoak.

Bestalde, ohartzen zinen zurea eta Luperena, ez zirela ezpal bereko kinkak. Emakumea hustulekutat hartzen hasia zinen aspaldi, ala, zuretzat, emakumeak beti horretaraxekoak baizik ez direla izan esan behar ote nuke egiazki, Damian? Eskaintzen dakiten atsedean berrituari nekea eta ohikeria gailentzen hasten zaienean, bazterrean uzteko moduko izakiak.

Lupek, emakumeek ohikoa duten biziraupenarekin lotutakoa zuen arazoa. Izan ala ez izan, maitea. Zurea ere biziraupenezkoa zen, ez da zalantzarik, baina guztiz bestelakoa eta trauskilagoa: lojantzi baten gainean eta zeuk bakarrik egin, ala emakume baten altzoan. Luperen barnean. Horixe aldea.

Eta baietz, bere hitzak ederki ulertzen zenituela adierazi zenion. Ahots apurtuaz horixe esan zenion listu perdigoikaden artetik. Eta bar-katzeko inoiz minik egin baldin bazenion. Ez zela izan hori zeure nahia. Inondik inora. Baina gauzak diren bezalakoak direla, eta ez bestela. Egia dela oso ongi konpondu zinetela elkarrekin, baita ohean ere -ohean *batez ere*, ezta Damian?-. Baina ez zaudela askoz gehiagorako, oraingo z bederen. Zeure aldetik ezin duzula besterik eskaini. Ahul zaudela zeharo. Zure bizitzako kinka berri baten aurrean.

Hala ere, ez diozula erabateko adiorik egin inori, are gutxiago berari, Luperi. Soilik ez duzula inorekin bizitzen jarri nahi. Oraingo z. Horixe dela gakoa. Beldur diozula betikotze horri. Ezinezkoa iruditzen zaizula horrelako gauza bat zure oraingo bizimoduan, emakumezkoa eta gizezkoa elkarren ondoan betiko egongo direla esateari zin egitea. Edo hori *hala balitz bezala* ibiltzeari nazka diozula. Ez zarela beste gizezkoen antzekoa. Lehenago ere Jaionerekin saiatua zinela. Gainera, ulertu behar duela, adin alde handia duzuela biek ala biek.

- Eta zer, Damian, zer axola dio horrek? Aspertu egiten zaitut beharbada -esan zizun Lupek, tristezia lurrun bati supituan leku eginez eta Vèroniqueren izena aitatzera ausartu ere egin gabe.

- Ez, ez nauzu aspertzen. Gustura egoten naiz zure ondoan. Aukera bikaina zara niretzat. Ez dut zu baino hoberik aurkitzeko itxaropenik batere. Baina ez dut nahi zu hemen, Zorionan, nirekin bizitzen jar zaitezten. Oraingoz ez.

Ondorengo hitzekin eman zenuen pausorik lotsagabeena. Indarra ematen zizun emakumea hain behera etorrita ikusteak. Zeu ehiztari eta huraxe ehizakia. Hil edo bizi itxurako sakonera haietan, gehiago zenbiltzan karta joko axalekoan. Ala ez, Damian? Azken batean, hamarreko batzuk baino ez zenituen galduko hordagoarekin, eta irabaztekotan, ostera, joko guztia zeuretzat.

- Egoki irizten badiozu, elkartzen jarrai dezakegu. Zuk nahi duzunean, nik nahi dudanean. Biok nahi dugunean.

Luperi ez zitzaion onartzeko modukoa begitandu zure bat-bateko eskaintza, Damian. Eder-

ki dakizu. Lotsarazi ere egiten zuten zeu zaren gizonetakoak bota zituen hitz haiek. Ez zitzaion iruditzen bera bezalako emakumea era hartan hartua izan zitekeenik inola, gaur bai eta bihar ez, haragi merkea bailitzan. Puta lez. Baina kontua da, Zorionako atetik barrura sartu zenean baino zertxobait gehiago zeukala aukeran: zeuk eskainitakoa ala ezer ere ez. Ederki zenekien horriek zirela zeure kartak. Eskainitakoa ala ezer ere ez, ez zeukan besterik, eta musu busti bat jarri zizun ezpainetan, barnean jaio zitzaion tristura itzela nabaritu ez balu bezala.

Atarikoa izan zen, gero elkarrekin, egongela bertan, egin zenutenaren atarikoa baizik ez. Eta harekin egiten zenuen bitartean, berriro erreparatu zenien ia belarrietaraino luzatzen zitzaizkion zango eder luze-luzeei. Sabel leuna ferekatu zenion Luperi, haren lepoan milizkatzean, gatza zein izan daitekeen gozo ikasi zenuen eta haren bular tinkoetan aurkitu zenuen zeuri ihes egina zitzaizun denbora gaztearen zantzua.

Luperen begietan pausatu zenituen zeureak irmo, arnasestuka, eta haren barneko hezegunean zeharo husteko tenorea atzeratu zizun

pentsamendu ezusteko batek: Zozoa naiz, zozoa behar dut izan, non aurkituko dut, *egiazki*, hala-ko beste emakume bat?

«Lotsa ematen dit eleberri edo film amerikar bateko protagonista bezala jokatzek, baina, bai, erabaki handiak hartu ditut. Orain arteko guztia atzean laga eta hemendik alde egitea. Indarberitu arte. Gero, auskalo. Ikusiko dugu. Orain bake apur bat baino ez dut nahi, azken hilabeteotan bizi izan dudan guzti honetatik apartatu. Izkin egin nahi diot bizitza berari eta Baztango bakean bizi, ahal dudan bezainbeste. Pintore baten ondoan, Leon Karrikarekin, argia ehitatzera goizeko bostetan jaikiko den morroi ero eta morfinazale batekin. Horixe.

Beste erabaki bat ere hartu dut: *Mutuaren hitzak* deitzen den kaier honetan idazten jarraitzea. Ahal dudan guztietan idatziko dut luze edo labur. Egunero, ahal izanez gero. Ez naiz idazlea. Hori badakit. Nik ez dut haiek bezala pentsatzen. Haiena argi dago: benetako bizitza ez da sekula iristen idatzitakoaren mailara. Gainetik egon

behar duela beti idatzitakoak. Putza! Ez, hori ez da horrela. Erraturik daude. Bizitzak ez baleuka ertzik, zertarako idazten ibili? Haiek bezala, ederki dakit hori, bizitza dela handiena, baita nirea bezalako zaputza denean ere. Zer dago, ba, besterik?

Baina irakurlea banaiz, eta ez edonolakoa. Literatura irakurlea naiz, nobela irakurlea. Gaixorik nago neu ere. Hainbeste literaturaz gaixoturik. Asebeterik. Zerbait badakit, beraz. Idazle askok eta askok beste bai, gutxienez.

Hala ere ez da hori nire helburua. Ez dut lerro hauetan nobelarik idatzi nahi. Zer da, bada, nobela? Zer da gezur hornitua baino?

Behinola, izenaz oroitu ere egiten ez naizen Mantxako leku batean... Gezurra gezurraren ostean. Errenkadan jarrita. Aingira bezala, literatura irrist eginez bizi dela esan zuen batek. Hatz artean harrapa ezinezko piztia dela literatura. Hobe horrela. Hobe ihesi utzirik. Hobe batere kezkatu gaberik.

Nobela bat berez ez baita ezer. Hitz bat bestearen ondoan. Ez gehiago. Irakurlea behar du, izango bada. Horixe da egia. Inork irakurri gabe-

tan, nobela bat ez da deus. Paper multzo alferri-
kako bat baino ez. Zertarako gordetzen da
etxeetan inork irakurtzeko asmorik ez daukan li-
bururik? Bat, ehun edo mila. Zertarako uzten
zaie liburuei espazioa alferrik betetzen? Irakurri
behar ez den liburua traba da. Pisua da. Ipurdian
irtendako erlakaiztena da.

Nik gainditu egingo ditut nobela eta liburuen
mugak lerro hauen bitartez. Gezurrak eta ames-
keriak ez baitu lekurik izanen hemen. Alferrika-
koak ere ez, hornidurak ere edukiko ez dituen
bezalaxe. Lerro hauetan dena izango da mami
huts eta gordin, orain artean egin dudanaren an-
tzera. Nobeletan ez bezala, bizitza gailenduko
zaio asmatutakoari, Anton Apezetxea zaharraren
begietan bezalaxe.

Neu naizen honek bizitzen segitzea dute
xede bakar hitzok. Ez dut idatziko inork edo
ezerk horretara behartzen nautelako, idazleari
banitateak edo diru-beharrak eragiten dion an-
tzekoz bestera. Letra askeak izango dira hauek.
Ez lukete bestenaz zentzurik. Zertarako ibili ezer
idazten, ez badira benetakoak?

Beste onura bat ere badute lerrook, eleberraren aldean. Egiako zentzua eta balioa eduki dezaten, irakurlerik ere ez baitute behar idazten ditudan lerro apur hauek. Bat ere ez. Neurekin aski dute. *Mutuaren hitzak* bataiatu dudan hau ez dago inoren menpe, ezta irakurle ezinbestekoari baldintzaturik ere. Ez baitago inork irakurdezan idatzia. Aske da menpekotza horretatik ere. Literaturaz gaineko beste zerbait du xede.

Lerro hauek mutuak hitz egin ahal izan dezan daude asmatuak, eta aipatu gabe gorde ezin dudan oldar itzel batengatik ere bai: bilduma berri bat hasi nahi dut. Hemendik aitzina, neronek idatzitako mutuaren hitz hauez osatuko dut bilduma berria. Lehen euliak bezala, idazten ditudan lerro hauek gordeko ditut orain kotoi artean. Bata bestearen atzean, inurrien gisan. Bilduma kontu handiz osatzeraino egingen dut. Mutua hitz egiten jarri arteraino.

Gero, gupida eta arrangura batere gabe, erre egingo ditut hitz hauek guztiak, egiten duten keari begira geratzeko».

BOGA

Leon Karrikaren etxea zaharberrituta dago. Otsoenea du izena, atariko Baztan-harri gorritan zizelkatuta dagoena egia baldin bada behintzat. Arizkungo plazan bertan dagoen dorretxe ederrinetakoa, ederrena ez bada. Atzeko aldean dozena bat sagar eta gereziondoz ziprizedutako belardia dauka. Ezpain koloreko hortentsia oraindik behar bezala loratu gabe batzuk ere bai, ondoko komentuko harresien kontra landatuak. Ortu jostailuzko bat ere bai, sukalde belarrentzat antolatua: albaka, ezkaia, erromeroa... agerikoa du, hala ere, ez diotela baratzeari gehiegi erreparatzen Otsoenean. Barrabas belarrek irentsita daude ia bazter guztiak, Lekeitio belarra ere deitzen diote izurrite horri zenbait lekutan. Hirusta handi baten antzekoa du hostoa, lurpeko tipula txiki-txiki batetik erretzen dena. Kentzen dituzu horietako bi belar gaizto, eta tipula beretik irten-go zaizkizu beste lau. Demoniokeria da. Ezinezkoa du sendabidea halako belar zitalak erasotako lur landuak. Ederki etorriko litzaioke jorraketa

bat baratzeari, eta belar gaiztoa sortzen duten tipulatxo ahalik eta gehien bertatik kentzea.

Ekialdean erreka mehe batek igurzten ditu etxaldearen mugak. Harantzago auzoko oiloek soildutako eremu bat ageri da, txarrantxaz inguraturik. Baina Otsoenean ez da halako eremu antzaturik aurkitzen ahal, aitzitik, izatekotan, belarra ugariegi da, sasia eta laharra handiegi ageri da zenbait ertzetan. Ahuntzek zerua lukete bertan.

Etxetzarraren leiho eta ateak gorriz margotuta daude -Prosper Meriméek bere idazlanetan aipatzen zuen «rouge basque» haren tankerakoa-, eta harrizko armarri bat ere badauka, bigarren eta hirugarren solairuaren artean. Oso goian. Bi izokin eta lau basurde ageri dira bertan, eta hiru mastako bergantin bat ere bai. Harrigarria egiten da azkeneko irudi hau itsasorik ez daukan paraje mendizkoan. Batek jakin noren ezkutua izan zen hori, XVI. mendekoa baita berez etxea.

Otsoeneak nabari du ganorazko etxea izandakoa dela eta Leon Karrikarena baino familia handiagoak hil eta bizi izan direla horma horien artean.

Hiru solairu eta ganbara zabal-zabal bat ditu. Goiko leihoetatik, elizaz gaindi, Bozateko herria ageri da, pareko mendiaren berdetasuna pitzitzen. Ederra dago zinez Bozate, maiatz bukaerako argi garbiarekin. Atze aldeko mendi, bide eta soroak ere eder daude. Egia esan, bazter guztiak daude eder udaberriak itzarritako kolore bizien karietara.

Damian Arrutik plazan bertan utzi du Jeep Wrangler iluna. Ordubete eskasean egin du etxetik honainoko bidea. Hondarribiko Golfetik, Bidasoa suge bihurriari segika, mendi garaienen magalak topatu arte. Hasieran, otalorearen hori erne berria eta ginarraren ubela eta gorritzta izan dira malkarretako jauzi berdea orbandu dutenak. Bide bihur osoan zehar, ezker-eskuin orotan.

Errepide zaharra hautatu du etortzeko, presarik gabetan, hemen aurkitu uste duen bizitza lasaiaren atariko bailitzan.

Geroago, Doneztebeko gurutzean, glizinia ezin ederragoa aurkitu du loraturik, malba kolorekoa. Bailara irekitzenago joan da hortik aitzinera, eta lehenagoko lahar eta sasien lekua, zuhaitz garaiek irabazi dute apurka. Pagoak, ha-

ritzak, gaztainondoak... Sahatsak ere bai loraturik bazterretan.

Urrutira Foruzaingoaren auto nabarmen bat ikusi du eta balaztak zapalduz jaitsi du abiadura, kamioiz betetako ostatuaren parean. Bide zuzen bakan horrextan ase nahi izaten dute gidariek bihurguneez eragotzitako abiadura. Hortxe egoten dira poliziak. Abiadura apur bat harrapa daitekeen leku bakarrean.

Bertiz Parkearen paretik berriro hasi da bidea estutzen eta horrekin batera ibaia berriro bistaritzen. Grazia egin dio Damiani ordura artean Bidasoa deitzen zena, orain Baztan deitzeak: ibai berak, bi izen.

Lautada arbola artean ezkututzen den neurri berean egiten da present ibaia ibar estuetan. Elizondo agertu da halako batean, eta arrotz zaiola pentsatu du Damianek. Arrotz zaiola hiri antolamendu hori. Eliza ere egin zaio arrotz, parean pasatu denean, eta harri ilunaren kariaz izanen dela erabaki du.

Irteeran, bide bazterreko etxe eder izokin-kolore batean, leihatilak ubelez margotzen ikusi ditu pintore batzuk. Min egin dio begietan kolo-

reen dantza eroak. Ezinezkoa dela pentsatu du. Ezinezkoa dela etxe horren jabea bertakoa izatea. Veneziako etxeen kolorea ondo dagoela dekorazio aldizkarietarako.

Arizkungo plazara iritsi bezain azkar, atzeko atea zabaldu dio zakurrari.

- Lasai Argos, hemen ez zabilek automobil askorik.

Maleta handi bat eta kartoizko kaxa astun bat hartu ditu, bata eskuan eta bestea bizkarrean.

Leon Karrika autoa sentitu duenerako jaitsi da atarira, lepoa zuzen eusteko plastikozko trastearen uhalari zulo bat gehiago estutuz batera.

-Oh putain! -esan du, behin eta berriz-. Oh putain!

Herrenka zetorrela zirudien, baina ez. Lepoa tente eduki beharraren imintzioa baino ez da izan.

Gainean zekarren karga lurrean uzteko ia denborarik eman gabe hasi zaio Damiani besarkadaka eta aspaldikoka.

-Bahuen garaia, la Virgen -esan dio atetik, barrura sartzeko aginduaz batera-. Atsegin han-

dia duk hi gurean ikustea. Redios. Ederki kon-
ponduko gaituk. Ikusiko duk.

- Iparraldekoa izateko, ederki menperatzen
dituk hango eta hemengo birao guztiak -iharde-
tsi dio Damianek orduan-. Betiko moduan hago,
Leon, lepoko traste horrekin pareta gaineko oila-
rra baino tenteago dirudian arren.

Damian ebakuntza batetik irten berria dela
hasi zaio esaten gero. Apenas egin dezakeela hi-
tzik ganoraz. Aireak egiten diola ihes ertz bate-
tik, eta listu zipriztinak bestetik. Oporto botila
bat ekarri du Leonek sukaldetik eta bi edalontzi
luze.

- Zer nahi duk, ba, gure adinean? Beti baza-
gok zerbait. Ez badaukak minik, ez hago mundu
honetan. Mina duk bizitzaren seinalea. Begira ie-
zadak niri, inauterietako buruhandia ematen
diat, lepoa jiratu ezinik. Lau operazione lepo-he-
zurrean. Oh putain, eta nolako minak!

Irri egin du Damianek. Bai, egia da inauterie-
tako buruhandien traza daukala Leonek.

- Hi hago lasai, hemen ez daukak hitz egiten
ibili beharrik. Nigatik, mutu ere jarrai dezakek.
Zer kristo ekarri duk kartoizko kaxa horretan? Ez

dituk, ba, hire euli zikin horiek izango? Lehen ere nahikoa bazagok hemen, euli, liztor eta ezpata-tik.

Liburuak direla adierazi dio Damianek. Irakurtzeko asmoz datorrela, ez duela besterik egiteko asmorik hilabete oso batean gutxienez, eta ea Argosen lekua zein izango den. Non utz dezakeen zakurra.

- Etxe gibelesko sagastian, bazagok txabola moduko bat. Hantxe lotu dezakek, plazer baduk.

Damian ez da ausartu Argos ez dela kateko zakurra esaten. Geroko utzi du, beraz, eskaera. Etorri berritan ez baita komeni etxekoaren arauak pitzatzen hastea. Ezta anfitrioiak Leon Karrikak adinako bihotz handia daukanean ere.

Zakurra intzirika geratu da txabolako katean, gizonek etxera itzultzeko bizkar eman diotenean.

- Berritsua atera zaik zakurra -esan dio Leonek.

Mailadian gora eraman du gero Damian, bigarren solairura.

- Hauxe izanen duk hire gela. Ezer falta ba-zaik, esan eta kito. Konponduko diagu. Komuna

ezkerreko bigarren ate hori duk. Bertan daukak dutxa ere. La Virgen, hau duk poza hau!

Hotza. Hotz egiten duela iruditu zaio Damiani bere gelan bakarrik geratu denean. Kanpoko egun epeletik hara, alde ederra dagoela. Uda hastapeneko eguzkiak oraindik berotu gabe dauzka Otsoeneko hormatzarrak, baina atseka-bea baino, poza eragin dio horrek Damiani, leiho handi batetik sartu den ezkila hotsak eragin dion antzera. Hondarribiko Golfean bakea bada, hemengo zer ote da?, jarri da pentsatzen eta ondoren irri zabal batek ihes egin dio ezpainenetik, Arizkunen oraingo golf zelairik ez dagoela konturatu denean.

Etxea ez bezala, altzariak garaikideak dira logelan: arasa bat, mahaitxo bana ohetzarraren bi alboetan, eta hirugarren mahai handiago bat ere bai, idazteko modukoa, merkataritza-gune handietan erosi eta norberak muntatu behar izaten dituen horietakoa. Ikea, pentsatu du Damianek, eta ez dagoela zeharo gaizki iruditu zaio. Merkekeria, aukeran, baina beharrezko guztia eskaintzeko adinakoa ere bai.

Ohe gainean etzan eta sabaiko orban beilegi bati begira geratu da gero, deusetan pentsatu gabe, begiak orbanean preso. Haren zimurretan kare horitua nola pilatu den denborarekin ikusi du, eta urratu ñimiñoek nola eransten dioten erliebea formari ere bai. Tapiesek ez duela deus berririk asmatu, etorri zaio burura. Berehala pentsatu du zozokeria ere badela halako pentsamenduetan ibiltzea, baina balitekeela *Bizimodu Berriak* ekarritako lehen aukeretako bat izatea zentzuak betetzen dizkion mistikotasun moduko hau. Gauzak *beste begi batzuekin* ikusteko aukera daukala orain. Arrapaladan eta ohartzeko igarotzen zitzaizkion gauza txikienek arreta bereganatuko diotela gaugerero. Agian.

Nolanahi ere, begiekin sabaiko orban informalista baino haratago behatzen asmatzen duela ematen du, ganbara eta gaineko teilatua baino ere harago. Ohean ahoz gora etzanik, eguzkia ezkutatzera etorri diren hodei zurixtak baino harantzago dauka begirada: inon ere ez.

Une horretan hasi da arazo mundutarrago bati buruz hausnartzen: Lupe bezalako emakume batekin bizitzeko gai ez den bera lako gizo-

na, gauza izango ote den Leon Karrikaren alboan haserretu gabe denboraldi bat bada ere bizitzeko? Orain alferrik da. Hemen dago. Behintzat, pentsatu du, ez da nire etxean gertatuko. Ez dut nire lekuan nik nahi ez dudarik onartu beharko. Hau ez da Zoriona. Hau Otsoenea da. Leonekin aspertzen banaiz, alde eta akabo.

Arnasa sakon hartu du. Hasperen gozo bat izan da seguru asko. Inork ez daki Arizkunetik dagoenik, Leonen etxera etorrita dagoenik. Ez die gurasoei esan. Ez dio Urrutiri adierazi. Lupek ere ez daki. Atsedentzera norabait joatekoa zela, hori bai, denek dakite. Nora ez, ordea.

Kilkerra atera du gero poltsikotik eta pantailak telefono sarerik ez daukala erakutsi dionean, deskonektatu egin du, bateriarik ez dezan alferrik gal.

- Borobil -esan du ozen- hauxe behar huen, Damiantxo, bake pixka bat. Mundutik aldendu, mundura indartuta itzultzeko. Edo betiko apartean geratzeko. Horixe daukak denboraldi honetan erabakitzeko.

Eta bere burua bakarrik hizketan aurkitze hori, berria eta seinale ona dela erabaki du. *Den-*

bora Geldoak dakarren dohainetako bat baino ez. Ezta, Damian?

«La Rochefoucauld frantsesak idatzitakoa irakurri dut eguerdian: «Gauza bat benetan eza-gutu ahal izateko, ezinbestekoa da gauza edo kontzeptu horren izena aurrez entzunda edukitzea». Esaten duenez, jende asko ez litzateke sekula maiteminduko, aurrez «maitasuna» hitza inoiz entzun izan ez balu. Bat nator horretan. Iru-ditzen zait, ezin dela ezer desiratu, aurrez bere izenik ezagutu ezean. Katuak ere ez luke xagua desiratuko haren izenik aurrez ez baleki.

Kontuak, ordea, beste koska bat ere eduki dezake niretzat: nola deitzen ote zaio hitza eza-gutu arren, desiratzen ez duenari? Desira ez dezakeenari? Nola deitu behar zaio, izen batzuk entzuteko berez gorra denari? Nola behar zaio deitu ni bezalako gizon ezindu bati? Neuk ez dakit eta.

Leonek esan dit Narbartera eraman nahi nauela bihar, Lakoizketa izeneko jaun baten etxea ezagutzera. Uste duenez, aurki bota egin

behar omen dute errepide berri baten karietara, eta hori gertatu baino lehen erakutsi nahi dit. Ez dela etxe aparta, baina niretzako moduko gizona izan omen zen Lakoizketa hori. Botaniko ero bat. Antza, neu ere horien artekotzat nauka Leonek, eroen arteko.

Lakoizketari buruzko gauza askorik ez dakie-la ere esan dit, bera bezalako kanpotarrarentzat ez dela erraza bertako kontuez jabetzea, nahiz eta hogeit urte baino gehiago badiren Baztan aldean dabilela. Elbeten eta Elizondon lehenik, eta azkenez Arizkunen. Soilik daki familia handiko seme izanik, landareen azterketan eta bilduman zuela eginkizun nagusia Lakoizketak. Besterik ez. Neu bezala hura ere, bildumagile handia izan zela.

Eskertu egin diot aukera. Ni bezalako bildumagile batek beti dituela estimatzen beste bildumagile baten kontuak. Eulien bildumarekin jarraitzen ote dudan galdegin dit gero Leonek eta ezetz erantzun diot, orain neuk idatzitako lerroen bilduma osatzen dihardudala.

Inori eginiko lehenengo aitortza horrek, gure lagunartea indartuko zuelakoan esan diot hori

guztia, konfidentziak hurbilagotuko gintuelakotan, baina ez dit jaramonik egin. Ez dit lerrootan zer idazten dudan galdetu ere egin. Konturatu ere ez, bere harrera ezin hobea nolabait ordaindu nahian, lotsa irentsi eta egin diodan aitortza intimoaz. Niretzat guztiz garrantzizkoa dena, firina izan da harentzat. Purrustada berri bat baino ez: «Oh putain, hik, neure antzera, beti edukiko duk hego-haizea sartuta bi belarrien arteko ganbaran. Orain idazle nahi duk».

Ikusiko dugu, beraz, nor izan zen Lakoizketa hori ere. Egia esan, hemen zeregin handirik ez dago, batez ere, Leonek esan didanetik ez duela merezi geu sukaldeko gauzak paratzen jarduteak. Zertarako ibili lan horretan? Zertarako jankiak erosi, prantatu, garbitu... etxetik pauso batera ondo eta merke ematen badigute Balezte-nea ostatuan? Berak hantxe egiten omen ditu jantziak. Ez da sekulakoa, baina garbia eta zintzoa bai, behinik behin, hango sukaldea. Etxekok bezala jaten dugu geuk ere. Haiek dutena egoten da geuretzat ere. Ez da tratu txarra. Soilik janari bereziren bat nahi dugunean egiten dugu geuk Otsoenean. Arkume errea edo horre-

lakoren bat. Gainerakoan beti gaude han sartuta, eguerdi eta arrats, Baleztenean. Aukera ederra da, gainera, auzo apurrekin mintzatzeko.

Hantxe ezagutu ditugu Tomas danbolindaria eta Senpe deitzen dioten aitona bat.

Domingo Senperena du izen osoa bigarren honek. Leonek dioenez, inor ez dago inguru hauetan Senpek adina ezagutzen duenik Bidasoa ibaia. Amuarrain eta izokinetan, behintzat, ez daukala gizon horrek parekorik. Berdin diola, esan dit, uda edo negu. Eskatuz gero, Senpek beti asmatuko duela arraina ekartzen. Debeku garaian ere bai, jakina. Debeku garaian, batez ere. Hortixe ateratzen omen du dirurik gehien. Baina hitz erdirik ez esateko Senperi horretaz guztiaz, umorez ez dela eta soberan ibiltzen den horietakoa. Eta batez ere ibaiari ez deitzeko haren aurrean Bidasoa, harentzat ibai hau Baztan izan dela beti.

Lehengo batean bere etxera lagunduko ote genion galdegin zigun Senpe zaharrak. Ez dakit zergatik esan zion Leonek ni entomologoa nintzenik. «Zer da hori?», galdegin zuen Senpek, «zer lan arraio egiten du entomologo batek?».

Leonek nire lanbidea ezagutarazi zionean, begirada niri zuzendu zidan Senpek, eta euli eta eltxoez gainerako animaliak ezagutzen al ditudan. «Batzuk bai», izan zen nire erantzuna, baina Leonek Unibertsitatean zoologia irakasten ibilia nintzela esan zion orduan. Zeruan hegan dabiltzan usoak arrak edo emeak diren jakin nahi duenean, galdetzeko niri. Jakintsu handia naizela animalia kontuetan. Kaka zaharra, horixe esan zion Leonek.

Senpek begirada neuri so jarri zidan orduan. Arrainak ezagutzen ote nituen, izokinak batez ere, horixe galdegin zidan. Eta nik baietz, sekula gehiegi landu ez badut ere, iktiologia ikasi genuela geure ikasle garaietan. Zientzia liburuak irakurtzeko zaletasuna ere badudala apur bat eta beti geratzen dela zerbait ganbaran itsatsita. Horixe eman nion arrapostu, zerbait erantzute aldera.

«Orduan nere etxerat etorri behar duzu gaur ilun nabarrean», esan zigun ahapeka, Balezteneko gainerako bezeroek, Tomas danbolindariak eta, ez entzuteko moduan.

Eta ez dakit zehatz esaten zergatik, Balezteneko atetik barrura aireak ekarritako hozte azkar batengatik edo, une hartantxe nabaritu nuen egun haietan bizi ninduen bakeak ez zuela betiko izateko trazarik. Pitzatu egin daitezkeela Otsoeneko horma sendoek oparitua zidaten zorion moduko hura ere».

SEGA

Egunen joan-etorriarekin Argosek bere lekua hartzen asmatu du Otsoenean. Aukera duen ba-koitzean katetik ihes egin eta bi gizonen albora etortzen da, horixe bailuen bere benetako lekua, gizonen artekoa, eta ez sagastian dagoen zakur-rarentzako bestea. Hastapenean atean geratzen zen etzanda, salako atean, muturra lurrean jarri eta begiak gorantz. Ondoren, gauez batez ere, gizonen gibelean etzaten zen, dozena erdi metrora edo. Azkenean, sutondotik hurbil, gizonen oinetan bertan aurkitu du lekua.

- La Virgen, zakur honentzat katerik ez zagok, Damian. Gaizki ohituta daukak. Ilez beteko ziguk etxea eta gozoa jarriko duk Mirari etortzen denean. Oh putain! Badakik nolakoa den hura.

Damianek promes egin dio, bera arduratuko dela Leonen familia etorri baino lehen aspirado-rea etxe osoan pasatzeaz.

- Zakurrak ez zaukak ohiturarik, Leon, gure etxean nahi duena egiten dik eta. Bera duk han nagusi.

Mintzagaia aldatze aldera, Otsoenea erostea nola deliberatu zuten galdegin dio Damianek, nondik atera duten Mirarik eta berak halako etxe ederra ordaintzeko behar besteko dirua.

- Hori denek bazakitek hemen -erantzun dio Leonek-. Baztan bailara honetako baserri gehienak Elizondon bizi den gizon batenak dituk. Huraxe duk jauntxoa hemen: Joaquin Aldaz.

Entzutea baduela erantzun dio Damianek. Aldaz deitura hori ezaguna egiten zaiola.

- Elizondoko hotel handia ere ez al duk horrelaxe deitzen?

Eta baietz Leonek, hotela ez ezik, gasolindegia eta eraikuntza enpresa bat ere bereak dituela Joaquin Aldaz delakoak. Eta beste denda zenbait ere bai. Ez dagoela Baztanen pauso bakar bat ematerik, haren arrastoren bat aurkitu gaberik.

- Baina ez ezak uste ohiko diruzale horietakoa denik. Harrigarria duk gizona. Naturala duk oso. Elizondon dik jauregi moduko bat, indiano

batek duela berrehun urte eraikitakoa. Ez al hituen palmondo itzel batzuk ikusi hona bidean etorri hintzenezan?

Damianek ezetz, buruarekin.

- La Virgen, ez dituk, bada, ikusi gabe pasatzekoak. Hantxe bizi duk jaun hori. Eskulturak ere ageri dituk haren lorategian eta, etxe barnean sekula izan ez banaiz ere, inguruetako arte bildumarik ederrenetakoa omen zaukak. Iruñean ere ez omen zagok halakorik. Liburutegia ere itzela omen dik. Aberatsa duk, baina tontoa ez horratik.

- Nola zitekek pertsona bakar batek hainbeste diru?, nondik hainbeste aberastasun?

- Senpek esango dik hori nik baino hobeto. Lagunak omen hituen gaztetan eta elkarrekin ibilitakoak gauezko lanetan.

- Gauezko lanetan. Zer duk hori?

- Zozoa dirudik batzuetan, redios. Zer izango duk, bada? Kontrabandoa mutil. Kontrabandoa.

- Zerena, ordea? Zerekin egin dik kontrabandoa?

- Pentsa dezakean gauza guztiekin. Argi-argi ez zakiat, baina edozerekin egingo zian horrek

dirua: kobrearekin, puntillekin, xanpainarekin, Bordeleko ardoekin, ganaduarekin...

- Eta gizon horri erosi zenioten etxea?

- Bai. Sekula pentsatu al duk zenbat artista-jende bizi den bailara honetan? Idazleak, pintoreak, musikariak, eskultoreak, argazkilariak... Zergatik etorri gaituk denok Baztan aldera? Pentsatu al duk hori sekula? Kasualitatea dela uste duk? Ibarren edertasuna eta bakeak bakarrik erakarri gaituela pentsatzen al duk?

- Ez nauk hori pentsatzen sekula jarri.

- Joaquin Aldaz duk erantzuna. Artista baldin bahaiz, beti emango ditik erraztasunak Baztan aldean etxea erosteko. Baserri bat, borda bat, dorretxe bat... hire ahalmenaren arabera. Artista baldin bahaiz, handik edo hemendik asmatuko dik hiretzako moduko zerbait. Hi bezalako zientzialari batekin ez zakiat, baina artistekin halaxe jokatzeko dik Don Joaquinek. Diruz larri baldin bahaibil, artelana ere onartuko dik ordainetan. Bat baino gehiago biziko duk oraindik ere haren bizkarretik, hark erosten dituen artelanetatik. Ni-reak ere bazauzkak dozena erdi baino gehiago.

Begia ere badik hautatzeko orduan. Hari ez eman lan merkerik.

- Zergatik egiten dik hori? Mezenas berritua zirudik.

- Ez zakiat. Ezagutzeko aukera baldin badaukak, galde iezaioak berari edo, bestela, Senperi. Umorez harrapatzen baduk, hark kontatuko ditik horiek denak. Eta gehiago. Esan diat gaztetan elkarrekin ibilitakoak direla gauezko lan horretan. Oh putain, nik ez zakiat ezer hemengo jendeari buruz. Harriak dituk enetzat. Galde iezaioak herorrek Senpe zaharrari.

«**Atzo** aurkitu zuten Senpe. Hilda. Metro erdiko putzu batean itota, Baztan ibaian bertan. Guardak aurkitu omen zuen bele beltz batzuen hegadari segika. Ahuspez zegoen, konortea galdu eta ur txikitan itota. Besoa era bortitzez bizkarrean bihurrituta. Beti ibaian ibilitako gizona, hara hor, basokada xume batean hilda. Uretan itotako lehen amuarraina, Senpe.

Hurbilegia egiten zait gertaera, nik hemen hitz egokiak asmatzeko. Soilik esan dezadan,

Senpe ur gaineko dilindan ikusi nuenean, zora-bioaren antzeko zerbait sentitu nuela. Oinek huts egiten zidatela eta erreka ondoko harri batean pausatu behar izan nuela nire ezinegona. Hainbeste denbora ere ez zen lagunak ginela, baina aitortu behar dut Senpe zaharra zela, bertakoen artean, nirekin gehien lotu zena.

Karrikari albistea eman nionean ere, zurbildurak harrapatu zion eitea. «Afrusa duk! -esan zidan- zeharo afrusa». Nik ez dakit Leonek zer esan nahi izan zidan hitz horrekin, baina ikaragarria behar du esanahia hitz horrek, mututu eta alde egin baitzuen nora-nora, xehetasun gehiagoren bila, seguru.

Gorpua altxatzeko orduan, autopsia egiteko eskatu zuen Iruñetik etorritako epaileak. Horixe izan da albiste nagusia Baleztenean, heriotza bera baino gehiago. Ez omen da eta oso ohikoa halako gauza bat.

Etxetik kanpora baten bat hiltzen denean, legearen araberako autopsia egin behar izaten dela, esan diet nik lagunei. Maria Balezteneko etxekoandreak azkar erantzun dit hori kapita-

lean izango dela, autopsia egin gabekoez daude-
la hemengo hilerriak beteta.

Astebete ere ez da izango Leonek eta biok
Senperi bere etxera lagundu geniola iluntze ba-
tean. Behera zetorren baserri zahar eta umel ba-
tera, Beko-Errota omen izena. Alabaina, ezerk ez
zuen adierazten hori horrela zenik, ez behintzat
atarian idatzitako ezerk. Lokatzaz betetako oi-
nezko bide batean behera, ibairaino bertaraino
jaitsi beharra zegoen hara iristeko, eta istant
batez pentsatu nuen hura ezin zitekeela inoiz
errota aberatsa izan. Bide estu haietan ez zela
ibiltzen ahal kargatutako gurdirik, uztartutako idi
paperik. Asto edo mando gainean, izatekotan.
Zoko hartatik ez zegoela irin zaku handirik atera-
tzerik.

Gezurra zirudien XXI. mendean Erdi Aroko
halako egitura bat ikustea zutunik. Oker eta
erortzear, basoak, sasiak eta erreka hezetasu-
nak janda, baina zutunik.

Hangoxea zela esan zigun Senpek, hantxe
sortua eta, honezkero, hantxe hiltzekoa. Apus-
tua zeukala eginda Beko-Errota jaiotetxearekin,
bietatik nork luzeago eutsiko ote zion bizirik. Go-

gorra izango zela, esan zuen, bera hil baino lehen teilatua behera etortzen ikustea. Hala gertatzekoa bazen, nahiago zuela azpian harrapatu-rik. Ez zuela bere burua Elizondoko mojekin ikus-ten. Lagunak bazituela han, nahiko ongi zain-duk gainera, baina halaxe zuela berak nahiago, erdi-abere eta erdi-gizon, beti bezala bizi. Bere antzera mendikoa denak asko daukela basurde-rik. Eta barkatzeko kuxidade hura, atariko lokaz-ria eta bertako lahar eta asun ugariak, baina lan handiegia zela etxea irentsi gabe basoari eustea, bakarrik eta zaharturik, zabarturik, bizi den gizon zaharrarentzat.

Korta modukoa izandako batean sartu gin-tuen eta han, bonbilla zahar baten argitara, bi izokin atera zizkigun. Itzelak biak ere, hiru kilotik gorakoak. Garo busti artean bilduta gordetzen zituen. Haiei begiratzeko eskatu zigun gero, ba-tere alderik antzematen ote genien ikusteko.

Argi exkax harekin ezin zitekeela deus ikusi esan nionean, izokinetako bat jarri zigun sudu-rran aurrean, lehenik Leoni eta gero niri. Usain-tzeko agindu zigun.

Izokinetatik lehenengoak, usteltzen hasitako arrainaren usain sarkorra garatuta zeukan jada, kloroaren antzeko usain gotor bat. Senpek esan zigunez, astebete bazen arrain hura ibaitik atera zuela eta hortik zetorkiola usaina, normala zenez.

Bigarrena jarri zigun gero aukeran eta kontu handiz hurbildu genuen sudurreraino Leonek eta biok. Oraindik sudurzulo barnean genuen lehenengoak utzitako kirats lehorra.

Ez genion usainik hartu bigarren hari. Hobeto esanda, arrain hark ez zeukan batere usainik. Fresko-freskoa zirudien, bizirik zegoela ia. Sudurraren puntaz ukitu ere egin nuen usaina hartu nahian. Errekako ur garbia baino usaingabekoa goa zen, ordea.

Orduan esan zigun Senpek bigarren izokin hori bezalakorik ez dela sekula ikusi Baztan ibaian. Begiratzeko ondo. Usaingabezia ez ezik, beste gauza batzuk ere badituela bereziak, eta eramateko etxera nahi banuen eta neuk ikusteko neure begiekin. Nahi nuen beste. Eramateko eta hobeto aztertzeko izokin hura Beko-Errotakoa baino argi hobearen argitara.

Nik ez nion ulertu jakin-gose erabateko hura. Soilik geroago konturatu nintzen han gertatzen zenaz. Bizkarra eman eta izokina eskuetan hartuta bagindoazenean. «Badira bi aste bigarren arrain hori harrapatu nuela», esan zuen Senpek. Hamabost egunean ez zela batere usteldu, alegia. Berarengana itzuli ginen harriturik Leon eta biok. Esaten zuena ezin baitzen egia izan. Inondik inora.

«Bi aste dira, bai, harrapatu nuela, Mariputzuko zubiaren azpian. Han holako gehiago ere bada. Haundi-haundiak. Hamabortz egunen buruan usteltzen ez diren horietakoak. Lehenagoko denboretan ez zen halakorik. Deabruaren kontua dela ematen du».

Eta zinez esan dezaket orain, baietz, Deabruaren kontua dirudiela usteltzen ez den arraina begi bistan edukitzeak. Nik, behintzat, sekula ez neukan ikusita horrelakorik. Entzuterik ere ez.

Egia zen, ordea, egia borobil-borobila. Eskuetan neukan froga: arraina ukitu arren, inolako usainik ez zen itsasten nire eskuetan bertan.

Oraindik hortxe daukat, sukaldeko hozkailuan gorderik eta, egia, Senpek harrapatu zuene-

tik denboralea igaroa den arren, ez dirudi oraingoz usteltzera jotzeko asmorik daukanik.

«Karramarroak» esan zuen epaileak Mariputzura inguratu zenean. Nik ziur-ziur dakit, ordea, karramarroak ez zirela izan Senperen gorpuari aurpegian kosk egin ziotenak».

Arizkungo eliza txikia handi gertatu zen elizkizunerako. Handiegi. Bi dozena lagun baino ez zen bertara bildu Senperena zaharrari agur esatera. Eta ez zegoen eguraldiaren aitzakiarik: arratsaldea ederra zen.

Eliza atarian batutako jendearen artean, Tomas danbolindaria eta Balezteneko Maria eta haren alaba Junkal baino ez zitzaizkion ezagun egiten Damiani. Han edo hemen ikusita aurpegiz ezagutzen zituen gainerako batzuk ere, Arizkun ez baita New York, baina ezin esan zitekeen *lagunak* zirenik. Ez eta *ezagunak* ere. Izatekotan, *biztanleak* ziren. Arizkunek mendiak, etxeak eta zakurrak zeuzkan bezala, biztanleak ere bai baitzeuzkan. Ezta, Damian?

Argi zegoen bilera hartan zeu zinela arrotza, izokin berria Baztan ibaian baino arrotzagoa. Le-
onek, behintzat, ezagutzen zituen elizkizunera bildutako ia denak eta bazeukan bata agurtu eta besteari zer moduz? galdetzeko aukera. Zuk horrelakorik ere ez, ezagutzen zenituen bakanak bezperan ere ikusitakoak baitziren, eta ezin hasiko zinen zer moduzka, instant bat geroago ere Baleztenean aurkituko zenituen ezagun apurrekin. Bakardade eta isolamenduaren bila etorri bazinen Arizkunera, hantxe zeneukan horretatik nahi beste, elizatariko jende artean. Zurtz nahi zenuen? To zurztasuna!

- Lakoizketaren lanaren gainean galdemoduak egin dituzula ikasi dut -esan zizun gizon batek albotik, agurrik egin gabe eta bere buruaren aurkezpenik batere egin gabe .

Gizon zahar bat zen. Hirurogeita hamar urtetik oso gora joandakoa bai behintzat. Ezkerreko begiaren azpitik ezpain gaineraino, aurpegia goitik behera pitzatzen zion orbain itzel bat zeukan nabari. Orbain ikaragarria, bi aldeek batak bestearekin zerikusirik ez balute bezala antolatzen ziona aurpegia. Izan ere ezkerreko aldea bitan

zatitzen baitzion orbainak, eta erdibanatuta baino, herenduta zeukan gizon hark bisaia.

Haatik, atsegina zeukan begirada gizonak. Txapela handi xamar bat, gabardina arre bat eta eskumakila zeramatzan soinean. Eta harritze-koa, gorbata ere bazeraman jantzita. Bakarra zen horretan Arizkungo plazan. Herren txiki bat ere antzematen zitzaion, mugitzen zen bakoitzean.

Ez zegoen zalantzarik, gizon hura izango zen Joaquin Aldaz, Senpe lagun zaharraren hiletara etorrita. Eta barkatzen badidazu, Damian, ene memoria ona profitatuko dut berriz ere, han esan zenituztenak lerro hauetara transkribatzeko. Apustu eginen nuke hitzez hitz gogoratzen ditudala esan zenituzten guztiak.

- Pena izan da zinez, sekulakoa, Senpe hola hiltzea -esan zizun-. Kintoak ginen, urte berekoak. Aspaldixko ez nuen ikusia, baina lagun xaharrak ginen. Ez ginen alferrik ibili mendian goiti eta beheiti bizkarra ongi betea. Haiek bai denborak! Orai alferrik da deus ere erraten ibiltzea. Gu nola bizi ginen ez baitu jendeak sinesten. Zuk ere ezagutu duzu, beraz, Senpe zaharra?

Baietz zuk, maiz egoten zinetela elkarrekin Baleztenean baxoerdi baten inguruan. Afaritara ere gonbidatu izan zenutela zenbaitetan eta, baietz, Senpe zela bailara honetan ezagutzen zenuen bakarretakoa. Hura eta Tomas danbolindaria. Eta ea egingo zizun mesede bera nor den esatekoa, axola ez bazion bederen. Eskua luzatu eta ni Damian Arruti naiz, esanez egin zenuen hori.

- Bai jauna, erranen dizut. Joaquin Aldaz naiz, zenbaitzuek *Tarrat* deitzen badidate ere. Hemengo saki hunengatik da hori -erantzun zizun hatz-muturra aurpegian jarri eta goitik behera labanaz mozteko imintzio eginez-. Elizondon bizi naiz eta hantxe ikasi dut Lakoizketaren arrasto bila ibilia zarela.

- Txorrotxio handikoak dira Baztan aldeko txoriak, antza.

- Ez ezazu juzku txarrik egin, bere funtsa baitu horrek. Gu tokikoak gara eta dena ikasten dugu, fite edo berant. Zer jakin nahi zenuen Lakoizketaren gainean?

- Ezer zehatzik ez. Bildumagilea zenez eta neu ere antzeko gauzetan ibiltzen naizenez, haren berri jakin nahi nuen soilik. Besterik ez.

Gizona isilik geratu zen tarte batean, antzik ere eman gabe zenbaterainoko mesedea egiten zizun solasaldi harekin. Elkarrizketa hark *lekua zureganatzen zizun* arrotasunaren erdian. Berdin zitzaizukeen elkarrizketaren gaia, mendiez edo kirolaz hitz egingo zenukeen, eguraldiaz edota Osasunaren gainbeheraz, zernahitaz. Gizon hark egiten zizun hitz bakoitzarekin zentimetro bat sakonago sartzen zitzaizkizun oinak lurrean behera, sendotzenago oinarri airezkoak, Arizkungo eliza aurrean.

- Leon Karrikaren etxean bizi zara, ezta hala?
-jarraitu zizun gero.

- Hori ere badakizu.

- Pintorea baino gizon hobea da Karrika, mundu guziak badaki hori hemen, baina hobe luke ahotik horrenbertze indar alferrik galtzen ez balu. Hainbertze juramentu eta erausi. Mintzo guzietan, gainera.

- Berarekin joan nintzen Lakoizketaren etxera. Han bizi direnek, ordea, ez dute deus handirik ezagutzen gizon haren konturik.

- Memoria altxatzeko denbora eta lana behar da.

- Etxaurreko oroitarri bat erakutsi ziguten, besterik ez -eta ez zinen ausartu, oroitarri hartan ikusi zenituenak *Mutuaren hitzak* deitzen den kaier batean idatziak zenituela esatera:

LAKOIZKETA'R JOSE M^a APAIZ ZENARI
1831KO II-2'AN 1889KO XII-25'EAN
ETXE HONETAKO SEME ZEN LAKOIZKETA JAUNA
LANDARE JAKINTZAN EUSKALDUN NAGUSIENA
EUSKALDUNAK ZOR DIOGUN AIPAMENAZ
JASOTAKO OROITARRIA 1924'N URTEAN.

Izua eragiten zizun baten batek kaieraren kontua jakinez gero, nerabetzat har zintzaten, bere egunkari ezkutuan maitasun penak idazten dituen mutil edo neska koskorraren antzera.

- Aurki botako dutela etxea saihesbide berria egiteko, horixe esan ziguten etxe hartakoek. Besterik ez.

- Bai, horixe bera aditua nuen nik, galdegin-ka ibiliak zinetela han. Delako monumentu hori Bertizaranako herriak pagatu zuen eta egun horretan Academia Vascako norbait ere etorri zen zelebrazionerat. Den-denek badakite hori hemen.

- Antza, gauza guztiak dakitzazue hemen.

- Bertze kontu bat ere badakit, etxe hori ez dutela azkenean botako. Errepide berria, ondoondoan eginen badute ere, salbatuko da; zutik utziko dute.

- Nola dakizu zuk hori?

- Etxea nerea delakotz.

Zuk ederki ikusi zenuen gizonaren begiek ez zutela zirkinik ere egin, ez zutela ezer apartekorik adierazi. Ez pozik, ez bestelakorik. «Horko ardi hori nirea da», esango zukeen artzain batek baino poz gutxiago erakutsi zuela «etxea nerea delakotz», esan zuenean. Eta horretan berdintsuak zinetela biak ala biak erabaki zenuen, zeuk ere ez zenuela ezer berezirik sentitzen Zoriona zeurea zela esaten zenuen bakoitzean. Ez pozik ez bestelakorik. Etxe bat etxe bat dela. Lau horma zutin eta teilatu bat.

- Ez da sobera arrunta arrotza etortzea Lakoizketaren jakinduria ezagutu nahian. Gauzen bildumak egiten dituzula erran didazu. Ni nerone ere halaxekoa naiz. Hortakotz etorri naiz zureganat. Banuen horren errezelua.

- Zer biltzen duzu zuk?

- Denetarik, traste zaharrak, liburuak eta artelanak, batez ere.

- Horraino badakit neuk ere.

- Zuk ere aditu dituzu, orduan, hemengo zakurren saingak.

- Baliteke, bai.

- Lakoizketak Lekarozko komentuari utzi zizkion bere landare bilduma, eskuizkribu eta liburu guziak. Baina hori ere akitu zen. Zaharreria nagusitu da hemengo fraileetan; akitu dira. Badi-ra hilabete zenbait Lakoizketaren gauza guziak nere etxean ditudala. Merke jabildu nintzen, kasik debalde. Fraileek ez zekiten zer egin hainbertze gauzarekin eta Bertizko parkekoek ere ez zutela holako zerbaitendako toki egokirik erran zuten. Lakoizketaren ondoko batzuen heian harrapatu nituen urdinduak, usteltzen. Neronek daukat, bada, den-dena altxapean. Arras guti

pagaturik, gainera. Hortaz hurbildu naiz zureganat. Bakanak dira Lakoizketaren kolezioa ikusterat etortzen direnak; Bordele aldeko frantsezen bat noizean behinka. Bertzerik inor ere ez. Erraiezu Lakoizketaren izena gaurko gazteei eta ikusiko duzu. Nor izan zen ere ez baitakite. Hortaz etorri naiz zureganat, haren berri nahi baduzu, nere etxerat gonbidatuta zarela erraterat. Zuk nahi duzularik.

- Eskerrik asko, ez da aukera makala.

- Zoazi nahi duzularik Elizondorat eta galdegin Indianoaren etxea non den.

- Indianoa?

- Izen hori aldatzera entseatu nintzen etxea erosi nuelarik. Aldazenea paratu nion letra haunditan. Urte andana pasatu da ordutik hunat. Baina ez du deustako ere balio izan. Denek deitzen dute izen zaharrarekin: Indianoarena. Halaxekoak izaten dira beti kontu batzuk eta ez dira aldatzen ahal. Batek ez dezake dena bere gustora egin. Halaxe da hori. Zatoz, bada, nahi duzularik Indianoarenera. Ez duzu zertan gaztigatu. Etxe zokotik ez bainaiz kasik ateratzen. Ongi etorrria izanen zara.

- Eskerrik asko -esan zenion berriro.

Halako eskaintza aparta nola eskertu zitekeen jarri zinen pentsatzen une batez, eta tarte horixe profitatu zuen gizonak agur esan gabe alde egiteko. Etorri bezala joateko.

Ez zuen hiletara agertutako beste inor agurtu. Ez zen beste inorekin geratu hizketan. Soilik pausorik gelditu gabe bota zien irribarrerren bat edo bekainen gailurtzeren bat, begiratzen ziotenei. Herrenka joan zen eliza ondoko etxe baten ostean galdu artean.

Geroago Renault Vel Satis ilun bat ikusi zenuen bidean behera, gidari hegoamerikar bat bolantean zuela. Bizkar zabalekoa oso. Atzeko leiarretik, Joaquin Aldazen txapela ikusten zen nabarmen.

Zuk ez zenekien eta ez dakizu gauza handirik autoei buruz, ez zenituen bereizten Ford bat eta Volkswagen bat, baina eginak zenezkan ametsen artean zegoen, noizbait diru gurdikada bat erortzen bazitzaizun zerutik, Vel Satis dotore horietako bat erosiko zenuela. Luxu hutsa zen, frantsesen erara emana, auto eder hori.

Alabaina beste bihozkada bat ere piztu zitzai-
zun barnean, Damian. Guztiz ezinezkoa zen,
baina irudipena zeneukan gizon hura lehenago-
tik ere ezagutzen zenuela. Non edo non ikusita
zeneukala haren aurpegi erdibitu beldurgarria.

Ezinezkoa zen, baina. Ezinezkoa zen halako
pitzatu izugarri bat behin ikusi eta gero aurpegi
hura ahaztea. Ezinezkoa zen halako tarratadaren
irudia burutik ezabatzea. Guztiz ezinezkoa.

«Ordu txikietan idazten dihardut nire gelako
mahaiaren gainean. Ezin dut lorik egin. Zerbai-
tek ernegatzen nau eta ez dakit xuxen zerk. Egia
da gaur izan direla Senperen aldeko hileta elizki-
zunak, eta galdu egin dudala zerbait Senperen
heriotzarekin. Baina ez nuen hainbeste ere eza-
gutzen. Irudipena daukat, hala ere, lagun egite-
ko moduko gizona zela niretzat Senpe. Harekin
joan direla bertakotzeko nituen aukera bikainak.

Leon ez dago hain hunkiturik. «Afrusa!» esan
zuen hasieran, baina gerora ez dio txori bat hilda
aurkitzeari baino pisu handiagoa eman Senperen
heriotzari. Egia esan, gero eta urrunago dago

Leon leku guztietatik. Soilik pintura du gogoan, haren familiak ere ikusi du hori. Lau alabek udako oporrak hartu dituzten arren, ez emaztea eta ez eurak ez dira Otsoenera agertu hilabete osoan. Zertarako etorriko dira Leonek bere koa-droa baizik ez badu buruan?

Orain ulertzen dut askotan entzundako hori, artista batekin bizitzea zaila dela. Iruditzen zait, artista lanean ari denean, ez dela egoten ahal beste ezertan. Bai, kasu egingo dizu, hau eta bestea esango dizkizu, zure alboan joango da, baina finean ez da sekula hor egoten. Ordezko norbait izaten da, bizitzaren gauza orotarako bere lekua hartzen duena. Bi neurri izaten ditu haren bizitzak, eta bietan nagusi artearekin bizi duen hura izaten da, batere zalantzarik gabe.

Leon gizon ona da, aspalditik dago bailara honetan txertatuta, baina bera ere Don Joaquinen palmondo handiena bezain arrotza da paraje honetan. Txorimalo jantzita ere nabari luke ez dela hemengoa. Frantsesa dela, eta familia onekoa. Horrelaxe ikusten dute arizkundarrek. Pintore bat, artista bat, sekula ez da izango bertakoa. Ederki ikusten dut nik hori Baleztenekoen

begietan. Ez nuke esango Leon maite ez dutenik. Hainbestekorik ez, gaztetandik ezagutzen dute hemen, baina jakin nahi nuke benetan zer pentsatzen duen Tomas danbolindariak, edo Mariak berak, ostatuko jabeak.

Zer esanik ez nitaz. Nitaz esaten dutena jakin nahiko nuke. Auskalo. Beste ero bat, pentsatuko dute, beste Lakoizketa moduko bat. Entomologo hitza entzun zutenetik, haren ezpalekoa naizela usteko dute. Izan ere, horixe bakarrik jakin ahal izan dut orain arte, inguru hauetan, erotzat zeukatela Lakoizketa botanikoa. Narbarteko familia on bateko seme izaki, bertako erretore izatera iritsi zela, baina elizako lanak amaitu bezain azkar, atzera eta aurrera ibiltzen zela bera bakarrik mendian eta erreka zokoetan. Sotana beltz beti zikin batekin, arima galdua zirudiela. Mateo Txistu berritu bat. Uzkur eta isil, inorekin belarrez besteko mintzaldirik ez omen zuen egiten hark. Beti eskumakila, aiztoa eta mailu txiki bat lagun zituela. Eta zaku bat ere bai bizkarrean, biltzen zituen landareak garraiatzeko.

Inguruetako haurrak izutu nahi zituztenean, «Lakoizketa etorriko da bere zakuarekin» esaten

omen zieten. Hark eramango zituela berarekin hartuta, auskalo nora.

Leonek entretenigarri bat jarri zidan aukeran. Arizkunen asper ez nendin aipatu zidan Lakoizketa. Orain ezin du ulertu nire jakin-min neurri-gabe hau. Ezin du ulertu ni bezalako gizon batek halako gauzetan bakarrik aurkitzea atsegina.

Niretzat ikaragarria da Lakoizketa. Oraindik ez ditut ezagutzen haren lanak, soilik liburu bakar bat aurkitu dut, Balezteneko liburu apurren artean hautsak ito behar zuena. Hementxe daukat esku artean: *Catálogo de las plantas que espontáneamente crecen en el Valle de Vertizarrana. Madrid 1885. Don José María de Lacoizqueta, Presbítero, Rector de Narvarte, Miembro de la Sociedad francesa de Botánica, Socio correspondiente de la Linneana de Madrid é individuo de la Española de Historia natural.*

Hala ere, zorotzat zeukaten gizona inguru hauetan. Botanikaz gehien zekien doktorea, sakamantekas bihurturik. Mariak eta Tomasek kantu zahar bat ere ekarri zuten behin ezpaine-tara hari buruz zihardutenean.

Egia errateko, berrogei urte baditu
Lakoizketa apez jauna ezagutu nuela.
Orduko gazteek, burutik xilatua zagola
uste ginuen,
eta ar gatik gaten ginen arren ondotik,
urruti bederen
belayez-belai ikusten ginuelarik
belayez belai, ai, oi, ai...

Lakoizketa erua, esaten ei zioten. Batez ere, oraindik gazte zela, hemiplegia batek jo eta erdi elbarri eta ia hitz egin ezinda geratu zenetik. Ikustekoa izango zen, herrenka eta inori begietara behatu gabe, Quasimodo oker baten moduan, mendian gora eta behera ikustea bere sotana zaharrarekin, beti belar berri baten desioan. Besteek zapaldu baino egiten ez zituzten landareak, urrea balira bezala kutxatxo batean gordetzen eta haien mintz eta ertzetan begiak galdurik. Itsutu arte.

Ulertzekoa da herritarrek apez hura erotzat hartu izana, eroa behar baitzuen etxetik zetozkion aberastasun oro alboratu eta gorputza oker-

oker eginik, hitz egin ezinda eta bakarrik, mendian belar, hosto eta lahar ehizan ibiltzeko.

Nork ulertuko zuen horrelako gauza bat XIX. mende amaierako Baztanen? Gaur ere ez dago ulertzen erraza.

Nik bai. Ondo ulertzen dut horrelako gauza bat. Ezaguna egiten zait bilduma batekin itsutzeara. Bilduma bat egitearekin zeharo mozkortu eta beste ezer ez ikustea munduan, bilduma egiteko oldarrak menperatzea gainerako grina guztiak, nola otsaileko elurrak soroetako berdea».

ZAIN

Damian Arrutiri atzerapenez iritsi zitzaion Senperena zaharrari Iruñean egin zioten autopsiaren agiria. Edo haren kopia bat. Hogei eguneko atzerapenaz. Domingo Senperena, gizakiengandik baino, basurdeetatik hurbilagoa zen basagizona, ederki usteltzen jarrita egongo zen lurpean ordu-rako.

Damianek Urrutikoetxea komisarioari deitu behar izan zion autopsiaren kopia hura lortu ahal izateko. Donostiara. Mesedea eskatzeko. «Urruti aspaldikoa, egingo al didazu mesede?». Ez zekien nora jo bestela, nork lor ziezaiokeen halako dokumenturik Urruti komisarioa izan ezean. Eta Urrutik baietz, Ertzaintzak eta Nafarroako Polizia Judizialak ez dituztela harreman bereziki zintzoak, baina ahal dena egiten saiatuko zela. Egingo ziola mesedea. Eskatuko zuela Senperena izeneko arizkundarraren autopsia. Edo haren kopia bat.

- Nor da, ba, Senperena hori? -lehenengo galdera komisarioak.

Ondoren galdeketa luzeagoa etorri zen Urrutikoetxearen ahotik.

- Non zabilta sartuta? Non ezkutatu zara hainbeste denboran? -eta gainerako kaka zahar guztia: Damianen beharretan izan direla behin baino gehiagotan Ertzaintzakoak. Elgoibarren, esaterako, Albitxuriko zabortegian, magrebiar baten gorpua agertu zela duela bi hilabete (zaborrak arakatzetik bizi zen andre zahar batek aurkitu zuela, gaizoak), eta antzik ezin hartuta dabilzala haren heriotzaren data zehatzari. Us-telduta agertu zela gorpua. Lasarten ere, trenbide ertz batean, giza-enbor bat agertu zela duela hamabost egun eta ea nola konponduko ziren Arruti entomologoaren laguntzarik gabetan. Ea nork lagunduko zien agertutako guztien heriotza egunak erabakitzen. Bere beharretan zirela eta itzultzeko azkar baino lehen. Donostiara.

Damianek ezetz. Lanik egin ezinik jarraitzen duela. Makalik. Eztarria zaindu nahi duela. Ez zaiola oraindik ebakuntzatik bere onera etorri. Eta gauzak lasai hartzeko agindu diola medikuak, lehenengo indartu beharra dagoela beste guztia konpondu nahi bada.

Bi astean behin egiten diola bisita Poliklinika-ko medikuari endoskopioa egin diezaion. Ezta rrian behera. Sudurretik barnera. Ahots-kordetaraino. Horretarako bakarrik joaten dela Donostia-ra. Gainerakoan nahiago duela Baztango bakea. Eta ez dela oraindik lanean hasteko prest. Pitztuta daukala ahotsa. Eta min egiten diola hitz egite hutsak. Barkatzeko baina horrelaxe daudela gauzak, oraingoz. Eta fax zenbaki bat baino ez Urruti komisarioarentzat. 948374563. Nafarroakoa. Elizondokoa. Aldaz Hotelekoa. Ezetz, ez dagoela hotel horretan bizitzen jarrita, Ertzaintzaren soldadak ez duela horretarako beste ematen, baina duela egun batzuk egindako lagun batena dela hotela eta horraxe bidaltzeko autopsiaren kopia bat. Lehenbailehen. Ez daukala besterik nora. Autopsiaren emaitza lortzen duenean. Lortzea lortzen badu, behintzat.

Eta Urrutikoetxea komisarioak baietz, egingo zituela horretarako ahaleginak. Baina hori eta gero galdera bat utzi zuen airean, ustekabeko zaparradaren antzera erori zena, goitik behera,

- Aspaldian ikusi al duzu Lupe? Emakume horrek badauka zure beharra.

Damian Arrutik eskegi egin zuen telefonoa, klik. Eta barnea inguratzen zion izotz moduko bat, pitzatu egin zitzaion, klak.

Joaquin Aldaz berak hots egin zion Baleztene-ko telefonora:

- Fax bat ailegatu da zuretako gure hotelerat, nahi duzularik etorri bila.

- Oraintxe bertan joango naiz -Damianen erantzuna.

Baina autopsiaren paperak ez zekarren ezer apartekorik. Soilik bukaeran, eskuz idatzitako gehigarri bat, faxak utzi ohi duen tinta arrastoen artean doiki irakur zitekeena: «Muxu bat. Lupe». Horixe. Muxu bat bidaltzen ziola Lupe Latasak fax haren amaiera aldean. Seguruenera hari aginduko zion Urrutikoetxea komisarioak Damiani faxa bidaltzeko. Ez da dirudien bezain zozoa Urruti hori, pentsatu zuen Damianek.

Beste ezer erabakitzeko astirik hartu gabe, irrikari egin zion bidea Damianek: Senperena zaharraren autopsia irakurri zuen goitik behera.

Ohituta zegoen ederki halako papertzarretara. Bazekien sarrerakoak salto egin eta mamia non egoten den, autopsia agirien hasieretan ohi-

koa baizik ez dela agertzen beti: norena den gorpua, non eta nola aurkitu zuten, zein epailek jaso zuen hilotza, zergatik agindu zuen autopsia eta hori guztia. Azterketa burutu duten forentseen izen-deiturak eta karguak etorri ohi dira gero eta, azkenez, autopsia egin deneko leku eta datari buruzkoak. Horiek guztiak salto eginez joan zen mamira.

Hala ere, ezer nabarmenik ez. Senperenaren biriketan aurkitutako ura Bidasoa ibaiko zela. Itota aurkitu zuten lekutik eramandako lagineta-koen berdina zela, alegia. Berdin-berdina. Ur bera zela biriketako eta putzuko. Soilik hiru ohar amaiera aldera.

Bat: Senperenak, lepoan eta bizkarrean, ubeldu txiki batzuk zituela. Jatorri ezezaguneko ubeldurak. Bazitekeela sorbaldan eramandako zamaren batek (motxila, otarra edo bestelako zerbaitek) utzitako arrastoak izatea, baina ez zegoela ezer ziurtatzerik. Animalia ezezagun batek egindako markak ere bazituela, aurpegian eta eskuturretan. Karramarroak behintzat ez zirela zauri haien egileak, izan ere, hauek, gorpuetan pitzatuak egin eta handik elikatzen baitira usu.

Aldiz, Senperena jaunak ageri zituen hozkadak, zuloak zirela, azala eta haragia, biak aldi berean kendu zitzaizkiola han eta hemen, batez ere begien inguruan eta aurpegiko gainerako geruza bigunenetan.

Bi: Gorpua aurkitu zuten lekuan aurkitu zutelako, baso-zulo bateko errekan, normala zela zomorro batzuk ere aurkitu izana haren arropetan eta azalean itsatsita. Hala ere, soinean aurkitu zizkioten zomorroen zerrenda ez zen oso luzea: bi *Musca argentea*, lau izain, bi zizare arrunt txiki eta *Fibula rododendris* izeneko har bat.

Eta hiru: odolean aurkitutako beste gauza bat ere bai. Argi zetorren azterketetan, neurritz gainezko metal kontzentrazioa zeukala Senperenak zainetan barrena. Giltzurrunetan eta gibelean. Beruna, kromoa eta kobrea, batez ere. Giza odolak izaten duenaren oso gaintekoa. Are gehiago, txostenaren arabera, giltzurrunetatik eta gibeletik gora hedaturik zegoela zeharo zirrosia, gizona itota hil zenean.

Azken hori zergatik zen bazekien Damianek. Ez zen harritzekoa. Senpe zaharra ohituta zegoen ibaian arrantzatzen zuenetik jatera. Baztango

izokina eta amuarraina jatera, alegia. Hortik zertorkion metalen gehiegizkoa. Ederki zekien hori Damianek, Senpek eman eta berak hozkailuan edukitako izokinari egindako azterketaren arabera.

- Deus berririk bai? - galdegin zion Joaquin Aldazek.

- Ohikoa -erantzuna Damianek-. Itota hil zela Senperena zaharra.

Hoteletik Otsoenera itzuli zenean, ez zuen Leon Karrika etxean aurkitu. Pintatzera irtenda egongo zen. Ohi zuen eran. Soilik Argos zakurrak egin zion harrera. Hura hain buztanarin ikusita, ematen zuen hangoxea zela. Otsoenekoa. Betikotua zela azkenean, arrotza zitzaion leku hartan.

- Zakur kaikua, toma txokora! -esan zion Damianek, eta zakurra, aldendu orde, hurbildu zitzaiotzanean, fereka egin zion bizkarrean, bere gelan sartu eta idazten hasi aitzinetik.

«Gaur jaso ditut Senpe zaharraren autopsiaren emaitzak. Lupek musu bat bidali dit agirian ber-

tan. Ez da, ez, lekurik aproposena muxuka ibiltzeko. Ez diot deituko, hala ere. Zertarako deitu? Betikoa esateko? Zer esango diot? Zer da, bada, maitasuna ez den hau? Lilura apur bat hastapeanean, ohitura gero eta, azkenean, eroapena. Horrelaxe izaten da hori beti. Inor ez da libratzen horretatik. Lupe eta neu ere ez ginateke libratuko.

Ikasita nago. Alfertuta nago halako gauzetan berriz sartzen ibiltzeko. Ez, ez diot Luperi deituko. Nire haragia ohituta dago. Gabeziak ez nau oldartzen dagoeneko. Artorik jaten ez duen zaldia baino, belar apur batez bizi den astoa da nirea. Tarteka. Konformatu egiten da horrela.

Bihotza eta gogoa ere, eginda dauzkat Leon Karrikaren alboan bizi dudan bakardade honetara. Jada ez naiz lehenagokoa. Ezin ditut eraman inorenak. Neureak nahikoa eta gehiegi ditut.

Autopsia iritsi zait, bai, eta agiri horretan daude Senperen odol azterketaren emaitzak. Berak emandako izokinari egin nion azterketan ikusitakoarekin bat datoz. Beruna, kromoa eta kobrea neurriaren gainetik. Gizakia hiltzeko mo-

duko kontzentrazioan. Itota hil gabe ere, Senpek ez zeukan urruti finiera.

Ez da ulertzekoa Bidasoako izokinak metal kopuru hori izatea bere baitan. Ez da normala. Nik uler ez dezakedan zerbait ari da hemen gertatzen. Ezin dut erabaki izokin batzuek zergatik duten hainbeste metal eta beste batzuek ez. Zergatik diren ezberdinak batzuk eta besteak. Ez dakit, azken finean, izokin berria nondik datorren edo nola sortua den. Nola den sartu Baztan honetara.

Aztertu ditudan izokin guztiak espezie eta tamaina berekoak dira: Atlantikoak. Batzuek, hala ere, metal kontzentrazio ezinezkoa dute haragian. Ageriko ezberdintasuna ere badutela esan zidan Senpek, hilda agertu baino lehenago. Izokin berria azkarrago hazten dela ere esan zidan. «Laster bera nagusituko duk bazter guzietan, ez duk erreka hunetan bertzelakorik geldituko», esan zidan. Handiagoa ez, baina bortitzagoa dela izokin berria. Gupidarik gabe erasotzen diola bertakoari. Eta sekula ez bezala, izokin zaurituak harrapatzea egokitu zitzaiola maiz. Batak zauria begian, besteak sabel aldean... «Abila duk

izokin berri hori, Damian, zati gurietan egiten dik beti ausiki».

Senpe hizketan hala entzundakoan, izokin Atlantikoa baino, *Chinook* izokina etortzen zitzaidan gogora. *Chinook* izokina da beste izokinei olerdartzan zaien bakarra. *Chinook* izokina da Senperen gorpuari uretan kosk egin diezaiokeen bakarretakoa.

Ezinezkoa da baina. *Chinook* izokinak ur hoztagoak behar ditu, Alaska aldekoak, eta, gainera, aztertu ditudan ale guztiak, izan metaldun edo metal gabeko, denak ziren bertako espeziekoak. Itxura batean.

Bururatzan zaidan bakarrak ez dauka ez hanka eta ez bururik: mutazio genetiko bat. *Chinook* izokinaren geneak gehitu dizkiotela Atlantikoari. Edo antzeko zerbait. Baina ezinezkoa da hori. Zientziak eta ingeniariak genetikoak ez dute oraindik eman hainbesteko saltorik landareetatik animalietara. Ez daude hain aurreraturik. Nik dakidala, behintzat.

Eta gainera, nor da gai halako gauza bat Baztango izokinarekin egiteko? Eta zergatik edo zertarako?»

ZOIN

«Lau hilabete badira bazter toki honetara etorri nintzenetik, Leonek bere etxean hartu ninduenetik. Lau hilabete behar izan ditut Leonen lanak beste era batera begiratzen hasteko, artista handia dela onartzeko. Damu naiz orain arte esan dizkiodan guztiez, arinkeriaz eta ezjakintasunez bota dizkiodan hitzez.

Niretzat Ziburuko aberaskume bat baizik ez da izan beti Leon. Gizon ona bai, baina aberaskumea, azken finean. Amaren aldeko erro nafarrak ez galtze aldera, Arizkunen bigarren etxea erosi duen adiskidea.

Orain badakit bigarren etxe hau bilakatu zaiola nagusi eta Arizkungo Otsoenea duela egiazko kaiola. Atzo jakin nuen hori guztia. Garbi ikusi nuen. Ez dakit bera konturatuta ote dagoen. Ez dit, behintzat, sekula halakorik erakutsi.

Bai, ziur nago erraturik egin duela Leonek orain arteko bidea. Badakit ez duela hemendik sekula alde egingo eta badakit, halaber, lana eta familia ere Ziburun utziko dituela betiko. Atzo

konturatu nintzen pinturan baino ez duela lekurik aurkitzen ahal Leon Karrikak. Inon aurkitzekotan.

Itsu dago. Erotzen hasita dago. Munduak ez dauka ezer berarentzat, morfina tanto eta pilula horiek izan ezean. Eta pintura: oihalezko lauki bat eta kaxa bete margo. Horixe da dena.

Ez dago hemen erosi behar diot Leoni. Zenbat balioko du?

Oraindik goiztxo da, ordea, horretaz hitz egiten hasteko. Bero-bero dago bere azken lanarekin. Erosi eta gero, Joaquin Aldazi deitu behar diot lehenbailehen, koadroa ikustera etor dadin, ea zer iruditzen zaion jakiteko. Asko gustatuko zaio. Seguru nago».

Damian Arrutik, *seguru nago* idatzi eta gero, denbora egin zuen bere kaierari begira. Hurrengo orri garbia ere jiratu zuen idazteko toki bila, baina alde batera utzi zuen, azkenez, bolaluma. Jabetzen zen ezin zuela asmatu modua azken hila beteetan gertatutako guztia bere koadernoan idazteko. Arizkun aldera etorri baino lehenagoko

guztiak ez zitzaizkiola mutuaren hitz haietan sartzen. Bera ez zela idazlea ere bazekien ederki, baina, hala ere koska ez zegoen horretan. Errua iraganaren pisu ezak baizik ez zeukan. Halaxe uste zuen. Bere bizitzak azken aldera ezagututako denboraren abiadurak ezinezkoa egiten ziola idazketa. Edo orainaren indarrak irensten ziola guztia. Nahiago den bezala. Ezta, Damian?

Ez zenekien garbi-garbi zer egiten zenuen oraindik Arizkunen, Leon Karrikaren etxean hainbeste denboran. Mundura itzuli ezinda.

Eztarria hobeto zeneukan, askozaz ere. Pitzaturik, baina ahotsa itzulia zitzaizun aspaldi, eta inork ez zizun antzemango hilabete batzuk lehenago mutu geratzeko zorian egondakoa zinenik. Hala ere, konturatuta zinen ezin zenuela lehenago bezala ibili ahotsarekin. Kaka zaharra, ahotsa. Moto zahar baten drundotsa dirudi. Ezin zenuela kantatu edo ezer ahots goraz esan. Jende askoko bileretan, Baleztenean eta, isilik geratzen zirela, zure ahotsarekin besteen artean lehiatu ezinda.

Ez zenekien, halaber, noiz arte iraungo zizun gonbidatu-egoera horrek. Leon ere aspertuko

zen noizbait zure konpainiaz. Ala ez? Ala ongi zertorkion Leoni zure lagunartea? Hori ere ez zenekien argi.

Errekaren lekuan, osina zuen orain gai Leonek. Zingira, idoia, putzua, lakua. Ur geldia. Horretaraxe irten zen etxetik goizean goiz, txorien orduan. Monetek erabilitako gai ospetsu bera erabili eta hura gainditzera. Ustez bederen.

- Besteek eginda dagoena ez badik hobetzen, artelanak ez dik fitsik balio -esan zizun bart, eta zu ikaratu egin zinen lagunak bere buruari ezarritako langintzarekin.

- Har ezak gai errazago bat, Leon. Ez daukak handienekin lehiatzen ibili beharrik.

- Oh putain!, ni ez nauk hire antzeko ezindu bat -erantzun zizun.

Purrustaka altxatu zen Leon Karrika egongelatik eta purrustaka hartu zuen oherako bidea zu eta Argos bakarrik utzita. Orduantxe konturatu zinen, Damian, Leon hasita zegoela zurekin gogaitzen. Egia esan, gainerako beste guztiarekin ere bazegoela gogaituta aspalditik, bere buruarekin, batez ere, eta soilik egin behar zuen osinaren koadro berri hartan zeuzkala jarrita gogoia,

adimena eta zentzuak oro. Ihesbiderik inon bazen, hantxe zeukala itxaropena. Egin nahi zuen koadro hura lortzearen arabera aurkituko zuela Leonek bizipoza edo nahigabea.

Eta bazitekeela, pentsatu zenuen, bazitekeela, bi gizonezkoren arteko bizimoduak eragindako txinpartak baino harago, Leonek arrazoia edukitzea eta zu benetan ezindua izatea. Gauza guztietarako elbarriturik bizitzea. Ezerk ez baitzizun jada kilikarik egiten. Lehengora itzultzeak ez. Arizkunen geratzeak ere ez. Ezdeusaren eta ezerezaren arteko harian zenbiltzan dilindan, Damian. Hutsaren lurralde arriskugarrian. Betiko moduan.

Domingo Senperenaren heriotzaren egunetik, gauzak ez ziren beti bezalakoak izaten Baleztenean, horixe esaten zuen Tomasek, Tomas dandolindariak.

- Salbaia zen, baina gizon ona, Senpe zaharra. Beti bazuen zer kontatua.

- Umore mikatzegia zeukan, aukeran -gehitu zuen bere iritzia Maria Baleztenekoak.

Leon Karrikak ez zion lehen beste laguntzen tabernara Damiani. Gainera, lehen ez bezala, Leonek erregutu egiten zion bakarrik uzteko margotzeko orduan eta, bai, Damian ere ohartzen zen Senpe gabe tabernako elkarretaratzeak ez zirela lehengoan antzekoak. Haren heriotzarekin, arrotzagoa zen orain. Atea irekitzeko maratarik gabe geratua zela.

Senpe isilik egoten zen gehienetan, ele gutxi-koa zen agurea, baina hitz egiten zuen bakoitzean, aizkorakada ematen zion solasari. Onerako nahiz txarrerako. Epeletik gutxi zeukan gizon hark.

Umorea ere halakoxea zeukan, sagar gaziarren ezpalekoa. Ezta, Damian?

Egun batean hizpide izan zuen Tomas danbolindariak, herriko gazteek ekainaren hastapenetik San Joanak pasatu arte egin asmo zuten txondorra. Piztuta ikusi nahi zuten txondor itzela. Herriko zahar batzuek lagunduta egin zuten egurra pilatzeko lan hori, tartean zelarik Senperena bera. Baztango Kultur Taldeak eskatuta egin zuten lan hura eta bertara bildu ziren inguruko

egunkari, aldizkari eta telebistak, sua piztu zuten egunean.

Zaharrena zelako edo, denek zuten Senpe el-karrizketatzeko gogoia. Ez zuten halakorik lortu, ordea. Esaldi bakar batzuk baino ez Senperenaren ahotik:

- Ikaztegia uda bezperagoan! Jende ero franko bazterretan, gero. -Edota bestela:- Etnografia erraten diote orain ikatzari.

Elkarrizketei uko egiteagatik, Tomas danbolindariak behin baino gehiagotan esaten zion aukera ederra galdu zuela telebista pantailetan agertu eta famatzeko. Honezkero ez zuela sekula izango beste aukerarik halako gauzetarako.

- Herori ere Iruñeko orkestra sinfonikoan danborra jo gabe hilen haiz, eta nik ez diat hortaz deus erraten -izaten zen Senperen erantzun zakar bakarra.

Zuk, orduan, gauzak bere girora ekartzeko, txondorra zenbat denbora egongo ote zen piztuta galdegin zenion behin. Ez baitzenekien egunak edo asteak beharko zituen egur hark guztiak ikatz bihurtzeko. San Joan eguna pasatuta ere,

txondorraren sabelean suak iraungo zuela esaten zuten batzuek.

- Noiz arte egongo da piztuta txondorra?
-galdegin zenion Senperenari.

- Noiz artio piztua? Itzali artio!

Tomas danbolindariaren algarak eta Mariaren irriak eragin zituen Senperenaren bat-bateko erantzunak. Ondoko mahaietan zeudenek ere ezin eutsi izan zioten barreari eta zeu izan zinen, Damian, liturgia menditar hartan bere burua guztiz kanpo ikusi zuen bakarra.

Orain, Senperen purrustada haiek gabe, Baletzenea ez da lehengo lekua bera. Tomas danbolindarien hitzetan esateko,

- Batere egurrik gabe gelditu zaiguk hemen-
go labea, Arruti.

«EZ dakit zergatik, baina izokinen kontu honek badauka zer ikusirik Senperen heriotzarekin. Egia esan, ez dut sinesten, ezin dut sinetsi, berez itota hil zenik, txoria ez daiteke eta berez hegan hil.

Tomas danbolindariari esaten hasi naiz, Senpek izokin harrigarri bat eman zidala azternezan, metalez kargatutako izokin ezinezko bat. Berari ez horrelakorik aipatzeko erantzun dit. Ez duela kontu horiez fitsik jakin nahi. Maria Baleztenekoak ere alde egin du sukaldera, zapiaz eskuak igurtziz batera. Alde egin du mostradoretik gure kontuak utzita.

Senpe berez hil bazen, zergatik atzeman zizkioten bizkarreko arrasto haiek autopsian? Eta bada beste kontu bat ere. Atzo Mariputzuko zubi inguruetan ibili nintzen begira, han ez dago errodo-dendrorik bazterretan. Ez han eta ez inguru guztian. Gora eta behera ibili nintzen bazterrak arakutzen. Leku laiotzetan, batez ere, itzalik gabe ez baitaki landare horrek aurrera egiten. Beko-Errotaraino ere iritsi nintzen, inon errodo-dendrorik aurkitu gabe. Nola edo nondik sartu zitzaion Senperi arropa artean aurkitu zioten *Fibula rododendris* hura?

Har horrek ez daki errodo-dendrotik bi metro urrunduta bizitzen. Landarearen izerdirik jan gabetan, hil egiten da ordu gutxitan. Fibula hitzak horixe esan nahi du, ez besterik, landare baten

menpekoa dela zomorroa zeharo, haren zainetatik xurgatuz, edo hosto berriak janez, dela elikatzen. Normalean historik galtzen ez duten landareen bizkarroi izaten dira Fibulak. Errododendroak lorea bai, baina ez du galtzen historik.

Fibula rododendris. Non daude Arizkunen errododendroak?». ».

Egunak baziren Damian bakarrik etortzen zela Baleztenera. Leon, margotzeko guztiak hartuta, goizean goizetik desagertzen zen etxetik eta ez zen itzultzen iluntzeraino. Nora zihoan ere ez zion erakusten lagunari. «Monet-en sukarra daukak gorputzean sartuta», aipatu zion behin Damianek, zerbait esate aldera, baina erantzun ere ez zion egiten askotan Karrikak. Purrustadaren bat, gehienez ere.

Ez zen bere kontua, baina Damian jabetzen zen egunero hartzen zituen morfina tanto haiek, gozatu baino, garrastu egiten zutela Leonen aldartea. Jada ez zela hilabete batzuk lehenagoko gizon adeitsua bera. Minez segitzen zuen, iduneko plastikozkoak eragotzi egiten zion mugimen-

durik txikiena ere, baina, hala ere, ustekabean burua jirutzen zuenean, biraoa irteten zen haren ahotik: «Oh putain!». Seguru asko, gainera, Ziburuko aldean gauzak ez ziren egongo gozoak Leonentzat. Emaztearekin zarataka sumatu zuen eta behin telefonoan. Bortizki eskegitzen ere bai, beste batean. Eta, batez ere, agerikoa zen osina margotzen ez asmatzeak, ernegatu egiten zuela gizona.

- Errekarena bezala, asmatuko duk oraingo hau ere -esan izan zion Damianek, apur bat laguntze aldera-. Hura ere ederki kostata atera zitzaian.

-Oh putain, zer ote dakik hik horretaz!

Emakumearekin ez bezala, bi gizona koren arteko lagun arteak horixe dauka, pentsatu zuen Damianek, arnasa luzeko harremana izan arren, ez duela haragizko ezerk berritzen sekula. Eta behin maldan behera amiltzen hasten delarik, ez daukala hondoa jo arte geratzerik. Batak bestearekin, edo biek elkarri, zaunka eta kosk egin arte, ez dagoela itzulbiderik.

Noizbait konponduko da agian. Edo ez. Baina, nolana den, hondoa jo behar du lehendabizi.

Zer egiten duzu oraindik hor, Damian, inork nahi ez zaituen lekuan?

BELE

Goizero Indianoaren etxera joateko ohitura hori errotu egin zaizu zainetan, Damian. Esazu egia. Liluratuta zaude etxearekin eta liluratuta zaude gizonarekin, Joaquin Aldazekin.

«Heure etxean hago» esan, eta Lakoizketaren belar bilduma eta idatziak gordetzen dituen salan bakarrik utzi zintuenetik, zeure egiazko lekuan egoten zarela ederki dakizu. Usaina, argia, belar-kutxak, beirategiak, eskuizkribuak... dena zaizu laket. Zeure etxean bezala zaude hemen, ezta, Damian? Ala, han baino hobeto egoten zarela esan behar ote nuke? Zorionan baino zorion gehiago kausitzen duzula hemen?

Aldazek etxe osoa erakutsi zizun, edo ia osoa. Salaz sala ibili zineten jauregian, pinturen lekuan lehenbizi, liburutegian gero, eta, azkenik, Lakoizketari eskainitakoan. Korridore argitsuetan barrena, altzari ingeles eta frantsesak nabaritzen ziren nonahi, brontzezko eskultura klasikoak eta berriagoak ere bai, material ezberdinez egindakoak...

Gehienak inguruetako artisten lanak ziren, baina baziren ospetsuagoenak ere. Arteaz gauza handirik ez dakizu, baina ez da aditua izan behar, bazter batean, eroria bezala, Oteizaren kutxa metafisikoetako bati erreparatzeko. Hala ere, gehien harritu zintuena, korridore baten amaieran ikusitako koadro bat izan zen. Hura, edo, behinik behin, haren oso antzekoak ikusiak zenituen katalogoetan. David Hockney-ren aspaldiko piszinetako bat zen, eta bat-batean otu zitzaizun oraindik ez zeniola neurri egokia hartu Joaquin Aldazi. Hockneyren lanak baldin bazituen etxean, bazitekeela zeu baino gazteagoa izatea gizon zahar hura.

Koadroa atsegin zitzaizula esan zenionean, beste bi lan txikiago ere bazituela erantzun zizun, tartean autoerretratu bat, gazte zenekoa. Erakutsiko zizkizula geroago, bere logelan zintzilikatuta. Egia esan behar bazuen, Hockneyren lanak asebetetzen zuela denen artetik gehien, baina, zoritxarrez, garestiegiak zirela berarentzat.

Noiz edo behin emakume txiki xamar eta beltzaran bat ikusten zen atzera-aurrera, eta Sen-

peren hileta egunean autoa gidatzen ikusitako hegoamerikarra ere ikusi zenuen, plastikozko zorro batean zekartzan erosketak sukaldera eramaten. Biek ala biek ez zuten zaratarik batere egiten harat-honatean. Ematen zuen lurrik ere ez zutela ukitzen pausoarekin.

Joaquinek ez zizun deus esan haiei buruz, baina afaltzera geratu zinen egun batean konturatu zinen, hiru haur ere bazirela etxe hartan, eskolatik bueltan etorriak. Gaizki diot, haur haiek ez ziren etxe hartakoak, ondoko etxe txikiago batekoak baizik. *La casita* esaten zioten eurek, Arraiturre izena ateburuan zizelkatua bazuen ere. Han bizi zen zerbitzarien familia: ama, aita eta hiru seme-alaba. Katalina eta Moises, Idurmendiko zure auzoak, etorri zitzaizkizun gogora haiek ikusitakoan. Joaquin Aldaz zaharra zen zure aldean, jakina, baina bazeukan zeurekin antzekotasunik: gizona bakarrik, mirabez inguraturik. Ganorazko deus antolatu ezin duenaren patua.

«Gizona ez da kapable bakarrik bizitzeko, Damian» esan zizun Joaquin Aldazek, «Nerekin daude azkeneko hamabi urteotan eta zinez erra-

ten dizut ez duzula harrapatuko munduan jende peruanoa baino zintzoagorik, leialagorik, langileagorik. Egiezu keinu bat eta prest duzu dena, dela jateko, dela edateko. Manaiezu zerbait eta harrituko zara holakoen prestutasunarekin. Ez, munduan bertze inon ez da halako jenderik».

Afariak erakutsi zizun Joaquin Aldazi buruz susmatzen zenuena egia zela. Gizon hura ez zen edonor, gizon hura ez zen edonolakoa. Kotoizko alkandora zuri batez jantzirik agertu zitzaizun jangelara eta, ohi ez bezala, galtzetan sartu gabe zekarren alkandora apaina, lihozko galtza ilunen gaineko aldetik arnasturik. Egiazko india-noa zirudiela pentsatu zenuen istant batez, baina haren oinetan ezarri zenituenean begiak, Marrakexen usu ikusten diren urre koloreko babutxa landuak ikusi zenizkion, eta une hartan erabaki zenuen inor ez zeneukala hain dotorerik zeure inguruan. Nolabait esateko, gizon hark berak hartzen zituela erabakiak, inori begira egon gabe. Zekarren jasa ez zitekeela izan inon ikusi edo ikasitakoa, adorea eta segurantzia ere behar baitziren, horrela jantzirik, eskuan makila eta buruan txapela, agertzeko. Eta, bai, bi horiek

ere bat egiten zuten Elizondoko zahar batengan sekula usteko ez zenuen dotorezia itzelarekin. Aurpegi zartatu haren begiek, argi egiten zizuten, garbi, hortz zuri-zuri irribarretsu batzuen gainetik.

- Zenbat urte ditudala jotzen duzu? -galdetu zizun, bat-batean, Jurançon ardo zuri bat ireki eta zerbitzatzan zuelarik.

Arnas egin zenuen. Ez zenekien mila edo ehun esan behar ote zenuenetz, eta, badaezpada, hirurogeita hamarren bat edukiko zituela esan zenuen.

- Gehiago, aunitzez ere gehiago -erantzun zizun.

- Hirurogeita hamabost -esan zenuen orduan.

- Gehiago, oraino ere.

- Ehun! -esan zenion barre artean. Ez zenuen nahi hankasartzerik.

- Horrenbertze ere ez!

Eta hor zaude orain, zenbat urte dituen jakin gabe, ardo zuri azukrezkoa eman baitzizun gero edalontzi fin batean.

Asmatu, agian bai, asmatuko zenuke, baina zehatz jakin ezinda zaude zenbat diren Joaquin Aldazen urteak. Eduki ditzake hirurogeita hama-sei, edo eduki ditzake laurogeita hemeretzi. Ez dakizu. Hurrik eman ere ez, Damian. Egia esan, bost axola horrek zuri. Senpere zenaren adina izanen du, gutxi gorabehera. Laurogeiren bat edo. Futitu egiten zara kontu horretaz.

Janariaz eta edariaz apur bat bazenekien zeuk ere, baina halako gutziarik! Sukalde frantsesa izan zen ia guztia lehenengo oturuntza hartan, hasi ahate-gibeletik, segi Borgoñako ardo lodiekin eta amaitu Chartreuse usain ederrekoarekin. Eta gogoeta inozo bat ere egin zenuen globalizazioari buruzkoa afari hartan; hauxe izango duk benetako mundializazioa, pentsatu zenuen, perutar batek egindako sukalde frantsesa, Elizondoko jauregi indiano batean eserita dastatzea. Agure batekin.

Baina esazu gehiago ere, esazu noraino egin zenuen bat Joaquin Aldazekin egun hartan, eta harrezkero ere bai. Esazu behingoz aurkitu zenuela gizon zeuretzako moduko bat, jakin-minez eta ahalmenez aberats, adinean aurrera egina

izan arren, benetan lerdin. Errazu egia, Damian. Aitor ezazu Joaquin Aldazek eragiten zizun lilura berria kitzikagarri zitzaizula zeharo. Errazu nola, halako batean, ez zenion jada gehiago ikusten dena itsusten zuen aurpegiko orban itzela. Lagun bihurtu eta nola kontatu zenizkion baita zeure gogoeta ezkutukoena ere: nola izutzen zintuen lehengora itzuli beharrak, nola atsegabetzen zintuen *Abiadura Handiaren* itzalak, nola itotzen zintuen Luperen eskeak eta, aldi berean, nola irensten zintuen Zorionan bizi beharko zenuen bakardadeak. Denak esan zenizkion, bat bera ere lotsaren hegaletan gorde gabe.

- Eta Leon Karrikarekin zer gisa? -galdegin zizun berak, zuk horrelakorik espero gabetan.

Chartreuse kopa kristalezkoari heldu zenion bare. Sudurpean jarri eta haren lurrinak erre zizkizun ziloak biriketaraino. Gero, suzkoa bailitzan, ezpainenatik mihira eta aho guztira iraganarazi zenuen, artetsu. Eta hodian behera, urdailerainoko bidea nola egiten zuen antzeman zenuen, labak bezala, denak aurrean hartuta. Eta handik odolera ere nabaritu zenuen, burura iritsi baino lehenago.

Tarte hori guztia profitatu zenuen zer esan eta zer erantzun erabakitzeke. Aldazek, ordea, bazekien, ordurako, ez zeniola Leon Karrikari buruzko fitsik esango. Ganorazkorik behintzat ez.

Osin bat, putzu bat, nola margotu asmatu ezinik zebilela erantzun zenion. Horrexen sukarrak harrapatuta zebilela aspaldian, basurde baten antzera.

Eta, azkenez, afaria ordaindu nahi izan zenion Joaquin Aldazi, nolabait.

- Ez da gozo haren alboan -aitortu zenion.

Gero, mintzagaia aldatze aldera, elkarren arteko adin tartea zela eta, hika hitz egin ziezazukeela esan zenion, hala nahi baldin bazuen, behintzat. Eta baietz, berak, baldin eta zeuk ere egiten bazenion toka.

- Andrea garai eta toki guzietan beti andre, Damian -esan zizun, salara bidean, bigarren kopa eskuan, lepotik helduta zindoaztenean-. Begi berriekin ikusi ohi dik gizonak emaztekoa, baina beti duk bera eta berdina, Evaren garaietatik. Hire Lupe horrek ere denen gauza nahi dik beretako: babesa, gizonaren defentsa, betiereko

bakardadea eramaten lagunduko dion norbait...
Nik nahiago dizkiat, aunitzez ere, gizonak.

Eta zeure bizkarrean zintzilik zeraman besoak pisu harrigarria hartzen zuela sentitu zenuen, lehenago ez bezala. Dardaratze sotil hura ere nabaritu zizun gorputzean Joaquinek.

- Ez hadi kezkatu, Damian, nere gose guziak apalduak dituk ja. Segur haiz nerekin. Goizegi sortu ninduan gauza onerako.

Hitzik aurkitu ezinda, homosexualitatea norberaren gauza dela esan zenion. Zuri emakumeak zaizkizula laket, eta besteen kontuak ez direla zureak. Politikoki zuzena izan nahi zenuen gizonarekin. Eta barre egin zizun berak. Algara zabal batek egin zion ihes. Ohartzen zinen gizon hura futitu egiten zela bere homosexualitateari buruz zuk eduki zenezakeen iritziaz. Futitu egiten zela gainerako guztiek eta munduak bere osotasunean gai horretaz eduki zezaketen irudipenaz.

- Damiantxo, Damiantxo -hasi zitzaizun-, beranduegi duk hi nitaz deus entenditzen hasteko, nik bizi izan ditudanez jabetzeko, bi gerra tartean. Hetsi begiak eta pentsatu, ni bezalako

gizon bat, hemen Elizondon, orain dela hogei, hogeita hamar, berrogei urte. Lerden eta sasoi-neko. Erradak zer ikusten duan begiak hetsita. Kontatu inguruko eliza eta gurutze guziak. Erradak ze bizimodu behar zuen izan nere iduriko oilo koloka batek horrenbertze oilarren artean.

Eta Luis XVI tankerako besaulkietan esertzen zineten bitartean, jabetzen hasi zinen bazitekeela zurea baino bizimodu negargarriagoak ere izatea munduan.

Orduantxe etorri zitzaizun ustekabeko erantzuna:

- Bertze guziak baino gehiago oilartuz!

Eta zurrut egin zion Joaquin Aldazek kopari.

«Ezinezkoa den arren, lehendik ezagutzen nuela iruditzen zaidala aitortu diot, azkenean, Joaquin. Bere bisaia ez dela berria niretzat. Ez dit batere jaramonik egin, ordea.

Lakoizketaren lanei begira pasatzen ditut orduak eta orduak. Gozamina itzela da niretzat. Goizean goiz joaten naiz Joaquinen etxera, eta Lakoizketaren salan igarotzen dut goiza osorik.

Arratsaldea ere bai, aha baldin badut, bederen. Pedrok edo Matildek, hutsik gabe, goizeko ha- maiketan ekartzen didate kafe beltz bat, gozoki- ren bat alboan duela. Joaquin han inguruan bal- din bada, neuk ere hantxe bazkaltzen dut ia beti berarekin. Eta, bestela, hotelera, han ere egoten baita sarritan Joaquin. Edota Elizondoko Eskisa- roi jatetxean. Uste dut berea duela ostatu hori ere.

Eskuzabala da, zinez, gizona. Ez kezkatzeko esan dit behin baino gehiagotan, eskua sakelara eramaten ikusi nauenean. Geratzen zaion bizitza apurra ez dela aski dauzkan guztiak ahitzeko. Berriz jaio eta berriz hil behar lukeela pare bat aldiz horretarako. Ez daukala senitartekorik, ez daukala nori utzirik eta ez kezkatzeko ezerenga- tik. Ohorea dela berarentzat, ni bezalako beste bildumagile bat, Lakoizketaren lanen artean ara- katzen ikustea. Lotsatu ere egiten naiz hainbes- teko losintxa eta artapenekin.

Leon arratsetan bakarrik ikusten dut. Goi- zean esnatzen naizenean, altxatu gabe egoten da bera oraindik. Baleztenera ere urritu ditugu ikustaldiak. Ez dago modurik. Beti badu zer bait.

Esango nuke gero eta dagoela etsiago, utziago. Ez dakit hari zer esan eta harekin zer egin. Hurbildu natzaion bakoitzean, sugeak bezala egin izan dit kosk. Osinari buruz ere ezin diot galdetu. Egindakorik ere ez dit orain erakusten eta, lehengo batean, *Ez dago hemen* hartu eta nola zartatzen zuen ikusi nuen. Espantua izan zen hura, ero baten jokamodua.

Jada ez da morfinaren kontua bakarrik. Mina ez zaio oraindik lepotik joan eta handitu egin du dosia. Ez duela berriz kirofanoan sartu nahi, dio berak. Alferrik dela. Minarekin biziko dela beti.

Ez dakit zenbat hartzen duen. Asko, esango nuke. Gehiegi. Baina, diodan bezala, ez da hori bakarrik. Jota dabil gizona. Badu beste zer bait. Ez naiz ausartzen Mirariri Ziburura deitzen. Azkena litzateke niretzat. Garbitu egingo ninduke Leonek. Arrazoiarekin.

Joaquinek esan dit hiru edo lau aldiz, uzteko Leonen etxea eta joateko Indianoarenera, kabituko naizela hamar gelako etxe hutsean. Ezetz erantzun diot, ordea. Inoiz baino gehiago behar duela Leonek alboan nor bait.

Egia esan, horrexek eusten nau Arizkunen, Leonekiko kezak. Eta Lakoizketaren lanak ere bai.

Atzo amaitu nuen haren kaieretako bat. Berak euskaraz Ubanarea deitzen duen landarearen izurriteari buruz ari da. Mahatsa erasotzen duen *Peronospora mildiew*, *Oidium tukeri*, *Puccinia fair* eta antzeko alga bizkarroiez. Eroa behar zuen, zinez, Lakoizketak, ezen eta horiek guztiak, eta horrelakoak, Jainkoak bidalitako izurriteak direla baitio, hain zuzen ere, Jainkoa behar bezala gogotan hartu behar dugula konturara gaitzen:

La enseñanza es dura, implica pérdidas, cuyas cifras aterran; pero es necesaria para que el hombre vuelva a reconcentrar su atención en el autor de su vida de quien se creía independiente, y venciendo á sí mismo cumpla su misión en la tierra , que como dice el P. Astete con admirable laconismo, se reduce a servir y amar á Dios sobre todas las cosas. Para esto, la Providencia, sirviéndose de las leyes de la naturaleza y de las mismas conquistas que el hombre ha hecho en el tiempo, nos manda, cuando le place,

esas terribles plagas, con que haciendo sentir su soberano poder exclama: «aquí está el que es», y convirtiendo los principios más abstractos en verdades experimentales, cura las aberraciones de nuestra pobre inteligencia y fortifica nuestra débil voluntad, dirigiéndola á su verdadero objeto que es el supremo bien, Dios mismo. Demos gracias á Dios por tanto amor, y loado sea también porque me ha dado la gracia de terminar este pequeño trabajo. Laus Deo.

Ubanareak beste kaier batean ere aipatzen dituela ikusi dut. Bihar ekingo diot horri. Nik uste, Senpe zenak erakutsitako izokin berriak, horiexen bidez izango duela argibidea. Izatekotan».

Leonen kezka eta Lakoizketaren lanak eusten zaituztela hemen diozu. Nor nahi duzu engainatu, Damian?

Leonek eta zuk aspaldi hartu zenuten hondorainoko bidea. Denbora kontua baizik ez da, behea jotzea. Badakizu hori. Neuk baino hobeto.

Zer egin behar duzu, bada? Leonek ez zaitu ondoan nahi jada. Soilik Argos nahi du alboan. Huraxe nahi du berarekin pintatzera joaten de-nean. Ixilik egongo den norbait. Ez dakizu nola, baina egia esanda, ez dezakezu deus. Orain hura dago mutu.

Bart elkarrekin afaldu zenuten ohera baino lehen, Otsoeneko sukaldean. Gutxi behar duzue kontsolatzeko: lau hitz baizik ez elkarri, lau hitz ganora gabeko. Lau hitz, elkarren berri ezkutatze-ko.

- Oh putain! Gozoa zagok benetan omeleta!

- Non aurkitu dituk zizak?

- Pintatzetik itzuleran. Argos joan duk sasitza batera zerbait usmatuta, eta hantxe ikusi ditiat, hori-hori.

- Zer pintatu duk gaur?

- Hasieran bi baino ez ditiat ikusi, baina ondoko malda batean agertu dituk beste guztiak. Elkarren ondoan sortzen dituk beti horiek.

- Zer pintatu duk gaur? Osinarekin jarraitzen duk?

- Atzo ere handixe pasatu ninduan eta ez nian deus ikusi. Bart aterako zituan...

Isilik hobe, Damian. Berak ere ez dizu ezer galdetzen. Zertarako ahaleginetan ibili? Utz ezazu bakean. Eta aspertzen bazara, alde hemendik. Badakizu itzulerako bidea.

Ala, beldurra ematen dizu laguna era horretan bakarrik uzteak? Zeri zaude itxaroten? Zer gertatu behar da hemendik aurrera Leonekin? Noiz hartuko duzu aurea eta deituko diozu bebingoz Mirariri, edo Leonen alabei, besterik ez bada? Ala horrek ere zaitu kezkatzen, haiei deitu eta inortxok ere kasurik ez egiteak? Senarraz eta aitaz kokoteraino daudela egiaztatzeak? Esazu zerk zaituen hainbeste izutzen, Damian.

Horixe izango da, lagunak zu bakarrik zaituela ikusteak kezkatzen zaitu. Zeurea izatea haren ardura. Uste gabeko zama. Zeuk hartu behar izatea haren erabakiak. Nork eta zeuk, Damian. Bere buruarekin ezin duenak konpondu behar inorena. Kaka zaharra, ezta, Damian?

Oroit zaitetz nola etorri zinen zeu hona. Ospitaletik irten berritan, ia mutu, txindurrientzat baino beste inorentzat adimena ezarri ezinda. Mutu, bai, eta gor, eta itsu. Nahi zenuena bakarrik bistan: *Natura maxime miranda in minimis*.

To orain natura. Hortxe daukazu zain, kimika apur batekin. Begira iezaiozu hurbil-hurbiletik, *miranda in minimis*. Espezie berri bat duzu, Leon Karrika deitzen da. Eri dago, behea jota dago, morfina hartzen du, hegalak apurtuta ditu, baina ihes egiten dizu, hala ere, eskuetatik. Ezin duzu deus, ez duzu harentzat moduko hiztegirik. Artis-ta da, artista nahi du. Eta zuk horretaz fitsik ez dakizu.

«Badakit izokinaren aldaketa errekan sortzen den belarren batek eragindakoa dela. Derrigorez behar du hala. Nondik bestela hainbeste berun, kromo eta kobre? Nondik hainbeste metal? Zerbaitek eragin du izokinaren mutazioa, belarren baten ugaltze neurrigabeak seguru asko.

Ez dakit zergatik, baina Senpe zaharraren hil-keta eta izokinaren ugaltzea, elkarri lotuta ikusten ditut. Izan liteke horixe izan zelako hark esan zidan azkeneko gauza, Baztan ibaian sekula ikusi gabeko arraina ari dela ugaltzen, neurrigabeki. Ez dakit.

Baleztenean inork ez du fitsik esaten. Tomas danbolindariak-eta uste dute, pendizean golpe txar bat hartu eta eroriko zela Senperena zaharra putzura. Ez dute sinesten hilketa izan zenik.

- Nork hartuko zian Senpe bezalako azeri barkarti bat hiltzeko lana? Hark ez zian ez diru eta ez ondasun. Zorrik ere ez. Inork nahi ez lukeen etxe erori bat baizik ez, sasiak janda ia. Baztango balleko etxeak ere ez dik nahi hori, urririk emanik ere.

Lakoizketari irakurri dizkiot ia denak, eta ez dut kausitzen ezer apartekorik haren hitzetan. Irakurri ditut haren bi liburuak, *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas* eta *Catálogo de las plantas que espontáneamente crecen en El Valle de Vertizarana*.

Gauza ederrak ugari bai, baina nik bilatzen dudarik ez, bat ere. Soilik geratzen zaizkit bi karpeta, eskuz idatzitako orri soltez beterik.

Aitortu beharrean nago, damu naizela berrehun urte lehenago ez jaio izanaz. Gogoko nuke Lakoizketa eroa, gogoko harekin gora eta behera, belarrak, landareak eta zuhaitzak sailka-

tzen ibiltzea. Gogoko nuke halako gauzak idazten zituen gizon baten auzo izatea:

Rumex acetosa. L.: Castellano: Acedera, Acedera común, Acederilla, Vinagrera, Vinagrerita, Romaza ágría. Francés: Oseille commune, Oseille sauvage, Grande oseille, Surelle, Surette, Rinnette. Vascuence: MIÑETA. D. T. de MIÑA, ácido, agrio. En esta comarca le llaman, así como en Baja Navarra, MIÑGOCHA, de MIÑA, ácido, agrio, picante y GOCHOA dulce o confite que se da a los niños, y también cosa agradable gustosa que se da al paladar, y quiere decir agri-dulce, ó ácido agradable, aludiendo al bioxalato de potasa que contiene y es agradable al gusto. Otros le denominan BELAR-GACIA, de BELARRA yerba y GACIA salado, y quiere decir yerba salada ó ácida.

Ehunka izen eta milaka deitura biltzen dira orri horietan: Zumarika, Zurumbeta, Tellatu belarra, Ubanarea, Zalizukia... Nahi nituzke noizbait denak ikasi. Inoiz hemendik alde egiten badut, Joaquini eskatuko diot liburu hauek denbora baterako uzteko mesedea.

Ez dut uste ezetzik esango didanik, lehengo batean aitortu baitzidan zentzua ematen niola nik, Lakoizketaren lan guztia gordetzeko berak hartutako ahaleginari. «Hi eta ni berdinak gaituk», esan zidan, «bildumagile ero pareak».

Damianek ez du esaten eta ez du esango, baina Indianoaren jauregiko leihoetatik lorategi eder eta ongi zaindu bat ageri da inguruko palmondoak baino harago: hortentsiak, berak hainbeste maite dituen gerberaz betetako partereak, primula kolore ezberdinetakoak, garo exotikoak... Han-hemenka, izotzetik babesteko, hegora begira jarritako limoiondoek, bugainbileek, gliziniak eta jasminek, paradisu bildua bilakatzeko dute bazter hau, eta begiak galtzen diren lekuan, han goian, Arraiturre, *La casita* deitzen dioten etxetxoaren teilatua ageri da intxaurren itzel baten menara. Damian ez da oraindik haraino iritsi sekula, ez baitu horretarako gomitik jaso. Hura perutarren lurraldea da, Pedro eta Matilderena, eta esan gabe daki jauregia osorik

eta bere inguruak direla Aldazek aukeran jarri dizkion bakarrak. Ez da gutxi, gainera.

Arraiturre baino apur bat eskuinerago eta gorago, ehun bat metrora, etxaldea mugatzen duten kare-harri handi batzuen altzotik eta lizarruna batean behera eginez, errekatso bat jais-ten da belardia erdibituz. Bere ertzetan ugaltu egiten dira ura beharrezkoa duten landareak: uretako bioletak, *hydrocharis* motakoak, errosario belarrak... Eta bihurgune geldo batek sortzen duen putzuan, nenufar horiak eta ninfa ardo kolorekoak ikus daitezke diz-diz, eguzkiaren argitan.

Damianek pentsatu du, nahiko luketela halako paraje bat Hondarribiko Golfean, Zoriona inguruan. Nahiko luketela halako belar zaindua, halako lorea eta arbolapea, ibiltzeko, balak bezala, airera botatzen pilota asesinoak. Izorra daitezela munduko golflari guztiak.

Joaquin Aldazi entzun zion behin, eremua erdibitzen duen errekatxo horretako urari zor diola daukan osasuna. Bestelako urik ez duela edaten berak eta harixe esker ez duela gaitzik ezagutu bizitza guztian. «Zango alu hau ez bertze -esan

zion gero, makilaz joz belaun aldean, sortzetik zaukaat izorratua». Arraiturre izenak, Urre Iturri nahi duela esan eta arrazoi handiarekin daukala jarrita horrela, urrea baino gehiago balio baitu handik sortzen den ur garbiak.

Eguerdia da jada. Denbora azkar igarotzen da Lakoizketaren belar eta paper artean sartuta. Ez du Vel Satisa entzun iristen, baina Joaquin Aldaz da, hoteletik bueltan datorrena. Eskuetan gutun bat dakar. «Hiretako duk. Hotelerat igorri ditek», eta luzatu egin dio Ertzaintzaren zigilu guardasol itxurakoa daukan gutunazala.

Zabaldu eta Urrutikoetxea komisarioaren letra ezagutu du berehala:

Damian adiskide hori, saiatu naiz behin baino gehiagotan zurekin telefonoz hitz egiten. Hogei aldiz deitu dizut Aldaz hotelera, baina han ez zarelaz bizi esan didate eta ez dakitela zu non aurkitu. Horregatik idazten dizut gutun hau, noizbait iritsiko zaizun itxaropenarekin.

Ez nuke sartu nahi ez dagozkidan gauzetan, baina, berak ez dizunez esango, neuk kontatuko dizut pare bat hitzetan: Lupe haurdun dago eta jada hasia zaio nabaritzen handitua.

Bada hilabete ez dela etortzen lanera. Medikuaritean eta beheajota dabil azkenaldian. Haurrik galdu nahi ez badu, etxetik ez mugitzeko eman diote agindua. Eta egoteko etzanda, ahal duen guztian.

Ez dakit ondo edo gaizki egiten ote dudan hau guztia zuri idaztean, baina iruditzen zait arindu egiten naizela nirea ez den zama baten pisutik. Gaizki jokatu eta hanka sartu badut behar ez den tokian, aurrez eskatzen dizut barkamena, baina sinetsiezadazu, ez zen hori nire asmoa.

Bestalde, esan nahi dizut, zure esperoan jarraitzen dugula hemen, lanik ez zaizula faltako, nahi izatekotan.

Ondo izango zarelaikoan, jaso ezazu besarkada handi bat.

Joaquinek, Damianen begiak ikusi ditu tupusteko sukar batez aldatzen, eta ezpainak eta irria nola jarri asmatu ezinda ere ikusi du. Albiste txarrak ote diren galdetu dio gero, eta «Ez duk ezer, ez duk ezer» erantzun dio Damianek, agurrik ere egin gabe, Indianoaren etxeko atetik kanpora alde egin duenean.

HARMA

Abiadura Handiko Egunak itzuli egin zaizkigu, ihesbiderik batere gabe, Damian. To, *miranda in minimis*. Orain bufalo koadrila bat ere bat pasatuko litzateke zure paretik, edo elefante andana bat, zuk haietan arretarik jarri ezinean. Nora joan zaizkizu enaren hegadak?

Arakutzen duzu zeure barnean eta anestesia orokor bat baino ez duzu aurkitzen. Dena duzu lo. Ez zara gauza deusetarako eta jada kakalar-doen babesak ez zaitu gordetzen ahal. Ez dizu balio. Hautsi egin da anphora, Damian. Krak eta krak. Kontuz orain haren zatiak ortozik ez zapal-tzeko.

Lupe haurdun dago, zeuk egin duzu hori ha-rekin. Zeurea da datorrena eta, hala ere, egin behar ez zenuen gauza bakarra egiten asmatu duzu: telefonoz egin diozu hots,

- Nork esan dizu haurdun nagoela?

- Urruti izan da, gutun baten bidez. Ez zekien zer egin, baina zerbait egin behar zuela iritzi dio, antza.

- Gizonak beti gizon.
- Zer moduz zaude?
- Nola nahi duzu egotea?
- Urrutik esan dit etzanda behar duzula egon.
- Hori dio medikuak.
- Mutila da, ala neska?
- Oraindik ez dago jakiterik.

Ondoren oihu egiten duen isiltasun bat lokartu da telefonoaren hariko dilindan, zeu ere konturatu baitzara ezberdinak direla *haur* hitza eta *mutil* edo *neska* hitzak. Nolabait esateko, haurra abstraktua den bezala, mutila edo neska dela konkretua eta zehatza, bi begi eta aurpegia dituela, eta gorputz oso bat ere bai, zangoak eta besoak. Eta zilborra. Haurra hitza behelaino itxia da, eta mutila edo neska, hura desagertzean supituan agertzen den arbola.

Uste gabean irten zaizu, gutuna irakurri zenuenetik, erretzen zintuen galdera:

- Haurra nirea da, ezta?

Galdera finitu ahala ohartu zara, osinaren antzera utzi dizula erreta mihia eta ahoa dena, ezpainak, aho-sabaia eta adimena bera. Zeuk bota diozula zeure buruari sarea. Ehizatua zarela be-

tiko, Etxalargo uso bat bezala. Ezin askatuko zarelakatramilatutako hari horietatik, zeuk sartu duzula burua eta hegala sarezuoloan.

- Lerdoa zara.

Horixe erantzun dizu Lupek eta gero eskegi egin du, klik, telefonoa. Bukatu egin da. Bukatu egin du.

Bai, lerdoa zara, Damian. Sekulakoa.

«Esaten dutenez, dantzan ari zarenean, eta pauso bat oker ematen duzunean, dantzan jarraitzea baino beste biderik ez dago. Horixe omen da onena. Baina, nola dantzatzen da egoera hau? Zein pausorekin?

Nabaritzen dut neuretzat Arizkunen hartuta neukan astia amaitu egin dela. Jada ez naizela neu aintzat hartu behar dena. Nahi badut edo ez, hautsi egin zaidala oskola eta haizeak erabiliko nauela, ez dakidalarik nora.

Haur bat, mutil edo neska bat, pasa daiteke nik erreparatu gabe kalean. Nire haurra, ordea, beste kontu bat da. Arruti du berak ere izena.

Lupe eta umea ez ikustea deliberatuko banu, itzul naiteke Unibertsitateko lan zaharrera. Eszedentzia eten, Zoriona saldu, eta, beste asko bezala, Bilbo aldean jarri bizitzera. Gernika inguruan, beharbada. Zergatik ez?

Nik ez nuen umea nahi. Ez neukan halakorik buruan. Luperekin egin nuenak ez dauka horrekin zer ikusirik. Sexua zen hura, sexu huts zikina eta norberarena, horixe baizik ez baita sexua, beste norbaitekin egiten den norberaren kontua. Berak ere ez zuen haurrik buruan. Ala, bai?

Izutu egiten nau *aita* hitzak. Halakorik ez zegoen nire usteen artean. Haurra, ordea, etorri egingo da eta erabaki beharko dut zer den niretzat errazagoa eta hobe, hura ikusi gabe, izango ez balitz bezala jokatzeari, edo hartaz arduraturata bizitzea. Une honetan biak ala biak iruditzen zaizkit bide arrotzak eta aldrebeseakoak. Besterik ez da, baina.

Ez dut semerik edo alabarik, nahi. Ez naiz horretarako jaioa. Hortxe dago, ordea, hazten eta hazten nik nahi izanda edo ezta. Izango du aurpegi bat, ahots bat, esateko niri *aita!*, ikusten nauenean. Neuk menpera ez ditzakedan gauzek

izutu egiten naute, eztarriko mamu honen antzera. Ez dezaket deus, soilik dantzari segi, beti aurrera. Baina, nora? Nola da pieza honen pausoa?

Lupek ez dit hartu nahi telefonorik. Mila bider deitu diot dagoeneko, baina esan gabe dakit, bakarrik baino nahiago duela nirekin. Emakumea da, eta Joaquinek dioten bezala, denak dira bera eta berdinak. Haur batek aita behar duela alboan usteko du, eta neu naizela aukeretan egokiena, ez izanagatik horretarako egindakoa. Zorionan nahiko du hazi, hantxe denok elkarrekin bizi, baina asmatuko al du hori guztia Lupek nire alboan? Eta neuk haien bienean? Gai al da emakume bat bizitzeko gizonezko batekin, *maite zaitut* esateko gauza ez dela dakienean?».

Leon Karrika gero eta okerrago dago. Azken hiru edo lau egunetan, pintatzera ere ez da atera Argosen konpainiarekin. Ikusi ere ez du egiten Damianek egun osoan laguna, soilik zakurtzararak ematen dio haren berri: Leonen gelako atearen aurrean pasatzen du eguna etzanda, ugazaba berriari adi.

Damian ohartua da honezkerok, badaki zaku-
rrek hierarkia dutela neurri, nagusi bakarra jar-
tzen dutela aurretik beti. Eta Otsoenean, Damian
ez baina, Leon Karrika dela ugazaba Argosen-
tzat. Izatekotan, bera dela orain bigarren. Zaku-
rrak begiak altxatzen ditu Damian datorrela ikus-
ten duen bakoitzean, eta buztanari ere eragiten
dio epelki, etzanda dagoen leku beretik, baina
atearen ostean ezkututzen den nagusiari egoten
zaio adi. Harekek atea noiz duen irekiko du itxa-
roten, harekin mendian gora, osina bilatu arte,
noiz diren joango berriz. Laket ditu Argosek ha-
rainoko bidean aurkitzen dituenak, sasizetako
hegaztiak, zaldi eta behien gorotzak eta, batez
ere, bere pausoaz azkarrarazten dituen ardi izu-
tiak. Gero, osinera iristen direnean, putzuko
lohian sartzen da isatseraino, nagusiaren ondo-
an etzan eta, urrutitik entzuten duen zarata ba-
koitzaren aurrean, zutik jarri eta seinale emanez
egiten du lan. Dela zaunka bidez, dela intziri egi-
nez.

Damianek gelako atea jotzen du goizero, In-
dianoaren etxera joan aitzinetik. Nola dagoen
eta ezer behar ote duen galdetzen dio beti Leoni.

- Oh putain! Hoa lasai, ondo nagok eta.

Damian konturatuta dago, aspaldian ez duela ganoraz jaten Iparraldeko lagunak. Baleztenera ere ez dela agertzen. Gela hartan barrura egiten duenetan, izerdi usain sukartsu bat etortzen zaiola maindireetatik sudurrera eta, bera Otsoenera etorri zenetik, ez dituela Leonek mahaitxo gaineko bi liburuak berri eta aldatu. Bata da artearen teoriari buruzko liburua, eta bestea, Bacon britainiarraren lanak biltzen dituen katalogo eder horietako bat.

Damianek ez dauka lehenengo liburuaren berririk, baina pentsatzen du Leonek Baconen pintura badarabil buruan, izan odol edo izan haragi, salto handiegia dela harentzat eta bidean eror daitekeela amildegitik.

Erabaki bat hartu du: bihar edo etzi deituko dio Mirariri.

«**Batzuetan** jartzen naiz Lakoizketaren azalean eta hasten naiz pentsatzen zerk bultzatu zuen bilduma hau egitera. Halako gauza bat egiten duenak ez dezake beste gauzarik buruan. Itsutu-

ta bakarrik egin daiteke halako lan bat. Apaiza izango zen, hala badiote kronikek, baina hori baino lehenago, naturazale.

Idatziak zoragarriak dira, baina esango nuke Lakoizketaren benetako abildadea, landare aleen bilduman ikus daitekeela, batez ere. Belartegian. Bakoitza bere kutxatxoan gorderik, sus-trai enbor, hosto eta lore, izenak emanaz latinez, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz. Arrazoiz eskaini zion Euskaltzaindiak oroitarria bere jaiotetxean. Ez dut uste gurean izan denik beste hainbesteko botanikorik.

Ikusten da landareetako gehienak buruz behera lehortu zituela, hari batetik zintzilikatu eta itzalpean, kutxatxoetan jarri baino lehen. Beste batzuk, ostera, paper lodizko geruza artean utzi zituen gorderik. Gehienak, hala ere, laminak dira. Batzuk beste botaniko garaikide batzuekin trukean lortutakoak. Laminen azpian luma-muturrez eginiko sinaduretan ikusten da: Frederic Trèmols, Estanislau Vayreda, Michel Gandoger...

Egin zituen marrazkiak nahiko zabarrak dira, egia esan. Berrehun inguru badira behar bezala egindakoak, japoniarren antzera, xehetasun

guztiek, baina, esango nuke, Lakoizketak ez zuela eduki behar bezala marrazten ibiltzeko astirik. Bere nahia, inguru hauetan sortzen diren landare guztien katalogoa egitea izan zela, beste ezer baino lehen. Harrapatu egin nahi zuela landaredia bere bizitzarekin.

Gehien harritzen nauena da Bertizko Parkeak nola egin dion uko honelako altxor bati. Lakoizketak bildutakoak eurenak baino gehiago dira, askozaz ere, eta hobeak, gainera. Ez ditut zenbatu landareen lamina guztiak, baina bost milatik gora bai gutxienez, aparte utzita landare kaxak, eskuizkribu eta argitaratutako bi liburuak. Ez dut ulertzen zergatik esan zuten ezetz. Egia esan, ez dut ulertzen zergatik dagoen bilduma hau Joaquinen etxean eta ez, esaterako, denon aukerako museo batean edo unibertsitatean.

Atzo gauean esan zidan berak, Joaquinek, alegia, inoiz edo behin alde egiten badut Baztan inguru honetatik, nahi badut, neuretzat izango dela Lakoizketaren bilduma, ondo gordetzeko baldintzarekin, berak aski duela artelan eta altxarien bildumarekin, inork gutxik eskertuko duela halako gauza bat neuk beste.

Nik uste, Chartreusea igo zitzaiola burura eta hark egiten zuela hitz, bere mihitik».

Lakoizketaren gelara Pedro perutarra etorri zaio, haririk gabeko telefono bat eskainiz.

- Es para usted, don Damian.

Hariaren beste aldetik Joaquin da berbetan, hoteletik, ea elkarrekin bazkalduko duten Elizon-doko Eskisaroi jatetxean. Lehenengo oilagorrak ehizatuak direla udazkena baino lehen, eta ea prest egongo ote den haiek jateko, onddo beltz batzuen konpainiarekin. Vel Satisean eramango duela Pedrok bertaraino, Lakoizketaren paperekin amaitzen duenean.

Nola esan ezetz, ezta, Damian?

Alabaina zeu ere konturatzen zara, gizon honekin duzun zorra ez daukazula inola ere ordaintzerik: jauregia ere baden etxea eskaini dizu, Lakoizketaren bilduma jarri dizu aukeran, bi perutarren zerbitzua, autoa, hotela... nahi duzun guztia. Nola ordainduko dituzu horiek denak, inoiz ordaindu beharra badatorkizu? Zein diru eta ondasunekin?

Galdurik duzu patxada, *Abiadura Eztiko Garaia*. Haurrak kezkatzen zaitu. Lupek kezkatzen zaitu. Leonen osasunak kezkatzen zaitu. Joaquinen eskuzabaltasunak kezkatzen zaitu. Zer egin ez jakiteak kezkatzen zaitu. *Abiadura Handiak* kezkatzen zaitu... kezkatu argel bat baino ez zara, Damian. Zeure baitatik atera ezin den trikina bilakatu zara. Neuk ere badakit izena latinez, hara: *Trichinella spiralis*. Ez zara hemengo jakitun bakarra. Harritu egiten al zara oraindik nirekin?

Zerk zaitu Lakoizketaren paper zahar hauen artean preso eusten? Erantzun horri, adorerik baldin baduzu.

Neuk esango dizut: garrantzizkoa den zerbait egiten *ariko bazina bezala* ibiltzeak, horrexek eusten zaitu. Hasitako dantzari nahi diozu eutsi, kosta ahala kosta. Ez erritmorik aldatu orain, ezta Damian? *Natura maxime miranda in minimis*. Begira itzazu gauzak hurbil-hurbiletik, Lakoizketaren begietatik. Galdu betileak letra oker horien artean, zintzilikatu ezkererako joera duten lerro horietatik.

Hortxe duzu saria, azkenean, eskuz izkiriaturako zazpigarren orrian, karpeta berde horretan. Bai, hortxe duzu. Zoaz. Ez galdu denborarik. Eta, gainera, zeure pozerako, euskara dotorean dago, Lakoizketak oso gutxitan ohi zuen eran. Irakur ezazu, bai, Damian.

Goico Gure Jaincoac emandaco lanetatic zallena, Confesioneco Secretoac du, zeinai apez edo abadec. Nic ere orla, apaltasunez baña erabaqui aldaeziñez, betetzen ditut Jaungoicoac aguindutaco guztia, Infernuco sutatic libratu eta aren gloria merezitzeco, egunen batean. Argatic ezin dut emen izenic eman, guchiago plumaz eta tintaz escribituric, baña Humanidadeac bear du noizbait jaquin, nic Confesione Santuaren Sacramentuan ezagututacoa.

Baztango lur auetan, nun erri chiquiac icusten diran an eta emen zelayetaco verdean errecan amorrayac bezala, plaquiac jota edo erdibitzeco lanarequin aquitutaco emacumeari, emateco costumbrea dago Chertecha deritzayon Ubanare edo alga bezalaco belar bat. Latiñez

Conferva ribularis jarri zion Jaungoicoac izena landare orri, bere jaquintza infinitoarequin.

Emacumeac belar orrequin eguindaco ura zazpi egunetaco albarequin artuta, indartzen dira eta gauza jaquinecoa da zaiela ederrago-tzen begia, bisaia eta gorputza bere geyenean. Ascotan, Matrimonio Santuaren eguinquizunac betetzeco gogorican gabe dabilen emazteari ere ematen zayo, Jaungoicoaren aurrean eguindaco juramentuaren mesedetan.

Gure oitura ori Adan eta Eva Purgatorioco atetic irten ziren garayetatic dator seguru asco, ezen eche guztietan sendo errotutaco costum-brea baita, eta neuc ere icusi baitut gure ama, gure amaren ama eta baita aren ama ere, Cher-techa deritzayon landarea corrientqui erabiltzen.

Pasatu da dembora eta Confesioneco Secreto-a ongui gordeta dago, ezen nirequin confesatu zen gizona aspaldi ilda baitago. Beste ascoc bezala sendabelarrac erabiltzen zituen berac errico eta inguruetaco gentea sendatzeco. Orlaco lana dutenari emen esaten zaio Petriquillo.

Petriquillo onec confesatu zidan ezin loric eginda zebillela eta baita ere inon descansuric

aurquitu ezinda, ezen descubritu baitzuen emacumeeri ainbertzetan emandaco Chertecha belarrac, beneficioa ecarri ordez, beraquin zecarrela gaitz izugarria. Erraten zuen gizonac, Chertecha orren indarra maravillosoa zela ichura batean, baña luzaroan eriotza ecartzen zequiala. Observatua zuela, Chertecha asco artutaco emacumeac iltzen zirela denac berdin, gibelego gaitzac jota, espantuca, miñ insoportablearequin eta Jaun Goicoari Misericordia eduquitzeco escatuta.

Esaten zuen baita ere, urteac behar zirela orlaco gauza bat icusteco ezen gaztetan artzen baita geyenetan Chertecha belarra, eta andic urte ascora presentatzen gaitza, eta berac esquerrac ematen zizquiola Goico Jaunari ainbertze urtetaco bizitza luzea eman ziolaco. Baña ez zuen decansoric causitzen aal orlaco descubrimenduarequin eta orregatic jo zuela nigana. Apeza nintzela, baña baita ere belarretan jaquin-tsua.

Ez geyago Cherteharic artzeco esanagatic, gendeac costumbreari seguitzen ziola, eta berac ezin ziola aurre eguin ainbeste pesoco problematicari. Geiegi zela reponsabilidadea beraren-

tzat. Esateco zer bear zuen eguin, nola bear zuen jokatu, eta emateco penitentzia naigabe eguindaco gaitz guztiagatic.

Eguia guztia bere borobillean esateco agintzen du Jaungoicoac eta ez nuque nai nic emen gezurric. Berroquei urteco apez lanetan, ez nuen ezagutu alaco casoric eta isilic gelditu nintzen tarte luze batean. Ez itzegitera atrevitzen ez nintzelaco, baizic eta zer esan ez nequielaco. Neuc ere Chertecha belarra artzeco aguindua nuen eun bider edo milla. Petriquillo ura iltzalle edo asesinoa baldin bazen, neu ere bai.

Apeza naizen aldetic erran nion, berac erabilitaco metodoari Ciencian esaten zayola Empirismoa eta ori dela, ain zuzen ere, Cienciac daucan bideric garbiena: constatacioa eta demostracioa. Baña berac aguindutaco Chertecha guztia descubrimiento empiricoa baino leen emandacoa zenez, etzegoela orretan becuric batere. Jaquin eta gero eman izan balu, or bai egongo zela becatu. Eta ez nion orregatic jarri Penitenciaric.

Jaungoico Misericordiosoac bacarric daqui ongui eguin ote nuen ala gaizqui, baña biotzare-

quin, buruarequin eta arimaren idar guztiarequin artutaco erabaquia izan zen nic artutaco ura.

Eta gero itz eguin nion Botanico bezala, eta esan nion ez nuela uste Chertecha belarrac ainbesteco gaitzac sortuco zituenic. Seguro ote zegoan erraten zidan gauzarequin. Eta Petriquilloac baietz eta baietz, bein eta berriz. Eta orduan asi nintzan ni, arc esanda bezala il ziren ezagun guztiequin pensatzen, eta declaratu bear dut sartu zitzaidala ezinegon icaragarri bat biotzaren eta memoriaren erdi-erditic.

Despeditu nuen Petriquilloa Bendicioarequin eta erranez ez emateco geiago Chertecharic inori, eta zerbait descubritzen banuen, jaquina-razico niola lenbailen.

Gizon ura ez zen secula nirequin confesatua, baña icusten zitzayon ariñdua itzultzen zela etorritaco bide beretic. Neuri utzi zidan carga eta responsabilidade icaragarria, Jaungoicoaren laguntzarequin.

Elizaco lan guztiac albora utzi eta an joan nintzen ibaira, Chertecha belar bila. Bereala aurquitu nuen, bai baitaquit ur garbiac eta oso goicoac dituela laquet. Gainera elur urtea denean, ugari-

tu egiten da beste landareac baño geyago, ur
otzaren jeistearequin. Arrozaren landareac beza-
la, erroac uretan sartuta ditu beti, baña ez du
bearrezcoa arc bezala onec, campoan eguzquia-
ren beroric. Eten eguin nituen dozena batzuk
zeuden lecutic, zuztar eta guzti.

Orrela asi nintzan microscopioarequin, eta
esquertzen diot gure Jaungoicoari pasatu nin-
duelaco ichuen mundu beltz eta illunetic, icuste-
ra.

Bacarric ezagutzen dut beste landare bat
daucana Chertechac besteco metal cargaric
bere izerdian. Beste landare orri deitzen diogu
Otzerri-belarra eta ez du zer icusirican Otseria
deitzen diogun beste batequin. Otzerri-belar ori
da Naturelean aurkitzen aal den charrenetaco
bat eta toxicoenetaco bat. Otzerri izen orrec
esan nai du marranta, mafrundia edo catarroa.
Dioscóridesec escriptua da Otzerri-belarrac da-
quiela persona iltzen aurretic catarro bat eman-
da. Gure Goico Jaunac, bere jaquintza infinito-
arequin, jarri zion latinezco izena Cicuta virosa,
eta onec ere badu variedade bat, Chertechac be-
zala, zuztarrac uretan laquet dituen. Izena du

españolez *Cicuta acuática* eta frantesez *Ciguë acuatique*.

Beste metal ascoren artetik, cromoa, cobrea eta, batez ere, plomoa dira nic Chertechari icusi dizqui odanac, proportzioe ezin sinestecoan.

Jaungoico Gloriacoac bacarric daqui zenbat gaitz eguiten dugun on eguin nayan gabiltzanean, ezen eta ardoarequin eta patarrarequin bezala, hainbeste veneno artuta normal da asieran sentitzea ondo eta gorputza sendotzea bere geyenean, baña zacarrac eguiten duelaric guibellera edo giltzurritara, gelditzen da beti or ezin quendurican, eta gañetic jartzen zaizquiolaric anticuerpo guztiac borrocan guztiz alferrican, iltzen dira eta metatzen dira bertan, azquenean ustelduz guibela, giltzurritara edo azpian duten organoa. Ez artu ba Cherteharic secula ez baduzu il nahi izugarritzco dolore miñetan.

Esquerrac ematen dizqui ot Jaungoico Jaunari, Petriquilloaren Confesionearequin eguin zidalako argi illumpean.

Beste gauza bat ere bai icasi dut nic guzti onetan, batzuetan pensatzen baitut gure Jaungoico Misericordiosoac gure izcuntza zarra den

Eusquera ere ezagutzen duela eta beraren bitartez bidaltzen dizquigula sarritan ulertu ezin ditugun señaleac. Ezen Adan eta Eva Paradisuco atetic irten zirenetic deitu diogu guc belar orri Chertecha, zer deitzen diogun ulertu ezinic ainbeste urtetan. Ez diogu Jaungoicoac emandaco izenari casuric eguin, baña Chertecha-belarrac berarequin zecarren aviso Divinoa. Cherte leen zati orrec Cherto erran nahi du, eta Cha bucaeracoac, Cho erran nai du. Chertochoa, beraz.

Erran nai baita, gauza chiqui eta gaiztoa dela izen ori merezi duen gauza edo entea. Beste serbaten gainean edo barruan jartzen delaric, ez dela geiago andic joaiten eta Parasito caltegarria dela eta ilgarria. Beste lecu batzuetan deritzen diote Malluba, eta izen gaitz orrequin esan nai du, plaga eta izurritea eraguiteco eta personac castigatzeco sortu zuela zazpi egunetaco batean Jaun Zerucoac. Malluac bezala jotzen daqui eta sartutaco lecuan geratzen da betiraco chertatua.

Landare onec izenac zeuzcan Gure Jaungoico Jaunac euscaldunontzat jarrita, baña guc, ichu eta gor garen humanooc, eriotza zabaldu dugu berarequin, obeto bizi nayan.

*Jaun Zerucoac barca gaitzala, geure ezja-
quintasunean.*

Zoriona, batzuetan, gauza txikienetatik etor-
tzen da, ezta, Damian. Kromoa, kobrea eta beru-
na, horixe dauka Txertetxa belarrak bere zaine-
tan gora eta behera. Ezagutzen duzu ondo belar
hori, nonahi ateratzen da ibai eta erreka bazte-
rretan. Baita iturrietan ere, urak garbiak dire-
nean.

Harritu egiten zaitu horrek, nola mineral eta
gatzez pobre diren uretatik sortzen den hain lan-
dare pozoiz aberatsa. Hortxe daukazu lehorturik,
Lakoizketaren kutxetako batean. Marraskia ere
ondoan duzu, nahiz eta izan ganora gabea. Eder-
ki ikusten da, hala ere: hostoak ditu txiki eta bo-
robil gisakoak, pagoarenak bezala, hortz txiki
modukoz beteak. Enborra du perrexilaren antze-
koa, zilindrikoa, eta sustraiak, ostera, urpeko ha-
rriei helduta eusteko modukoak.

Mila bider ikusia duzu Baztan ibaiaren ertze-
tan. Arraiturren ere izango dira halakoak, harri
artetik irteten den uraren iturriaren inguruetan.
Gero joango zara hara. Orain aski duzu aurkikun-

tzaren zorionarekin, pentsamenduaren logikak daroan bidearekin: azken negua, elur negu izan da. Ez da harritzekoa Txertetxa ibaian neurri gabarik ugaritu izana. Ez da harritzekoa, ba, izokinak erruten diren uretan, landareak bere gaiak libratu izana. Agian, gainera, izokinak jan eta irentsi ere egingo zuen ur ertzetako Txertetxa, hostoak uretara eroritakoan. Izokinak ur garbiak ditu maite, erruteko orduan. Gauza jakina da.

Senpe aurkitu zuteneko putzuaren irudia dakarzu gogora, Iruñetik etorritako epailea, ia uretara erortzen ikusi zenueneko hura. Sasiak, inguruko sahatsak, ur geldoa, zapatariak... denak dakartzazu gogora. Senperen gorpua ere bai, pinu enbor usteldua bezala jiratzen ur gainean. Eta, bai, argi eta garbi dakusazu han ere bazela Txertetxa belarra, neurritik gora ugaldua.

Gozoa da logika, Damian, zu bezalako zientzialari batentzat. Ala, esan behar ote nuke, Lakoizketak bezala, zurea, logikaren ordetan dela enpirismoa?

Frogak, frogak huts direla eta ez dagoela antzeko atsegirik zu bezalako batentzat. Horrelako gauzak bai, maite dituzu, eta ez gizakiaren gora-

behera sentipenezkoak. Zer ardura dizu une honetan Leonek, Lupek edo hark izango duen zure haurrak? Zorion uneak bizi egin behar dira, ezta Damian? Batzuetan itsuturik behar da lehenda-bizi, zerbait ikusten hasteko.

Mikroskopiotik begiratzen dena zenbatzeak zaitu baretzen, katalogatzeak zaitu asetzen. BILDUMAGILEA zara! Ez ahantzi, hala ere, zure lana, Ertzaintzarekikoa: zomorroak bilatzen dakizu usteltzera emandako gorpuetan eta, aurkitutakotan, haiek esaten dizute hilketa den noizkoa. Maisua zara horretan, Damian. Hala dio behintzat, Urrutikoetxeak.

Senperena zaharraren odolean aurkitu zuten metal gehiegizkoa, hark jaten zituen izokinetatik etorritakoa zen ezbairik gabe, eta hauena, Txertetxaren ugaltze neurrigabetik. Nondik, bestela, hainbeste kobre, kromo eta berun bazterretan?

Senperenaren beso bihurritua, pendizetik erortzeak eragingo zuen, Tomas danbolindariak uste duen bezala. Aurpegiko ausikiak, osterak, karramarroenak ez, baina izokinenak ziren, Txertetxa irentsi eta biziberriturik hazten ziren izokin

sendoena. Ikusi egin beharko zen geroago, zein gaitzek hilko zituen arrain haiek denak.

Lakoizketak argi dio eskutan duzun pape-rean. Petrikiloaren hitzak dira: *Chertecha orren indarra maravillosoa zela ichura batean, baña luzaroan eriotza ecartzen zequiala. Observatua zuela, Chertecha asco artutaco emacumeac il-tzen zirela denac berdin, gibelego gaitzac jota, espantuca, miñ insoportablearequin eta Jaun Goicoari Misericordia eduquitze-co escatuta*. Argi baino argiago gauzak, ezta, Damian?

Behatu diozu eskuturreko erlojuari. Ordu bata eta hogei. Baduzu astia Joaquinekin Elizondoko Eskisaroin bazkaldu aurretik. Hamar minutu aski duzu egin nahi duzuna egiteko. Pedro perutarra ez zaizu etorriko bila ordu biak laurden gutxiak baino lehen. Hiriko orduan bazkaltzeko ohitura du Joaquinek.

Hartu duzu bidean gora, Arraiturrera, eta estreinakoz egin duzu bidea paradisia erdibitzen duen errekaostari segika. Jabetu zara hango edertasuna ez dela beste inon kausitzen ahal, ez eta hiriburuetako parke ederrenetan ere. Joaquinek dirua irabazten bezala, gastatzen ere bada-

kiela. Funtsezko gauzetan, benetako balioa duten kontuetan.

Birigarro pare bat entzun duzu kantuan eta burura etorri zaizu Maniuk nola banatu zituen hegaztien doinuak, Ameriketako indiarren sines- teetan: goren hegan egitea lortzen zuen hegaz- tiak izango zuela kanturik ederra. Horixe agindu zuen Maniuk. Eta, biharamun goizalban, arrano- ak egin zuela hegazti guztien hegada artetik gora eta gora. Baina, goiena lortu zuenean, haren hegaletako luma artean ezkutatutako biri- garroak egin zuela oraindik ere gorago. Horrega- tik daukala hegazti honek kanturik ederrena. Alabaina, sariak ere badakarrela berarekin zigo- rra, horregatik ibiltzen dela birigarroa beti baka- rrik. Gainerako hegaztiak badakite egun hartan tranpa egin zuela arranoaren bizkarretik gorago salto eginda, eta ez dira liluratzen halako tranpa- ti baten txorrotxio ederrekin. «Neurea, behin- tzat, neuk lortutakoa da», esaten ei dute txepe- txek, kaxkabeltxek eta gainerako guztiek. Eta zergatik ez dakizula, birigarroaren antzeko ba- karti ikusi duzu zeure burua, lorategian gora.

Izango da, seguru asko, zeu ere Lakoizketaren luma artetik gora zabiltzalako saltoka.

Begiratu diezu lorea aspaldi galdutako sei magnolia arbola itzelei, eta irudikatu dituzu zein eder egongo diren datorren urtean, martxoko eguzkia epeltzen hasten denean. Behatu diezu enbor gorridun *Cornus albare*n adaxkei, lau urki dotorek erakusten duten azal zuriari ere erreparatu diozu, zilarkarak egiten...

Azkenean galdu egin dituzu begiak Arraiturretik behera datorren errekaaren uretan, eta ohartu egin zara ez dela ageri goroldiorik, ez alferrikako belarrik bertan. Errekastoan eta bere alboetan ageri diren landare guztiak berariaz daudela lekuan jarrita eta, hondoko harri bakoitzaren ere, halaxe nahi izan dutelako dagoela hortxe. Ez duzu aurkitu ez zapataririk ez eta beste-lako intsekturik ere. Harritu egin zara, zeharo, ikusitakoarekin.

Baina iritsi zara, hortxe duzu Arraiturre edo *La Casita*, zeuk nahien duzun eran esanda. Eta apur bat harantzago, kare harriek muga ezartzen duten gunean, hortxe aurkituko dituzu Txertetxak nahi beste. Eskutan hartu eta Joaquín

ni eramango dizkiozu Elizondora, Lakoizketaren paperen arteko aurkikuntza erakusteko, izokinen enigma argitzeko.

Iritsi zara ia. Lau pauso baino ez, iturri bertaraino. Ikusten duzu pol-pol ugaria dela kare harriak botatzen duena. Ur garbi-garbia, bertan sortua dirudiena. Harrigarriki, ordea, ez duzu ikusi Txertetxa belarrik urari itsatsirik. Bat ere ez halakorik.

Ordea, ahots bat entzuteak jaso dizu begirada ur haietatik. Matilde da deika *La Casita*-ren ataritik.

- Buenos días, don Damian. ¿Qué hace usted ahí? Sabe que don Joaquín tiene prohibido a todo el mundo llegar tan alto en la finca.

Bi hitz esan eta desenkusatzeko harengana bideratu zarenean ikusi dituzu loretan eder, intxaurrondoa eta etxearen arteko itzalean, sei errodo dendro lerdan. Eta lurrikara batek astindu dizu zentzua.

Gogora etorri zaizu istantean Senperen poltsikoan aurkitu zuten *Fibula rododendris* hura, eta balitekeela, pentsatu duzu, logika eta enpi-

rismoa baino harantzagoko neurri ezkutuagoko batek gidatzea mundu honetako pausoa.

TIRO

Eskisaroi ostatuan hogeiren bat mahai daude, eta haietatik preziatuenak, ibai gaineko beirate-gira ematen dutenak. Horietako batean hartu du Joaquin Aldazek Damian. Eserlekurik onena eskaini dio, gainera, bera ibaiari bizkar emanda geratu baita, Damiani eskainiz, zubian behera, ibaiak sortzen duen ikuskizuna.

- Nor izan zuan hiretzat Senpe -galdegin dio deblauki Damianek-. Zer eduki huen harekin?

- Aspalditik hasi behar nindukek. Biak gazte ginenetik.

- Ba, hasi.

- Zertaz?

- Heuk hil dualako.

- Nola dakik hik hori?

- Badakidalako.

- Ezin duk inoiz gertatu gabekorik jakin.

- Bazakiat, ba. Zoritxarrez.

- Ez nauk ni izan. Hitz ematen diat.

- Hire aginduz, bederen.

- Zertaz uste duk hori?

- Besterik ezin delako izan.

Pello sukaldariak ekarritako ondoek eten dute jarduna. Joaquinek gainerako mahaietara jarri du begirada, baina, asteguna denez, frantses senar-emazte galdu batzuk baino ez ditu ikusi jangelako beste aldean, hiru edo lau mahaitan barreiatuak. Berehala etorriko direla oilagorrak, esan du Pellok. Bere lagun Zaldunbeitik ehi-zatutakoak direla, Belate inguruko zelaietan. Urteko lehenak direla eta balitekeela tente samarrak egotea oraindik. Labean apur bat xigortu baizik ez dituela egin, gaineratik tipula eta txokolate saltsa batez estaliz.

Joaquinen keinu batek eraginda, ospa ihesi itzuli da sukaldera. Batzuetan urrutitik sentitzen da norbera dagoela traban eta ez dela estakuruen beharrik, sutea piztuko den lekutik alde egiteko edo, bederen, laba jaurtitzen hasiko den sumendiaren itzalpetik ezkutatzeke.

- Itxurak itxura, ni bezalako oilo koloka huen Senpe ere. Zer uste duk hik, oraiko jendearena baizik ez dela gu bezalakoon kontua? Halaxe uste duzue dena, zeuek ezagutu duzuen artio, ez dela izan ja ere munduan. Adan halakoak! Zen-

bat denbora daramak Baztan alde honetan, hiru, lau hilabete? Dagoeneko dena badakik, ezta hala? Baduk hemengo berri, ezta hala? Badakik nor naizen, badakik nola ibiltzen den barridea. Nortzuk dituk hemen hire lagunak? Bakearen bila etorri hintzen, norat eta artista ero batengana. Segur aski, hire aberriaren luzapen bat duk paraje hau. Zoragarria iruditzen zaik. Belai eta mendi, denak zein bere tokian paratuak, xuxen. Zakurrak saingaka bazterretan. Nola erraten da, parke tematiko bat? Behi, ardi, erreka garbi eta guzi. Nola erdiesten duk hori, nola egiten duk parke tematiko bat? Erradak, zer neurri dik hire aberri horrek, zenbat metro koadro dizkik hire Euskadi bedeinkatu horrek? Neronek erranen diat egia, gizon baten aberria bere begiek ikusten dutena duk. Ez gehiago, ez gutiago. Hauxe duk nerea, herri eta zoko hauek denak. Neroni nauk hemen errege. Ez nauk frantses, ez nauk espainol, ez nauk eskualdun eta ez nauk nabartar. Deus ez nauk eta dena nauk. Neroni nauk Baztan. Izokin alu batzuek kezkatzen haute. Neronek sartu nizkian errekan, kanpotik ekarririk. Hartza bezalakoak dituk horiek, eduki izokinak

errekan, paratu lauzpabortz artista bizitzen inguruan, eta ikusiko duk jendea zitudadetik helduki ur garbien bila. Jendea behar diat nere aberrian. Nondik, bertzenaz? Hik ez dituk ezagutu gure garaiak. Sartzen zaik gosea egun batean eta ez zaik ateratzen hil artio. Bi gerra, hemen eta han. Jendea gibelerat eta aitzinat ibilki. Saltzeko pus-kak batetik bertzera. Baditiat hotela, etxeak, gasolindegia, jatetxeak, harginak, kamionak eta botikak. Horiek dituk nere podereak. Nahi duena ematen zioat nik jendeari, bertze inon ez daukana. Ze inporta zaik hiri Senpe zaharra? Ze inporta nik harekin izandakoak? Basurde izitu bat huen, nerekin egon izanaz damutua. Zer egin behar nian, Iruñerat edo Donostiarat joan maritxu bila? Nik gizonak maite dizkiat, badakik hori lehenagotik, gizon egiazkoak eta mendikoak. Senpe bezalakoak, gizon ez direla uste izateak izitzen dituen horietakoak. Zertako behar zian hasi izokinen kontua barrandan hedatzen? Zertaz ez zian sekula onartu nere konfiantza?

- Horregatik hil huen, beraz.

- Erran nahi duan bezala, baina nik ez nian Senpe kasatu.

Onddo nahaski beroaren arrastoa oraindik ahoan, Damian, aulkia atzerantz botata, zutitu egin da. Hitzik gabe begiratzen dio Joaquini eta konturatzen da zerutik infernurako aldea, zaldi baten zurda meheak erabaki dezakeela. Joateko imintzio egin duenean, Joaquinek hartu du hitza berriro, baina oraingoan, Damiani begiratu ordez, omeleta platerean galdurik begiak.

- Lakoizketarena hor duk osorik. Nik ez diat behar, bota edo erre eginen diat. Eraman nahi baduk, eramak, kanpeon.

Damianek ez dio fitsik erantzun eta, irteerantz jiratu denean, Pellok zekarren oilagorrez betetako azpila bota du ia.

Eskisaroiko atetik estanko baten bila abiatu da Damian kalean behera, konturatu ere egin gabe hiru hilabete baino gehiago direla *La Paz* zigarro pururik ez duela erretzen jada, eta arratsaldeko ordu horietan dena egoten dela itxita Elizondon, beste leku guztietan bezala. Baita estankoak ere.

Iparra galduta doa ibaiaren ondoko karrika paraleloan, pauso azkarrean, arnasarik ere ez duelarik ia biriketan. Dena irensten dio irudime-

nean lekua hartzen ari zaion beste gizonezko sendo batek. Gaztea da, masusta multzo baten antzeko legen ikaragarri bat dauka aurpegiaren erdian eta Anton Apezetxea, ospitalean ezagutu-tako aitonaren begietatik, egiten du oihu Joaquin Aldazen ahotsa erabilita,
- Gora heu kanpeon!

«Erretzen hasi naiz osterara ere. Alde batera lortsatu egiten naiz nire buruarekin, baina, bestera, poza hartu dut kearen atseginarekin. Zerbait behar nuen. Iruditzen zait ez diodala utziko gehiago eta beti egongo naizela akabatzen nauen ke honetatik zintzilikatuta. Aldaba medikuari ez diot esango erretzera itzuli naizenik. Oraingo ez.

Lupek telefonorik hartu nahi gabe jarraitzen du nirekin. Ez dakit bere ama edo nor den deiak jasotzen dituen. «Lupek ez du zurekin hitz egin nahi...» esaten dit irmoki, baina, amaitu baino lehen gaineratzen dit «...oraingo». Hitz horren atakaren itxaropenari helduta bizi naiz egunotan. Ez dakit Lupek onartuko nauen edo ez

eta, onartuta ere, ez dakit neuk hori nahi ote dudan benetan. Haurra bai, hori erabakia dut, haurra nirea izango da, nire semea edo alaba. Gertutik edo urrutitik, ez diot Luperi bakarrik utziko horren ardura. Halakorik ere ez nuen egiazki nahi, baina hortxe da atean kax-kax. Ez dago itzultzerik. Iruditzen zait, gainera, aurpegia ikusten diodanean, hasiko naizela neu ere gaintzoko aita guztiek sentitzen dutenaren antzeko zerbait sentitzen. Itxaropen horixe daukat, bederen, gertakizunak azpian hartu nauen honetan.

Ez dakit kontu zaharren berri, ez naiz sartuko bi gizon basurderen artean gazte garaian gertatutakoaz. Ez ditzaket irudika Senpe eta Joaquin elkarren ferekan. Irudimenak ez dit ematen. Nire aita baino zaharragoak biak, hemen, Baztanen halako lanak hartuta. Ez zuten edukiko bizimodu gozoa.

Ibiliko ziren elkarrekin kontrabandoan, gauezko lanean, mendian gora eta behera, eta uda beroan, iratze lehorretan atsedentzera emanak, edo leize batean gardien zelatan, nabari-tuko zuen batak bestearen eskua azalean barru-

ra. Nabarituko zuten ez zirela Elizondoko edo Arizkungo gainerako gizonen antzekoak. Eta izerditan blai, batak bestearen usainetan hartuko zuen atsegina. Nor ote bietatik emakumea?

Biak anker, biak zakar, biak mendikoak. Begietan eta ahotsean eraman uste zuten marka ezkututzen pasatuko zuten bizimodua. Euren lekuan arrotz, beti zelatan. Senpek nahiago zuen basoa eta mendia Aldazenea baino, eta irudikatzen dut Joaquin, Senperena zaharra bere alboan eutsi ezinik, haragi eta bihotz minetan itoa.

Badakit, hala ere, Joaquinek hil duela, azkenean, Senperena. Pedro perutarrak egingo zuen hori, Arraiturre inguruan. Beste inon ez da errododendrorik Baztan alde guztian. Hantxe erdi akabatu eta, gero, Senpek egunero ikusten zuen putzuan botata utzi gorpua. Lepoa egingo nuke kontu eskean joan zitzaiola Senpe Joaquin, izokin-en gaiarekin, eta oraingo kontuak eta zaharra-goak, denak bilduta, gertatu zela gertatu beharrekoa.

Nahastuta nengoen, Txertetxa belarra ugari da bazterretan, baina izokina *Chinook* motakoa da, eta ez bertakoa, Joaquinek nonbaitetik eka-

ria. Kanada aldetik, seguru asko. Odolean dakar, berez, arrain horrek hainbesteko metal kopurua. Datorren urtetik aurrera besterik ez da geratuko Baztan ibaian: berak jango ditu beste guztiak, bertako izokin, loina, amuarrain eta ez-kailuak. Horiek amaitutakoan, kideak erasotzen eta jaten hasiko da. Ez da giro izango ur haue-tan. Izugarri gogorra da izokin mota hori eta arrazoi du Joaquinek, urak apur bat kutsatu eta zikindu arren, gogor eutsiko dio arrain horrek ibaian eta postal turistikoetan.

Konturatzen naiz, baita ere, Otsoeneko denborak amaitu zaizkidala. Udabeteko hau garairik txarrena da Zorionara itzultzeko. Hondarribiko Golfa eta inguru guztiak turistaz beterik izango dira egunotan. Txapelketa garrantzitsuenak oraintxe izaten dira, makilak hartu eta denak, tak eta tak, balak airera, gainera nori eror dakizkiokeen pentsatzen jarri ere egin gabe. Asesinoak».

Asesinoak hitza idatzi duenean, eten egin du idazketa. Leonen ondoko gelan, taupada bat en-

tzun du eta Argosek ere egin du intziri mehe bat airean.

Arratsa da Arizkunen eta eguzkia ezkutatzearekin bat, kale eta auzoetako zaratak handitu egiten dira. Ezkilak eta txintxarriak, traktore soinuak, urruneko moto baten durunda... denak egiten dira present egunez ez bezala.

Azkar jaiki da Damian eserlekutik eta Leonen atea ireki du, aurrez kolpe arin batzuk emanda. Lurrean aurkitu du ahoz gora gizona, besorik gabeko elastiko urdin bat bakarrik gorputzean jantzita. Ez daroa besterik, ez eta sexua ezkututzen dionik ere.

Lehenengo begiratuan gauza harrigarria etorri zaio burura Damiani, iletsua dela pentsatu du, bere aldean behintzat, guztiz iletsua. Zangoetan, zakilaren inguruan, agerian geratu zaion sabel aldean, sorbalda eta besoetan, bilo belbetsak eta ugariak ditu Karrikak. Harritu egin du horrek Damian, eta konturatu da laguna biluzik ikusi gabea zela sekula.

Gero haren begiei erreparatu die: zabalik daude sabaira begira, baina aurpegiko zurbildurak eta, batez ere, ezpainenatik irristatzen zaion

apar ugari batek eman diote aditzera lagunak begiekin ez duela ezer ikusten ahal.

Leon Karrikak ez du erantzuten eta estutu egin da Damian. Ezpainetara hurbildu dio belarria. Bai, arnasa badu oraindik.

Pauso azkarrez hartu ditu atarirako eskaile-
rak eta, handik, Baleztenera. Anbulantziari deitu diote lehenbailehen etor dadin.

Maria etxekoandreak eta haren alabak lagundu diote Leonengana, baina, gelan aurrera egin baino lehenago, apur batean atean itxaroteko eskatu die Damianek. Ohearen beste aldean botata aurkitu duen pijama galtza motz bat jantzi dio, zela-hala. Orduan sartu dira emakumeak eta burua altxatu diote apur bat Leoni lurretik. Usain itzela dago gelan: gizon izerdituaren usaina. Sukaldetik ura ekartzeko eskatu diote Damiani emakumeek, eta eskertu egin du agindua, berak ez baitaki zer egin behar izaten den hiltzera jarritako gizonekin. Anbulantzia bidean izango da.

Telefonoa hartu du eskuetan eta Mirariri deitu dio Ziburura. Hirugarren tutuan jaso du Leonen emazteak. Albistea entzun duenean, ea Leon anbulantzian nora eramango duten galdetu

du. Ez dakiela, Damianek, Irungo Komarkalera edota Iruñeko Ospitalera. Dakienean deituko diola berriz.

- Nola gertatu da?

- Ez dakit, bere gelan zegoen eta zarata bat entzun dut...

- Bat-batekoa izan al da?

- Ez, denboralea zeraman gero eta okerrago.

- Zergatik ez didazu lehenago deitu?

- Ez naiz ausartu.

- Mozoloa zara! -eta, klik, eskegi dio telefonoa.

Anbulantzia atean da, Irunera eramango omen dute, hurbilago geratzen da eta. Erizain batek galdetu dio Damiani nola gertatu den eta honek, morfina hartzen duela esan dionean, «!Me cago en la leche!» batek, egin dio ihes, beste erizain bati agindu baino lehen «Ponle una B12 intravenosa, a toda hostia, que se nos muere».

Junkal joan da Leonen ondoan ambulantzian.

Damianek telefono zenbaki bat apuntatu du papertxo batean eta jarraian Balezteneko Maria-ri eskatu dio mesedea, deitzeko otoi Leonen

emazteari zenbaki horretara, eta esateko Irune-
ra eraman dutela, eta ez Iruñera.

Gero, denek alde egin dutenean, ohean etzan
da ahoz gora. Astia hartu du konturatzeko, Argo-
sek Leonen ate parean jarraitzen duela etzanda.

Lehenengo gaua du bakarrik Otsoenean, eta
azkena.

PUN

«Egin berri du argi eguzkiak. Goizeko lehen orduetan ari naiz kaier honetan idazten, soilik denborari denbora eman nahian, Mariak Balezteneko atea ireki bitartean. Harixe emango dizkiot Otsoeneko giltzak eta gero, joan egingo naiz. Gaur dut azkena hemen.

Lerro hauek ere azkenak dira kaierean, pare bat orri zuriren lekua baino ez da geratzen *Mutuaren hitzak* honetan. Zikindu egingo ditut, hizki bat bestearen atzean. Egia esan, ez dakit zertarako idazten dudan. Zergatik abiatu nintzen ez nekien bezala, ez dakit zergatik jarraitzen dudan.

Batzuetan iruditzen zait lerro hauetan aurkitzen dudala nire bidea eta, bestetan, hementxe galtzen naizela zeharo, hitz alfer hauen artean. Iruditzen zait, baita ere, gertatzen zaizkidan gauzetatik libratzeko baino, gehiago balio dutela gauzak benetan gerta dakizkidan. Erran nahi dut, La Rochefoucauld-en ezpaletik, koaderno honetan izendatzen ditudanean bakarrik gerta-

tzen direla errealitatean gauza guztiak. Inoiz idatziko ez banitu, ez ziratekeela. Hori izango da literatura, horixe idazlearen lan betierekoa: arnasten duena paperera itzultzea.

Gauean ez dut lorik egin ia. Kanpandorreko ordu guztiak entzun ditut dilin-dalan. Ez dakit hitzon artetik nola adierazi, baina Leonen lekua nahi nuke neuretzat. Hark egina du nik oraindik hasi gabeko bidea. Han egongo da, konturatu ere egin gabe, dabilela hil edo biziko deman. Lo egongo da kirofanoan, berdin zaiola esnatu edo halaxe jarraitzea. Ezer erabaki beharrik ere ez dauka, gainerakoek egingo dute hori bere lekuan. Medikuek iratzarriko dute agian, eta esango du «Oh putain! Hemen naiz berriro, kaixo denoi. Non da nire pinturen kaxa? Banoa pintatzera».

Berari begira emakume bat eta lau alaba. Nork begiratzen dit niri? Leonek ezagutua du nik dasta ere ez dezakedana. Edan du iturri horretatik. Ase da. Beste bat da orain haren egarria: osin bat kolorez harrapatzea. Gero nahiko du arbolape baten itzala ehizatu, mendi gailur baten ebakeraortzian, edo zaldi batzuen pausoa soro-

aren erdian. Inon ez dagoena nahiko du. Horixe bakarrik, gauza guztien gainean.

Zer nahi dut nik? Zer nahi du mutuak?

Hizketan ikasi du dagoeneko, etorria zaio ahotsa lehengora, baina hobe du mutu, zer esanik asmatu artean».

Nola ikusten duzu itzulerako bidea, Damian? Al-datuta dago Otsoenera etorri zinen egunetik. Ezta? Gliziniak lorea galdua dute eta erreago daude bazterrak. Berde argiaren lekua, ilunago batek hartu du bide ertzetan. Zenbait soro horiturik ere ageri da lehortean.

Utziak dituzu atzean *Abiadura Geldoa* eta *Abiadura Handia*, biak. Ez zara lehengoa bera. Orain datorkizunari *Abiadura Berri* esaten diozu, ez baitzara ausartzen izen egokiagorik jartzera. Badaezpadan.

Argosek ere ez zaitu segitu. Nahiago izan du Otsoenean ugazaba berria noiz itzuliko gelditu atarian. Hemendik aurrera ez dizu inork ongi etorririk emango Zorionan ilunabarretan. Beste Argos bat aurkitu beharko duzu bakardadeak ito

ez zaitzan. Ala Lupe eta haurrari egingo diezu leku azkenean?

Otsoeneko giltzak Baleztenean uztera joan zarenean, amantalean lehortu ditu eskuak Mariak, beti ohi duen eran. Junkal ez dela oraindik ospitaletik itzuli, baina deitu diola telefonoz. Iru-nen dagoela Mirari eta Leonen alabetako batekin. Ez dutela Leon oraindik gelara jaitsi eta mementuz medikuek ez dutela deus esaten. Ez dakitela atakatik irtengo den. Gero harritu egin zara bi musu prantatu dizkizunean, partitzeko tenorean.

- Agur esaiezu Tomas danbolindariari eta gainerakoei, nire aldetik.

- Zoaz lasai. Neure kontu.

Etixerako bidean daukazu Irungo ospitalea. Ausartuko ote zara, gelditu eta Leonen albiste Mirariri eskatzera?

Elizondoko errepidetik nabari ikusten da Joa-quinen etxea, eta pentsatu duzu, palmondoak zutik dirauten bitartean, zaila daukala eraikinak izenez aldatzea. Beti izango dela etxe hori India-noarena.

Sutara botako dute aurki Lakoizketaren bilduma osoa. Gera zaitez une batean hor ere, saku-tu balazta jauregi parean. Autoaren atzealdean sartuko zaizu bildumaren zatirik handiena, eskuizkribuak eta liburuak bai, behintzat. Eraman itzazu zeurekin, ez utzi betiko gal daitezten. Bildumagilea zara edo ez, Damian?

Badakizu, ordea, ez zarela geratuko inola, horixe duela Joaquinek mendekua: zeu egitea Lakoizketaren lana galdu izanaren erantzulea. Opari pozoitua. Hara hor zor zenion ordaina.

Zer egin behar duzu dakizunarekin? Erabaki al duzu Poliziari zerbait esatea? *Fibula rododendris* alu bat ez da gauza handia, baina haritik tiratzen hasteko beste bai behintzat. Baztan osoan ez da beste inon errodoendrorik, Arraiturren dira denak. Urrutikoetxea komisarioak aski luke horrekin lanean hasteko, baina Baztan ez dago haren menpeko eremuan.

Nireak balio badizu, zaude isilik, mutua, horrekin ez duzu eta deus irabaztekorik. Joaquinek beti ukatuko du Senpe hil izana. Ikertu eta aurrera egiten badute, Pedro perutarrari egotziko diote hilketa, eta honek ez du ezer esango uga-

zabaren kaltetan. Ez, behintzat, emaztea eta seme-alabak Arraiturren segur diren bitartean. Alferrik duzu salatari bihurtzea.

Min egiten dizu, ordea, gauzak bere horretan uzteak. Senperena zaharraren aurpegi ausikia ikusi izan ez bazenu! Baina ikusi egin zenuen ibaian itota, itoazita, besoa bihurrituta, enbor ustela bezala urazalean jirabuelata. Zeure begitxo horiekin. Horixe nahi izan zenuen orduan, oroitzen zara, ezta?

Gauza asko daukazu erabakitzeko, bai. Tabakoarena ere hortxe duzu. Zer esango dizu Aldabak erretzen hasi zarela jakiten duenean? Zer esango duzu zerorrek eztarriko mamorroa berriro agertuko zaizunean?

Ertzaintzarekin segi edo Unibertsitatera itzuli ere, erabaki beharko duzu halako batean. Diruak ere amaitu zaizkizu ia. Gauzak daudenean, nahiago zenuke Ertzaintzarekin segitu, ezta? Akituegi zaude etxea, bizilekua eta lanbidea, denak aldatzen hasteko. Nomadaren sasoi iragana zaizu aspaldi. Zoologiako ikasle inozoz beteko litzaizuke, gainera, berriro burua, unibertsitatean.

Beste aukera ere ez duzu gustukoa: Lupe eta umearekin jartzea bizitzen Zorionan. Nola lortuko duzu Lupe zeureganatzea? Seguru dakizu, hainbeste denbora eta gero, zeu zaituela oraindik gogoan? Agian aski du haurrarekin. Askotan gertatzen da hori emakumeen artean. Baina horrek ere ez dizu balio, haurra zeure haur nahi duzu orain eta prest zara maite ezin duzun emaztearekin bizitzen jartzeko, ezta? Azkenean lortuko duzu besteen modukoa izatea.

Zein baino zein txarragoa irtenbidea zuretzat, Damian. Begira iezaiozu, hala ere, alde one-tik, zerbait badu eta. Hautatzen duzuna hautatu, agian hortixe etorriko zaizu heldutasuna. Hitz polita, zinez, heldutasuna. Zer ote da? Ezer pentsatzeko astirik gabe, zeuk agintzen ez duzun bidean eman beharreko pausoaren antzeko zerbait behar du horrek izan, izatekotan. Zeure baitatik irten eta gehiago ez itzultzea.

Kontuz bolantean. Kasu! Kamioiek errepide hau maite dute eta ez da leku handirik geratzen bihurguneetan. Ibaiak antolatutako suge grisa dirudi bideak, okerreztan. Kasu, Damian, kasu. Bizirik behar duzu eta.

Jarri arreta. Begiratu zertan zabitzen. Zertarako behar duzu ezer kontatzen ibili. Pentsa ezazu hobeto egin behar duzuna. *Abiadura Berriari* izenik nola jarri ez badakizu, neuk lagunduko dizut bataio lanetan. Dei iezaiozu honela: *Abiadura Larria*. Horixe duzu jotzen ari diren sintonia.

Erabaki beharko duzu, baita ere, nori kontatu gertatzen zaizuna, eta, batez ere, gu biotatik nor izango den esan beharrekoen kontalaria: zu ala ni. Edo, agian, aitortu beharko duzu, behingoz, ni zu naizela eta zu zarela ni. Horregatik direla gure ahotsak ia berdinak.

Baina baduzu beste aukera bat ere. Neuk bezain argi dakizu hori, Damian. Utzi gauzak dauden tenorean: zuk zeureak idatzi mutuaren kaier horretan eta utzi niri esaten neureak. Utzi gauzak dauden-daudenean. Zernahi eginda ere, dantzan ez duzu asmatuko eta. Ez nabil oker, Damian: inon ez dago zuretzako zerurik. Ezta?